ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko uztailaren 12a > Astelehena > VII. urtea > 285. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Klima eta energia krisia norabide onean goazen hausnartzeko aukera da"



**Ben Brangwyn** Totnesko Transition mugimenduko kidea > 08

**G2a** Likinianori buruzko komikia kalean > 29

**DEBAGOIENA** Saharako umeak Debagoieneko familiekin dira dagoeneko > 04

**ARRASATE** Eibarko urbanoan baino hiru bider bidaiari gehiago Arrasaten > 14

**ESKORIATZA** Hainbat elizatetako bideak konpontzen dabiltza > 19

**ONDAREA** > OXFORDEKO UNIBERTSITATETIK IRITSITAKO EMAITZAK

# Duela 45.000 urteko kromagnoiak zeuden Arrasateko Labeko koban

**BAIEZTAPENA** Oxfordeko unibertsitateak baieztatu berri du laginketen emaitzek hori diotela

**KONGRESUA** Arrasateko aztarnen gainean eztabaidatzeko kongresua egingo dute Oxforden, apirilean

**DESAGERTUTA** Arrasateko saihesbidea egiteko Aranzadikoek atera zituzten kobako aztarnak, 1987an > 02-03

## Omar Frailek Asentzion aurrera egin eta Antzuolaraino abantailari eutsi zion

Lasterketa biribila egin zuen atzo goizean Seguros Bilbao taldeko Omar Frailek, probako gizonik azkarrena izatearekin batera mendiko saria ere eskuratu zuelako. Asentziorako aldapa gogorretan erasoa jo zuen eta hamabost segundoko abantaila eskuratu zuen Asentzioko gainean.

Handik Antzuolara bakarrik egin zituen azken hamabost kilometroak eta atzetik zetozenak ez ziren Santurtziko ziklista harrapatzeko gauza izan. > 22-23




**ESKUAK GORA** Omar Fraile, Antzuolako helmugan, ia hiru orduko lan-saioa egin ostean. Hamabost segundora iritsi zen bigarrena. JULIO CALLEJA

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**JENDARTEA** > EKITALDIA

## Joxepa Arregiri agurra

Ehun lagunetik gora batu ziren domekan Anbotosten Joxepa Arregiri agur esateko > 07

**EKONOMIA** > DEIALDIA

## UGTk greba deialdia irailerako

Irailaren 29rako greba deialdia egin du UGT-Euskadiko idazkari nagusiak Arrasaten > 07

Goiena kluba
Elhuyar-en panpina eta jokoa opari. Nahi?



Zoaz 26. orrialdera

**ONDAREA** > OXFORDETIK IRITSITAKO EMAITZAK

# Duela 45.000 urteko kromagnoiak zeuden Labeko koban

**ZAHARRAGOAK** Oxfordeko laborategiak dio topatutako materialak uste zena baino 10.000 urte gehiago dituela

**KONGRESUA** Datorren urteko apirilean kongresua egingo dute Oxforden, emaitzen gainean eztabaidatzeko

**DESAGERTUTA** 1987an, Arrasateko saihesbidea egiteko, hasi ziren egun desagertuta dagoen koba husten

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Arrasateko Labeko koban aurkitutako hainbat material orain dela 45.000 milioi urtekoa da. Kobazulo horretan indusketak egiten ibili zen Alvaro Arrizabalagak baieztatu du Oxford unibertsitateak laginketei egindako azterketen emaitzek diotela hori.

Azaldu du datazio berriek 10.000 urte egin dutela denboran atzera eta laguntzen dutela finkatzen benetako elkarbizitza egon zela azken neanderthal eta lehenengo kromagnoi artean, Europan. Proiektu horren harira, Frantzian, Alemanian eta Italian aztarnategi bakar batzuk daudela aipatu du, eta Espainian saioak egiten dabiltzala hamar bat tokitan. Arrizabalagaren arabera, "horietatik garrantzitsuena da, zalantzarik gabe, Labekokoa. Laguntzen du finkatzen kromagnoia nola, nondik eta zer abiadurán sartzen den Europan. Orain arte topatu diren aztarna zaharrenak duela 35.000 urtekoak dira. Garrantzia handia du, eta datorren urteko apirilean Oxforden aurreikusita dago emaitzen horien gainean eztabaidatuko duen kongresua egitea".

**ARRASATEKO HIRU GAZTE**

1970eko hamarkadan hasi ziren Labeko koban indusketak egiten. 1971n, Arrasateko Xabier Azkoaga, Jose Maria Guridi eta Juan Carlos Mentxaka gazteak San Josepeko ingurunean zegoen koban sartu eta buztin puskak hartu zituzten. Hiena baten gorotz fosilizatuak ziren horiek. Kobazuloa miatzen ibili ziren eta zintzilikatuta zeuden hezurrak topatu zituzten, buztinezko tanpoi batean. Garai hartan, material paleontologikoa atera zuten handik; tartean, errinozeronte, bisoi, hiena eta zaldien hezurrak. Gaia aparkatuta geratu zen 1981era arte, Gipuzkoako aztarnategi arkeologikoak bildumatu eta horren gaineko lehen aipu "formala" sartu zuten arte.

**SAIHESBIDEA ERDITIK**

1987an Arrasateko saihesbidearen proiektua ezagututa, Arrasateko Besaide espeleologia taldekoak Aranzadira joan ziren, obrek aztarnategia hartu behar zutela eta koban premiazko indusketak egin behar zirela esanez, hezurrak ateratzeko. Diputazioak hilabeteko epea eman zien arkeologoei, kobazuloa aztertzeko. Arrizabalagaren esanetan, "egundoko inausketa egin genuen eskuz, 100 bat metro kubiko atera genituen; dozena bat pertsona ibili ginen lanean, Oñatiko eta Arrasateko espeleologoak eta herritarrak. Egun gutxitan lehenengo harrizko tresnak agertu ziren".

Aurkikuntza horrekin aztarnategi paleontologikoa (faunarena) izatetik harantzago joan zen, eta lan egiteko metodologia aldatu behar izan zuten. Beste hilabeteko epea eskatu zuten, azterketa berriak egiteko. Arkeologoaren arabera, "oso aztarnategi garrantzitsua agertu zen, bakarra Kantauri aldean. Hortaz, aztarnategi osoa hustu behar zela esan genion Diputazioari".

Adituek nahi zuten saihesbidearen proiektua aldatzea eta Labeko koba suntsitu beharrean, ondoan tunela egitea eta indusketak apurka-apurka egiten joatea, ohikoa den moduan. Arrasateko Udala ere tunela egitearen aldekoa zen. Garai hartako alkate Xabier Zubizarretaren esanetan, "trazatua negoziatzen egon ginen. Tunela nahi genuen, batetik, kobaren existentziagatik eta bestetik, egungo trazatuak egindako suntsiketa saihesteko. Baina, ez genuen lortu Diputaziotik proiektuaren aldaketarik".

Indusketei dagokionez, gainera, Diputazioak aste gutxitan nahi zituen egitea, laginketa baten araberako balorazio "arina" eginez eta gainerakoa suntsituz. Arrizabalagaren arabera, "tarteko" irtenbidea topatu zuten. Espeleologoendako kobaren edukia zen garrantzitsua eta Diputazioarendako kobazuloa ixtea. Azken horrek baimena eman zuen 1988 urte osoan zehar, koba barruan zegoen guztia berreskuratzeko.

Martxotik abendura bitartean ibili ziren han. Oso maila garrantzitsuak topatu zituzten, bereziki behealdean. Arrizabalagaren esanetan, "azkenean, metro erdiko aztarnategia izan beharrean, lau metroko sakonera zuen aztarnategia zen. Lagungarria izan zen neanderthalak ia desagertuta daudenetik lehenengo kromagnoiak agertzen den garai horrena".

Azterketa egiterakoan, materiala datatzeko arazoak zituzten eta Aranzadikoek konforme geratu ez zirenez, orain dela 3 urte Oxfordeko laborategiak material horrekin metologia berria probatzeko eskaera egin zien. Ez zuten larregi pentsatu. "Oso metodologia zorrotza eta garestia da eta datazio berriak oso fidagarriak dira. Ez dauka atzera bueltarik".



**ESANAK**

### "Oso aztarnategi garrantzitsua agertu zen, bakarra Kantauri aldean. Hortaz, aztarnategi osoa hustu behar zen"

**Alvaro Arrizabalaga** > Arkeologoa

### "Tunela nahi genuen, batetik, kobaren existentziagatik eta bestetik, egungo trazatuak egindako suntsiketa saihesteko"

**Xabier Zubizarreta** > Alkate ohia

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.mondragon.edu/gep
e-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio heziketa
www.mondragon.edu/enpresagintza
e-posta: gestioheziketa@gmail.com
Tel: 943 71 80 09

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2010-2011



Lanerako gertu!

Matrikulazioa
Uztailaren 7tik 13arte

ESKAINTZA AKADEMIKOA

| MGEP | Oñati Gestio Heziketa |
| --- | --- |
| • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak<br>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa<br>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua<br>• Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa<br>• Industri Ekipoaren Mantenimendua | •Administrazioa eta Finantzak<br>•Idazkaritza<br>•Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a |

CAJA LABORA EUSKADIKO KUTXA
HETEL Elkarteko ikastetxea
Lanbide heziketa formación profesional



Kromagnoia Deba eta Aramaio ibaiak elkartzen diren ingurunean bizi izan zen, orain dela 45.000 urte.

GOIENKARIA




Uribesalgo enpresaren atzealdean zegoen kokatuta Labeko koba. MIRIAN BITERI

DATUA

# 160.000

**TRESNA ETA HEZUR**

Labeko kobatik 130.000 hezur atera zituzten: horietatik 30.000 puska esanguratsuak ziren. Horretaz gain, 30.000 harrizko tresna ere irten ziren 1987tik 1988ra egindako indusketetan.



1987tik 1988ra bitartean egindako indusketak. ALVARO ARRIZABALAGA

## Kobazuloaren zati bat ikus daiteke saihesbidetik

1987ko azaroan, Arrasateko saihesbidea eraikitzeko, Kurtzetxiki mendi magala garbitzen hasi zirenean, Besaide taldeko espeleologia arloko kide Jose Maria Exposito trazatua kobatik pasatzeko zuen aukeraz pentsatzen hasi zen. Oñatiko arkeologi taldeko Jose Angel Barrutiabengoarekin jarri zen kontaktuan, eta hori, aldi berean, Aranzadiko Jesus Altunarekin. Koba aztertu eta egon zitekeen materiala urgentziaz ateratzea adostu zuten, Alvaro Arrizabalagarekin batera. Lan hori urtebetez luzatu zen. Jarraian, makinak sartu ziren eta 4 metroko sakonerako koba suntsitu zuten. Horren zati bat ikus daiteke egun.



Saihesbidetik kobazuloaren zuloa ikus daiteke gaur egun. M.B.

**ELKARTASUNA** > 'OPORRAK BAKEAN'

# Saharako umeak Debagoieneko familiekin daude dagoeneko

## 15 ume etorri dira: 9 Arrasatera, 4 Aretxabaletara, bat Bergarara eta beste bat Antzuolara

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Tindoufeko saharar errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren 8 eta 12 urte arteko neska-mutikoak heldu dira gurera. Zatikatuta heldu dira: batzuk eguenean, eta taldeko azkenak, zapatuan. Guztira, 15 ume etorri dira: bederatzi Arrasatera, lau Aretxabaletara, eta bana, Bergarara eta Antzuolara.

Bi hilabete egingo dituzte gurean: irailaren 9ra arte gutxi gorabehera. Tarte horretan, harrera-familiek umeak jantzi, jaten eman eta mediku azterketak egitera eramango dituzte. "Familiako ekintzetan ere parte hartuko dute, etxeko beste kide bat izango balitz moduan", esan digu Nubi elkarteko Agurne Juldainek.

Saharako neska-mutikoek hainbat ekintzetan parte hartuko dute. Horietako bat udal arduradunek egingo dieten harrerak dira. Oraingoz, Arrasateko Udalarekin hitzordua zehaztu dute: hilaren 22an egingo diete harrera, 17:30ean. Aretxabaletan eta Bergaran ez dute harrerarik lotu oraindik.

**UME GUTXIAGO**

*Oporrak bakean* programak erantzun ona izan du familien artean. 12k hartu dituzte umeak: zazpi familiak Arrasaten, hiruk Aretxabaletan, eta familia banak Bergaran eta Antzuolak.

Ume kopuruari dagokionez, gehitu egin da Arrasaten, eta gutxitu Bergaran. Nubi elkartearen bidez lau ume berri daude Arrasaten. Bubisher elkarteak iaz sei ume ekarri zituen Bergarara, Elgetara eta Antzuolara. Aurten bi bakarrik etorri dira.

DATUA

**12**

**FAMILIA**

Saharako umeak 12 familiatan egongo dira: zazpi Arrasaten, hiru Aretxabaletan, bat Bergaran eta beste bat Antzuolan.

> POLITIKA

### "Arrasatek etekin handia atera dio E Planari", dio Arrietak

Arrasateko PSE-EEren bozeramaile Aritz Arrietak esan du E Planari "etekin handia" atera diotela Arrasaten. "Foru Aldundiaren eta Udalaren inbertsio faltengatik, Zapateroren Gobernuak emandako dirua aprobetxatu dute hainbat lan egiteko", gaineratu du.

E Planaren bigarren fasean Gelmako oinezkoendako bidea eta Musakolako kirolgunea eraberritzeko lanak egiten dihardute. Hirugarren proiektua bukatu dute; hain justu ere, udal zerbitzuak zuntz optiko bidez lotzea.

**BIRZIKLAPENA** > EKO3R SISTEMA

# Arrasaten 8.302 litro olio batu dituzte lau hilabetean

**M.B.** > ARRASATE

Arrasaten etxeko olioa birziklatzeko sistema berriaren lehen lau hilabeteak oso onak izan dira, arduradunen esanetan. Eko3r-k, guztira, 8.302 litro olio batu ditu herriko hainbat tokitan jarritako 11 edukiontzietan.

**GEHIEN, INAZIO ZULOAGAN**

Arrasateko Udalak otsail bukaeran jarri zituen olioa batzeko edukiontziak Arrasateko kaleetan. Tarte horretan, olio gehien Inazio Zuloaga kaleko edukiontzian batu dute; hain justu ere, 1.510 litro olio. Bigarren eta hirugarren tokietan daude Maiatzaren Bata eta Udala plazakoak: hurrenez hurren, 1.410 eta 1.319 litro olio batu dituzte.

**EROSKIKOAN GEHIAGO**

Eko3r-ko arduradunek kaleratu dituzten datuen arabera Eroskin dagoen edukiontzian 795 litro jaso dituzte. "Erosketak egitera doazen debagoiendarrek uzten dute olioa han. Euren herrietan beste sistema bat eduki arren, Eko3r ontzia erabiltzen dute olioa birziklatzeko", diote.




Neska bat olioa birziklatzeko ontzia botatzen Eroskiko edukiontzian. M.B.






Irastorza Hizkuntz Normalkuntzako Teknikaria da Emun kooperatiban. 115 enpresarekin eta 40 bat erakunderekin lanean dihardute.

Joxpi Irastorza > Hizkuntzen psikopedagogian lizentziaduna

# "Pentsatu, sentitu eta egin; horixe da guk proposatzen dugun hurrenkera"

EDU MENDIBIL > BERGARA

**Joxpi Irastorza lazkaotarrak doktore tesia defendatu berri du Huhezin. Euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak izan ditu aztergai, *cum laude* kalifikazioa jasoz. Mari Jose Azurmendi (EHU), Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Pablo Sotes (NUP), Iñaki Martinez de Luna (EHU) eta Nekane Goikoetxea (MU) izan ziren epaimahaian.**

**Zerk bultzatu zintuen gai horri heltzeko?**

Orain 12 urte hasi nintzen abentura honetan, kasualitatez hasi ere. Plan bat diseinatu eta inplementatzen hasi nintzen beste lankide batzuekin batera. Planak onarpen oso ona izan zuen enpresaren aldetik eta langileen gehiengoak (%95) plana martxan jartzeko jarrera ona edo oso ona azaldu zuen. Eta abiatu ginen; segituan konturatu ginen bidea ez zela leuna izango, aurrean genuena maratoi bat zela. Eta jarrera, portaera eta motibazioa bezalakoez interesatzen eta irakurtzen hasi nintzen.

**Antza, jarreratik portaerara jauzi egiteko ez da nahikoa euskararen aldeko intentzio ona eta konpromiso sendoa.**

Hori da eguneroko lanean ikusten duguna eta egin dugun ikerketa lanean ikusi eta ondorioztatu duguna. Intentzioa edo konpromiso pertsonala izatea ezinbestekoa da portaera bat abian jartzeko, baina, ez da nahikoa. Izan ere, intentzioaren inguruan beste faktore batzuek ere eragiten baitute eta emaitzak lortuko badira, faktore horiek, barrukoak zein kanpokoak kontrolatzea behar-beharrezkoa da. Intentzioa ona izanagatik, egun txar bat izan dezakegu edo haizeak guk nahi dugun aldetik ez du jotzen edo lan egiten dugun tokiko inguru soziala nahasi samar dabil eta ezin izaten dugu intentzioa kontrolatu.

**Hizkuntzaren egoera soziolinguistikoaz gehiago jakitea, euskararen gainean hausnarketa egitea ezinbestekoa omen da. Zergatik?**

Paradoxikoa bada ere, horrela da. Euskarari buruz hitz egitea da helburua, baina erabilera areagotzeko, hau da, euskarari buruz hitz egin, euskaraz hitz egiteko, gehiago hitz egiteko. Helburuak lortzeko pentsamenduaren garapena da gakoa. Zenbat eta gehiago jakin zerbaiti buruz, gure emozioak ere areagotu egiten dira jarrera objektu horrekiko eta ondoren pausoa ematea errazago suertatuko zaigu. Pentsatu, sentitu eta egin; horixe da guk proposatzen dugun hurrenkera.

**Hausnarketa hori ematen da gaur? Baliabideak badaude?**

Bai, zenbait enpresatan gogoeta-hausnarketa saioak abian jarri ditugu, baina, aldi horretara iristeko ere, pazientzia izan behar da. Enpresa batean hasi eta segituan ez gara gogoeta horiekin hasten; langileak ezagutu egin behar dira, eurekiko hurbilpena lortu eta poliki-poliki euskararen gainean gogoeta egiten hasi. Gainera konturatu gara, hurbilketa hori asko estimatzen dutela, oro har. Gainera, ebidentziak ere jasotzen ditugu; euskararen gaineko eskaera areagotu egiten da, parte-hartzea zer esanik ez. Erdaldunekin ere izan dugu horrelako esperientziarik; bakanak izanda ere, antzeman dugu eskertu egiten dutela hurbilketa hori eta ondorioz eurek ere beren aldetik zertxobait gehiago ematen dutela, euskara eskoletara joanez, adibidez.

> **"Helburuak lortzeko pentsamenduaren garapena da gakoa. Emozioak garatzean, pausoa ematea errazagoa da"**

> **"Euskara planak ez dira lasterketa laburrak, maratoiak baizik"**

**Zein izaten da langileen motibazio nagusia?**

Norberak euskararekiko duen lehentasunetan euskara badago, langileak parte hartzen du. Euskararekiko kontzientzia, interesa, konpromisoa, gogo edo nahia baditu, planean parte hartuko du. Jarrera epela bada, edo euskararekiko sinpatikoak badira, gure lana da horiengan eragitea.

**Zein da orokorrean euskararen egoera lan munduan??**

Egoera hobetzen ari bada ere, oraindik euskararen egoera ez dago normalduta. Euskara planak ez dira lasterketa laburrak, maratoiak baizik. Euskararen normalizaziorako lan eremua estrategikoa da eta ahaleginak egin behar ditugu, gutxika bada ere, etengabe aurrera egiteko.

---

**etxeko leihotik**



Ubane Madera > arrasate@goiena.com

## Krisiari aurre egiten, beti betikoen kontura

Esan zuten agintariek Osakidetzaren zerbitzua berrantolatu beharra zutela, krisiari aurre egiteko. Esan zuten, baita ere, horrek ez zuela zerbitzuaren kalitatean eraginik izango. Bada, lagun batek asteon kontatu didana entzundakoak zalantza handiak sortu dizkit.

Batetik, haren aitak azaleko gaixotasun kronikoa du, eta urtetan dabil medikuarekin tratamendutan. Bada, asteon medikuak alta eman gura izan dio, urtebete osorako; harik eta gizonezkoa behin eta berriro tematu eta azaleko zauriak erakutsi zizkion arte. Urrian bueltatzeko esan zion medikuak berehala.

Kontatu dit lagun horrek, baita ere, 94 urteko amama duela, eta hari ere urtebeterako alta eman diotela, nahiz eta hark ere gaixotasun kronikoak izan, adin horrekin, zeresanik ez, berehala larri daitezkeenak. Harendako, baina, ez da egon atzera bueltarik. Amamak medikuari esan omen zion: "Zerutik etorriko naiz zuregana?".

> **"Zerutik etorriko naiz zuregana'? esan dio 94 urteko amamak medikuari"**

Bukatzeko, badauka nire lagunak, baita ere, berrogeitaka urteko lehengusua, infartua izandakoa. Orain arte jarraipen zorrotza egin izan diote. Bada, haren kasuan behin betiko alta eman diotela kontatu dit. Hori bai, zera ere esanda: "Zerbait gertatzen bazaizu, etorri trankil, e?".

Esandakoa, halako zerbitzuek, niri, behintzat, zalantza handiak sortzen dizkidate.

**> Pribatizazioa**

**Inguruan geroago eta lagun gehiagori entzuten diet azterketa medikuak egiteko edo beste barik, osasunaren gaineko kezka dutenean gurago dutela mediku pribatura jotzea, zerbitzua hobea eta seguruagoa delako**

**> Pentsio sistema**

**Osasun sistema aldatzeko pausoak ematen hasi dira, eta ostean etorriko dira pentsio sistema aldatzekoak; noizko bada finantza sistemaren benetako aldaketa? Horixe da, azken batean, sistema ekonomikoaren funtsa**

---

KIROLA > IKERKUNTZA ETA GARAPENA

## Inesport: kirol industriaren teknologia plataforma

Kirol industriaren baitan elkarlana bultzatzea du helburu Inesportek

E.M. > BERGARA

Inesport, Espainiako Kirol Industriaren Teknologi Plataforma aurkeztu zuten egubakoitzean Garaia Berrikuntza Gunean. Kirol industriaren baitan elkarlana bultzatzea du helburu Inesportek ikuspegi bateratu baten inguruan, nazio kirol industriaren garapenaren xedearekin. Nahiz eta egubakoitzean Garaian ez izan, Esteban Uribesalgo Astoreko gerentea batzorde exekutiboko kidea da; Dani Martinez Orbeako berrikuntza zuzendaria da plataformako zuzendaria.

Besteak beste, Patxi Mutiloa Jaurlaritzako kirol zuzendari eta Julio Fuertes Diputazioko kirol departamentuko ordezkaria izan ziren egubakoitzean Garaian. Valentziako Biomekanika Institutua eta Bordeleko Unibertsitatea ere egon ziren ordezkatuta. 60 lagun inguru batu ziren.

# Datuek dena diote.

**GOIENKARIA**
> 30.000 lagunek irakurtzen dute astero Debagoienean, papereko bigarren irakurriena baino 10.000 irakurle gehiagok.*
> Goienkariak 34.000 irakurle ditu Gipuzkoan.

**GOIENA TELEBISTA**
> 8.000 lagunek ikusten dute egunero Debagoienean, iaz baino 2.000 lagun gehiagok.*

**GOIENA.NET**
> 2010eko lehen lau hilabeteetan 218.280 bisita izan ditu; iaz baino 67.077 bisita gehiago denbora-tarte berean. **

# Eta guk gauza bakarra: eskerrik asko.

*CIESek 2010eko lehen lau hilekoan egindako neurketa. ** Google Analytics-en bidez egindako neurketa.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**EKONOMIA** > SINDIKATUKO DELEGATUEN BATZARRA ARRASATEN

# UGTko Damaso Casadok deialdia egin du irailaren 29ko grebarako

Sindikatuko delegatuen batzarra egin zuten egubakoitz goizean, eta ostean, sindikatuen bateratzearen garrantziaz jardun zuen idazkari nagusiak

**A.EZKIBEL / M.BITERI** > ARRASATE
UGT-Euskadiko idazkari nagusi Damaso Casado Arrasaten izan zen joan den egubakoitz goizean, irailaren 29rako Espainian deituta dagoen greba deialdiaren berri emateko. Sindikatuko delegatuen batzarra egin zuten eta bertan azpimarratu zuten beharrezkoa dela sindikatuen bateratzea langileen egoerari aurre egin ahal izateko.

Damasok dei egin zien langileei irailaren 29an kalera irten daitezen. Horren harira, nabarmendu zuen langileek "kontzienteˮ izan behar dutela bizi duten egoeraz. Horren esanetan, "dagoeneko soldata jaitsiera izan dute. Orain, enpresa pribatuetan arazoak daude... Onartu berri duten dekretu berriaren arabera pentsioak jaitsiko omen dituzte".



Damaso Casado, egubakoitzean. ARANTZAZU EZKIBEL

**POLITIKOEI DEIA**
Bestalde, sindikatuko idazkari nagusiak politikoei mezua bidali zien. Hain justu ere, ezkertiarrak diren politikoek ez luketela gobernuaren proposamena onartu beharko. Zera adierazi zuen Casadok: "Gura duguna da partidu politiko guztiei dei egitea. Izan ere, politikoak dira lege horiek egiten dituztenak. Gobernuak proposamenak egiten ditu, baina parlamentuan onartu behar dira gero. Eta, oraingoz, parlamentuak egin duena da gobernuak aurkeztutako bi lege proposamenak onartu".

UGTk ez zuen bat egin ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, Hiru eta CCOOk ekainaren 29ean egin zuten greba orokorrarekin. Idazkari nagusiarendako garrantzitsuagoa da Espainian "indarrak batu" eta irailaren 29an ateratzea.

**TURISMOA**

## Hamaikabat Lopezen turismo kanpainaren kontra

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Foru Aldundiko Turismo zuzendari Ernesto Murgiondok Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen turismo kanpainaren kontrako hitzak esan ditu. "*I need Spain* kanpainarekin espainiartu egin nahi gaituzte", esan du. "Oso kaltegarria da leloa aldatzea. Orain arte, ondo hitzartutako kanpainak erabili ditugu atzerriko turistak erakartzeko, eta emaitzak ikustea besterik ez dago. Oso onak izan dira", gaineratu du Murgiondo oñatiarrak.

**EUSKALTEL ETA 'SPAIN'**
Patxi Lopezen gobernuak hartutako beste zenbait erabaki erezalantzan jarri ditu. "Euskaltel txirrindulari taldearen elastikoetan *Spain* hitza jartzeko agindu zuten" esan du. Euskadik nazioartean bere marka propioa izan duela gogoratu du, baita "Rosa Diezen garaian ere", gaineratu du.



Esklerosi anizkoitzaren aurka busti ziren atzo. JULIO CALLEJA

**OSASUNA** > GAIXOTASUNAK

## 'Busti zaitez' kanpaina egin zuten atzo, Arrasaten

Esklerosi anizkoitza dutenak laguntzeko dirua jasotzen eta kamisetak saltzen ibili ziren

**M.B.** > ARRASATE
Pozik topatu genituen atzo, domeka, ADEMGI elkartekoak, *Busti zaitez* kanpainaren harira. Esklerosi anizkoitzaren aurkako eguna egin zuten Arrasaten, eta eguraldiak larregi lagundu ez bazuen ere, Musakolako kiroldegiko kanpoaldean jarritako mahaira jende dezente gerturatu zen. Gaitzaren gaineko informazioa banatzeaz gain, dirua ere batzen ibili ziren. Jasotakoa zenbatu barik bazuten ere, 50 euroko billeteren bat zegoela nabarmendu zuten, baita 10 eta 5 eurokoak ere. Kamiseten salmenta ere "nahiko ondo" joan zela aipatu zuten.

Igerilekuan bustitzeko deialdiak, berriz, ez zuen horren harrera ona izan. Antolatzaileek horren gaineko informazio faltaz hitz egin zuten eta datorren urtean, kiroldegiko sarreran elkarteko ordezkari bat jartzearen garrantzia azpimarratu zuten, informazioa banatzeko.

**JENDARTEA** > EKITALDIA

## Joxepa Arregiren errautsak zabaldu zituzten Zabalaundin

Ehun lagun baino gehiago elkartu ziren eguerdi partean Anbotosten egindako ekitaldi hunkigarrian

**M.B.** > ARAMAIO
Jesus Mari Zabarte *Garratz* euskal preso politikoaren ama eta Etxerat elkarteko ohorezko lehendakari Joxepa Arregi arrasatearraren errautsak aireratu zituzten atzo, domeka, Anbotosten.

Hitzordua 09:00etan jarrita zegoen, Arrasaten. Batzuk autoz joan ziren Aramaioko Etxaguen auzoraino eta handik oinez gora, Zabalaundi inguruneraino. Beste batzuek, bitartean, nahiago izan zuten Arrasate eta ekitaldia egin zen tokia arteko ibilbidea menditik zehar oinez egitea; eta lur orotako ibilgailuan igotakoak ere izan ziren.




Atzo aireratu zituzten Arregiren errautsak. XABIER ZUBIZARRETA

**EKITALDI HUNKIGARRIA**
Modu batean edo bestean, 11:30ean, 100 lagunetik gora elkartu ziren Zabalaundin. Arregiren omenez egindako ekitaldia xumea baina hunkigarria izan zen. Bost lagunek aurreskua dantzatu ostean, *Garratz* semeak idatzitako gutuna irakurri zuten eta horrekin amaitzean, Amaia Gabilondok egindako olerkia entzuteko aukera izan zuten han bildutakoek.

Horretaz gain, maiatzaren 26an Arregiren omenaldian Jon Maia bertsolariak botatako bi bertso abestu zituzten, eta jarraian, Etxerateko ohorezko lehendakaria izandakoaren errautsak aireratu zituzten. Ekitaldia Arregik horrenbeste aldiz abestu zuen *Eusko Gudariak* kantuarekin amaitu zen.

**91 URTE**
Arregi Arrasaten hil zen, maiatzaren 24an, 91 urte zituela. Handik bi egunetara horren aldeko hileta elizkizuna eta lehen ekitaldia egin zuten. Semeak ez zuen horretan egoterik izan.

Transition mugimendua gogoeta batetik jaio zen, Irlandako unibertsitate baten, eta Irlandako, Ingalaterrako, Eskoziako eta beste leku batzuetako herri askotan hedatu da; tartean, Ingalaterrako Totnes herrian. Debagoienean izan da horko kide Ben Brangwyn, Transition zer den azaltzen: klima aldaketak eta energiaren krisiak bultzatutako berpizkunde bat.

**Ben Brangwyn** > Totnesko Transition mugimenduko kidea

# "Klima eta energia krisia norabide onean goazen hausnartzeko aukera da"

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA

**Totnes Transition Town delakoa –trantsizio-herria– da. Mugimendu horren berri emateko etorri da taldetxo bat, tartean Ben Brangwyn, Bagarak gonbidatuta. Bere hitzetan, "gizarteak eta norbanakoak gauza batzuk galtzen ditugu energia eta klima krisiarekin, baina galduta geneuzkan beste batzuk berreskuratzen ditugu".**



Ben Brangwyn ferryz eta bizikletaz etorri da Debagoienera; argazkian, bere bizikletarekin. LEIRE KORTABARRIA

**Zer da Transition?**

Oinarrian dauka gizarteak ulertzea energia, klima eta ekonomia krisi potentzialak, eta etorkizuna euren eskuetan hartzea, gizartea berriz diseinatzea presio horiei aurre egiteko.

Era berean, Transition mugimendua da denok bat egiteko eta energia aldetik eragingarriagoa eta $CO_2$-rekiko mendekotasun txikiagoa duen bizimodu batera pasatzeko aukera. Energia-iturri merkeak eta ugariak izan ditugun epe horretan galdu egin genituen bizimodu horiek.

**Erresilientzia berba da zuen hitz-gako bat, ezta?**

Bai. Erresilientzia da gizabanakoak edo gizarteak duen gaitasuna, kanpotik datozen kolpeak jaso arren, ondo funtzionatzen jarraitzeko. Klimaren, energiaren eta ekonomiaren azterketa batek erakusten digu kolpe horiek badatozela.

**Zuek esaten duzue krisi bikoitz hori aukera bat dela.**

Nire iritziz, klima aldaketak arazo batzuetaz konturarazi gaitu. Arazo horiek lehendik zetozen, eta guztiz jasangaitzak ziren janari, ekonomia eta garraio sistema batzuetan bizi izatearen ondorio dira. Batik bat mendebaldeko ekonomia garatu den moduaren adierazgarri da hori dena; gero eta gehiago haztean eta Lurretik gero eta gehiago ateratzean oinarritzen den sistema.

Hortaz, geratzeko eta hausnarketa egiteko aukera bat da krisia; norabide zuzenean goazen pentsatzeko. Argi ikusiko dugu bide hori okerra dela, eta gure buruari galdetu diezaiokegu zer egin dezakegun horren partez.

**Ze eragin dauka Transition mugimenduak Totnesko herritarren eguneroko bizitzan?**

Totnesen, talde txikietan egiten dugu lan, eta funtsezko arloak lantzen ditugu: elikadura, ekonomia, hezkuntza… Talde bakoitzak galdera bat egiten dio bere buruari: zelan berrantolatu dezakegu hau erresilientzia sortzeko? Talde bakoitzak proiektuak sortzen ditu. Adibidez, ekonomia taldeak herriko moneta bat sortu zuen, Totnesko libera delakoa, herriko 75 bat negoziotan erabil dezakeguna. Tokiko ekonomia indartzeko bidean pauso txiki bat da.

Beste proiektu batzuk janariaren eta lurra lantzearen ingurukoak dira; lurrik ez duten gazteak eta lurra lantzeko nagusiegiak diren lurjabeak batzen ditu. Beste ondorio batzuk izan ditu horrek: zaharrak eta gazteak batera jesartzen dira eta jakinduria eta informazioa konpartitzen dute, eta Totnesen galduta zeuden harremanak eta loturak berreskuratu ditugu.

Energiaren gaineko proiektuak ere badauzkagu; Totnes ibai ondoan eraikita dago, eta proiektu horiek ikertzen dute ura zelan erabili energia sortzeko.

Horrek denak ez ditu nazio sistemak ordezkatuko; baina herriari kontrol handiagoa emango dio, eta erresilientzia sortzen lagunduko dio. Hala, nazio sistemek huts egiten badute, herriak aukera handiagoak izango ditu onik irteteko.

KONTURATZEA

**"Lehendik zetozen arazo batzuetaz konturatu gara, sistema jasangaitz baten ondorioak"**

ERRESILIENTZIA

**"Erresilientzia hitz gakoa da: kolpeak jasan eta jarraitzeko gaitasuna definitzen du"**

ABANTAILAK

**"Euskal Herriak etorkizunerako abantaila batzuk ditu: nortasuna, elkarlana..."**

**Euskal Herria gertatuta ikusten duzu etorkizunerako?**

Euskal Herriak abantaila batzuk ditu. Ikusi dudanaren arabera, nortasun zentzu handia duzue, eta hori oso garrantzitsua dela uste dut; historikoki zuen kohesioari eutsi diozue. Bestalde, elkarlan etika daukazue, eta langilea oso inplikatuta dago bere lanarekin, produzitzen duenarekin, zelan produzitzen duen… Eta elikadura sistema indartsua duzue; jende askok dauka bere ortua, eta jendeak lurrarekiko lotura dauka.

Desabantaila batzuk ere badituzue: kooperatiba-ekonomia sistema hazkunde ekonomikoan oinarrituta dago. Bestalde, industria asko petrolioarekiko mendekotasuna dute; adibidez, automobil-industria. Baina familia bakoitzak bi automobil ditueneko garaia bukatzera doa. Euskal Herriaren erronka energiaren erronka da, nire iritziz. Eta nik uste dut aukera izugarria izan daitekeela. Beharbada hemendik 10 urtera, industriak zerbait guztiz berria egiten egon daitezke.

**Gizartea dago Transition-en oinarrian; eta norbanakoa, zer?**

Energia murrizketak eta klima aldaketak dakarten egoera oso zaila izan daiteke jende askorendako. Konturatzen direnean aldaketa handiak datozela, haserre edo beldur handia izan dezakete. Norbanakoarendako bidaia emozional latza da hori. Beraz, gure barruan trantsizioa egin behar dugu. Orduan, gizartearengana eta lurrera bueltatzen gara. Jendeak zenbait gauza galtzen ditu, baina, era berean, galduta geneuzkan gauzak berreskuratu egiten ditugu. Bidaia pertsonala da.

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN **VI. GOIENA ARGAZKI LEHIAKETA**

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

## ...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***



GARIKOITZ ITURBE



ANE JAUREGI



MARTIN URIARTE ASKASIBAR

**Har ezazu parte!**

## Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztailean eta irailaren 17a bitartean.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Ibarra 6 (lehen, Arcelorren bulegoak), 20570. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua edo Basabe poligonoa E-O-5, 20550 Aretxabaleta
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-en sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute.
- Epaimahaiak argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAk aukeraketa egingo luke egokien irizten dituen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## Sariak



### 1. saria

**Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa. Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.
- 10 megapixel.
- Canon 18-55 mm f3.5-5.6 EF-S objektiboa.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View sistemarekin
- Flash eta guzti.




**2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.




**3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:

kb photoestudio www.kbphotoestudio.com
Canon
ARRASATE BIDAIAK
GURE AMETSA JATETXEA

Goienkaria DEBAGOIENEKO ASTEKARIA
ASTELEHENEKO Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa
Goiena.net
Goitb Goiena Telebista
FM 107.7 ARRASATE IRRATIA

**kale inkesta**

# Udan baduzu ohiturarik elikadura aldatzeko? gehiago zaintzen zara?



**Oscar Anduaga**
Langilea
Arrasate

Ez pentsa, urtean zehar berdintsu jaten dugu. Bistakoa da gaur egiten duen beroarekin ez zarela babak jaten hasiko, oso astuna izango litzatekeelako. Eta ez, udan gaudelako ez naiz gehiago zaintzen.



**Juan Carlos Nieto**
Langilea
Arrasate

Esango nuke oinarrizko jakiak ez ditugula aldatzen, urte osoan zehar berdin jaten dugula. Baina neguan baino askoz ere entsalada gehiago jaten ditugu, hori bai, neurri handiak alabek horixe eskatzen digutelako.



**Maria Pilar Rodriguez**
Langilea
Arrasate

Normalean entsaladak, entsaladillak... jaten ditugu gehiago udan, azken batean, janari freskoak errazago jaten dira bero hauekin. Neguan, berriz, lapikokoak prestatzen ditugu gehiago: lentejak, garbantzuak...



**Florencio Gonzalez**
Erretiratua
Arrasate

Udan bero egiten du, eta entsaladak eta horrelakoak gusturago jaten ditut. Bestalde, urte osoan zehar zaintzen naiz: paseatu, kiroldegira joan bizikletan ibiltzera... Nagusiak gehiago zaindu behar gara!

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI

**> Arropa islatzaileak eramateko kartelekin, ados**

GOIENKARIAko bulegoan mezu bat jaso dugu ostiralean bertan argitaratutakoaren albistearen gainean, Olateko bidean autoek oinezkorik ez harrapatzeko arropa islatzaileak eramateko jarriko dituzten kartelen harira: "Sustoren bat edo beste egon da, eta normalean istripuak gertatu ostean hartzen dira neurriak", adierazi digu irakurleak..

ARETXABALETA

**> Autoan egindako lapurretekin nazkatuta**

Aretxabaletan lan egiten duen debagoiendar baten esanetan, dagoeneko nazkatuta dago lapurretez. Autoan batera eta bestera ibiltzen da lanean, eta bertan izaten ditu lan erremintak. Bada, Aretxabaletan birritan lapurtu diote auto barruan, laneko erremintak eta guzti. Badirudi ibarrean hareagotzen dabilen gertaera dela, Arrasateko udaltzain buruak ale honetan bertan azaltzen duen moduan. Autobidearekin erraz etortzen omen dira lapurrak gurera.

ARRASATE

**> Arbolapetako garaje sarrera ez da txiza egiteko lekua**

Lehenago ere jaso izan dugu kexa hau: "San Juanetan nazkagarri izan genuen Arbolapetan dagoen garajeko sarrera. Jendeak zapaturo egiten du bertan txiza, eta domekatan sekulako usaia egoten da. Atea ere behin baino gehiagotan aldatu behar izan dugu".

**usteak uste**

**Txomin Madina**

# Besterik egon badagoelako

Akaso atzoko partiduaren osteko ospakizun eta negarmalkoez hitz egitea tokatuko litzaidake zutabe honetan. Edo olagarro sorginduei buruz. Hain gorrotatua eta era berean hain maitatua den Sara Carbonero izan zitekeen tarte honen protagonista, baita *vuvuzelen* burrunba gogaikarria ere.

Hitz xume hauek baina, goizero goizero eskolara joan aurretik igerilekuan entrenatzen duten neska-mutikoentzat dira. Astebururtan maindireen tentazioari uko egin eta mendira joaten direnentzat. Araotzeko paretan gora eta behera ibiltzen diren eskalatzaileentzat, emakume pilotarientzat edo aurreko txanda guztiak hartuta daudelako azken orduan entrenatzen diren saskibaloi jokalarientzat.

Horiek guztiak ere kirolariak direlako. Hobeto esanda, horiek guztiak direlako kirola.

**zorroztailea**



**Larraitz Ugarte**

# Espainiar Nazio gorria

"Konstituzioak ez du Espainia ez den beste naziorik onartzen", argi uzten du epaiak –850 orri baino gehiagokoak–, hain zuzen ere, ebazpen horren aurrean protesta egiteko deitu duten kale-agerraldia egin bezperan kaleratu den ebazpenak".

La Razón > 2010-07-09




Festaren gorria izan ohi da urtero egunotan nagusitzen den kolorea. Baina aurten San Ferminen gorri alaiari espainiar selekzioaren gorria gehitu behar zaio, poro guztietatik arnastera behartzen gaituzten gorria. Gora Euskal Herria askatuta aldarrikatzea nazionalista kutsu negatibokoa izatea ei da baina "Que viva Españaaa." Cibelesen inguruan abestea ebento deportiboaren xarma baino ez, hor nazionalistatik ez omen dago ezer, negatibotik are gutxiago.

Eskerrak Espainiar Auzitegi Konstituzionala asuntoa argitzera etorri zaigun eta gogora ekarri digun frankismoaren biktimen odol gorriaren gainean egindako konstituzio testu horrek nazio bakarra Espainiar Nazioa (hau maiuskulekin) dela dioela. Eta Konstituzioa ez denez erabaki politiko batzuen emaitza juridikoa, Bibliaren tankera duenez, hori ezin da inolaz ere aldatu, egia absolutu, dibino eta bakarra da. Euskaldunok edo katalanok beste zeozer izan nahi badugu ezin da, konstituzioaren testuak ez baitu ahalbidetzen. Kitto.

**"Espainian hamabi epailek herri oso baten borondatea menperatu dezakete 1978an ezarritako testu ziztrin bat eskutan. Hori bai arma!"**

Hor amaitzen da Herri Katalanen gehiengoaren erabaki ahalmena. Gehiengoak Estatut-a aldatu nahi duela erabaki duela? Ez da posible: Espainian 12 epailek herri oso baten borondatea menperatu dezakete 1978an ezarritako testu ziztrin bat eskutan. Hori bai arma!

Dena den, zer nahi duzue esatea, ni poztu egin naiz, lagunok. Orain Auzitegi Konstituzionalak zoritxarrez arrazoia eman digu urteetan abertzale askok abertzale epel eta erosoen aurrean defendatu dugunari: bide juridikoetatik ez dago herri honen borondatea zein den adierazteko modurik eta are gutxiago herri honek erabakitzen duena errespetatu eta gauzatzekorik.

Ezin da egungo markotik aurrera egin eta hori defendatu dutenek badute diskurtsoa aldatzeko tenorea. Eta diskurtsoa aldatzearekin batera bada garaia bide juridikoetan ezkutatzeari utzi eta abertzaleak garenok herri honentzat nazio aitortza eskuratu eta Autodeterminazioa gauzatzeko pausu sendoak eta ausartak emateko. Ea lezioa ikasi dugun.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Mirian Biteri, Txomin Madina, Edu Mendibil **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati> 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



**> ARRASATE**
Arrasateko autobus zerbitzua emateko ia bikoiztu egin da Udalak egin beharreko gastua > 14




**> OÑATI**
Zerbitzu arloko negozioek Udalaren laguntza jasoko dute aurten ere abuztuan zabaltzearren > 18



**> ESKORIATZA**
Zarimutz, Mazmela eta Apotzagako bideak konpontzen dabiltza egunotan > 19



Argazkian, Bedoña Batu elkarteko kideak auzoko argazki zahar bat erakusten, egubakoitzean Bedoñan. JULIO CALLEJA

**ARRASATE** > JENDARTEA

# Bedoña Batu: baserri auzoaren nortasuna berreskuratzeko lanean

**AUZOAN**
Bedoñaren garapen eta trinkotzearekin zerikusia duten gaiak landu nahi dituzte

**ELKARTEA**
2008ko otsailaren 8an eratu zuten elkartea; lau lagun dira zuzendaritza taldean

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Auzoko jaietan izan ezik, elkartzeko aukera edo ohitura gutxi zutela ohartu eta elkarte bat sortzeari ekin zioten Bedoñako auzotarrek. Horrela, 2008ko otsailaren 8an Bedoña Batu elkartea eratu zuten. Ordutik, auzotarrei zuzendutako hainbat ekintza antolatu dituzte. Izan ere, Bedoñako garapenean partaide esanguratsua izatea da elkartearen helburuetako bat: "Auzoaren garapen eta trinkotzearekin zerikusia duten gaiak landu nahi ditugu, auzotarron arteko komunikazioa hobetuz, baserri auzoaren nortasuna berreskuratuz, edo haur eta gazteei euskararen eta bestelako kultura balioen transmisioa bermatuz", diote. Eta halaxe jaso dute elkartearen estatutuetan.

Lau lagun dira kudeaketa lanetan: Dorleta Gorosabel da presidentea, Maite Aginagalde presidenteordea, Nerea Arexolaleiba idazkaria eta Goiatz Zabala diruzaina. Finantziazioari dagokionez, dirulaguntzak nahikoa ez direnez, antolatzen dituztenhainbat ekintza ordaintzekoak dira, nahiz eta elkarteak kopuru horren zati bat bere gain hartzen duen.

Orain arte egindako ibilbidearen balorazio positiboa egiten dute; "ekintza batzuek partaidetza handiagoa izan dute, baina auzotarrengandik jasotako erantzuna pozik egoteko modukoa da. Umeen kasuan, esaterako, elkar ezagutu eta harreman berriak egiteko aukera izan dute. Gure hasierako erronkei erantzuten hasiak gara oraindik".

**AUZOTARREN INPLIKAZIOA**

Parte hartzeari eustea eta jende berriaren inplikazioa lortzea dira hurrengo erronkak. Lehen ere galdetegi bat pasatu zuten auzotarren artean, haien zaletasun eta interesen araberako ekintzak antolatzeko. Auzotarren partaidetza errazteko bideak jarri nahi dituzte. Elkartearen sendotzea hortik etorriko da. Eta horretan dihardute Bedoña aldean.

## Tai-Chi ikastaroarekin hasi eta ordutik hamaika ekintza antolatu ditu elkarteak

Azken bi urteetan ekintza dezente antolatu dituzte Bedoña Batu elkartekoek. Tai-Chi ikastaroa antolatzen eta auzoko umeekin Santa Ageda eguna ospatzen hasi ziren eta ondotik ingeles ikastaroa, eskulanak, euskal dantzak, sukaldaritza begetarianoa, sendabelarren gaineko ikastaroa, ardo dastatzea eta beste hainbat etorri dira. "Dedikazioa eta lana eskatzen du elkarteko ekintzak aurrera ateratzeak". Hitzaldi eta erakusketak ere antolatu dituzte. Maiatzean, Miren Arzak osteopatak emozioaren eta osasunaren gainean jardun zuen Bedoñan eta 20 lagun batu ziren orduan. Ospakizunetan ere ez dute hutsik egiten eta hainbat irteera ere egin dituzte, sagardotegira edo Iparraldera, maskaradak ezagutzera. Elkartearen pista ez galtzeko iazko azarotik duten webgunera jotzea onena: *www.batuelkartea.com*

**BERGARA** > SANKRISTOBALAK

# Txoferren eguna ospatzeko, guztiak autoa bedeinkatzera



Juan Kruz Mendizabalek ermita ondoan batutakoak bedeinkatu zituen zapatu goizean. MIRIAN BITERI

Bergarako Aldai Egia auzoko jaiak ospatu zituzten egubakoitzetik domekara bitartean

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Asteburuan Bergarako Aldai Egiako jaiak izan dira eta urteroko ohiturari jarraituz, ibilgailuak bedeinkatzeko aprobetxatu zuten zapatuan eta domekan auzotarrek nahiz ingurutik joandakoek. Festa egubakoitzean hasi bazen ere, egun potoloena San Kristobal eguna izan zen; txoferren eguna, hain justu ere. Juan Kruz Mendizabal abadeak ermita barruan meza egin ostean, kanpora irten zen eta inguruko ibilgailuak eta herritarrak bedeinkatu zituen. Ez zuen txosnako txorizo pintxoak probatzerik izan, jarraian alde egin behar zuen-eta Bergarara; Labegaraietan ezkongaiak zituen zain.

**BALORAZIO POSITIBOA**

Festa giroan jarraitu zuten zapatuan auzotarrek, eta atzo, ostera ere autoak bedeinkatzeko aukera egon zen. Aldai Egiako auzo alkate Alex Alberdi pozik zegoen atzo, dena ondo irten delako.

HERRITARREN IRITZIAK



**Alex Alberdi**
Bergararra

"San Kristobal egunean, auto bedeinkatzeko ohitura daukat beti. Ohituragatik egiten dut, besterik ez. Normalean San Kristobal egunean eta hurrengo domekan autoari loreak jartzen dizkiot, baina aurten, ez dut astirik eduki eta hortaz, lore barik dago".



**Felix Iñiguez de Heredia**
Bergararra

"Bergarakoa naiz eta lau urte daramatzat Aldai Egiara igotzen, lagun batekin. Autoz etortzen gara, lorez apaindu-ta eta guzti. Lehenengo urtean autoa bedeinkatu nuen, gainerakoetan ez; bedeinkapen batekin nahikoa dela iruditzen zait. Oso giro ona dago Sankristobaletan auzoan".



**Angel Loidi**
Bergararra

"Auzoan jaiotakoa naiz, gaur egun Aldai Egian bizi ez banaiz ere. Urtero etortzen naiz Sankristobaletan, andrea ere hemengoa da eta berak agintzen duenez, urtero gatoz. Autoan etortzen gara, lorekin. Ohitura kontua da, autoari loretxoak jarri eta auzoa bisitatzea ".

**OÑATI** > TRIANAKO JAIAK

# Aitor Mendi eta Joxean Urmeneta, musean onenak

Luhartz taldearen eskutik egubakoitzean izandako erromerian gazte askok dantzatu zuten

**M.B.** > OÑATI

Ezin hobeto ibili dira Oñatiko Trianako auzoko jaietan. Egubakoitzean hasi ziren horiek, astotrastoren jaitsierarekin eta txorimaloen kalejirarekin. Giro ederra zegoen ordu horietan, eta baita gauean ere. Luhartz taldearen eskutik izandako erromerian, esaterako, gazte asko ibili ziren dantzan.

Zapatuan, 30. mus txapelketa jokatu zuten eta Aitor Mendi eta Joxean Urmeneta irten ziren garaile; eta domekan, batzordearen eguna ospatu zuten.



Astotrastoren jaitsiera, egubakoitzean. JULIO CALLEJA

**ANTZUOLA** > ERRETIRATUEN BAZKARIA

# Erretiratuen bazkari animatua, herriko jaien aperitiboa

140 antzuolar inguruk gozatu zuten aurten herritarrek prestatu duten menuaz. Bazkalostean, dantzaldia izan zuten gura izan zutenek.

**TXOMIN MADINA** > ANTZUOLA

Menu oparoa izan zuten atzo erretiratuen bazkarira joan ziren 140 antzuolarrek; besteak beste, bakailaoa bizkaitar erara eta solomoa txanpinoiekin.

Hogei herritar inguru ibili ziren dena prestatzen: mahaiak jarri, zerbitzatu eta baita sukaldari lanetan ibili ere. Eta erretiratuek eskertu zuten, gustura asko jan zituzten-eta platerean jarritako guztiak. Gustura asko, umore onean eta kontukontari.

**JAIETARAKO PRESTATZEN**

Bazkalostean, dantzaldia izan zuten Miguel Guridi musikari oñatiarrarekin. Erretiratuak animatu ziren gorputza mugitzera, eguenean hasiko diren jaietarako entrenatu guran akaso.


Jan, edan eta berba egin, ederki ibili ziren atzo erretiratuak JULIO CALLEJA

## Antzuolako jaiak, eguena

**12.00** Jaien hasiera: alkatearen hitzak, umeen bertsoak...
**12:30** Zirko kalejira udalekuetako umeekin.
**14:00** Umeen herri bazkaria eskolako terrazapean.
**16:00** Ondarreko igerilekuak herriko plazan.
**18:00** Txistulari, trikitilari eta buruhaundiekin kalejira
**19:00** Meza parrokiako aretoan eta salbea abesbatzarekin.
**19:30** Oinaringo umeekin ikurrin dantza; Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea, udalbatzaren aurreskua.
**22:00** Izer, Alabier eta Letxurdiorekin erromeria.
**24:00** Hontzaren jaitsiera kanpandorretik udaletxera.

ERRETIRATUEK ESANAK


**Marcelino Aristegi**

"Urtero etortzeko ohitura dut erretiratuen bazkarira, eta aurten oso giro polita dago. Menua ederra izan da, sukaldari onak ditugu herrian. Dantza? Ikusiko dugu gero gogorik dugun..."


**Karmele San Sebastian**

"Eguna oso ondo joan da, umore onean. Gaurko egunean medikuak esandakoei muzin egiten diegu, ezin da dena zuzen-zuzen eraman! Eta orain dantza, gorputza jaietara ohitzen joan dadin".


**Maria Larrañaga**

"Jana oso ona zegoen, aspaldiko onena! Nabari da herritarrek prestatu eta etxeko ukitua eman diotela; bihar dietan jarri beharko gara. Dantza ez, baina mingaina ederto astinduko dugu gero".


Amua ondo jartzea, egin beharreko lehen lana.


Kanabera botatakoan, pazientzia izatea da garrantzitsuena.


Aurreko lanak ondo egiteak, beti dakar saria. ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA

**OÑATI** > ARRANTZA TXAPELKETA

# Arrantzale gaztetxoek maila ona dutela erakutsi zuten

**TXOMIN MADINA** > OÑATI

Zapatu goizean egin zen Torreauzon, Arantzazu erreka igarotzen den lekuan, dagoeneko klasikoa bihurtu den herri mailako arrantza txapelketa. 25 izan ziren denera parte-hartzaileak, gehienak ere gaztetxoak.

Antolatzaileek 150 amuarrain inguru askatu zituzten errekan txapelketa aurreko egunetan, eta arrantzaleek hiru arrain harrapatu behar zituzten; kilo gehien jaso zituena izan zen irabazlea. Antolatzaileen esanetan, parte-hartzaileek maila ona erakutsi zuten.

**ARRANTZALE PRESTUENAK**

Nagusietan Josu Lizarraldek irabazi zuen. Infantiletan, Andoni Guridi izan zen lehena eta Julen Kortabarria bigarrena. 11 urtez azpikoetan Hegoi Iñurrategik egin zuen lanik onena eta Malen Leibar izan zen bigarren.

Eguzkigraf, Koop. Elk.
30. urteurrena 1979-2009
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

EGUZKIGRAF inprimategia KOOP. E.
jai egitarauak
kartelak
gonbidapenak
tarjetak
aldizkariak
inpresoak
errekordatorioak
liburuxkak

**ZERBITZUAK** > URBANOAREN ZERBITZU BERRIA

# Arrasateko busa: luxuzko zerbitzu publikoa

Ia bikoiztu egingo da urbanoaren zerbitzua emateko Udalak egin beharko duen gastua

Eibarko urbanoan baino hiru bider bidaiari gehiago ibiltzen da Arrasateko urbanoan




Egubakoitz eguerdian askok erabiltzen du urbanoan, errekaduak egin eta etxera joateko; argazkian, Otalorako geltokia. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasateko autobus urbanoa eskualdeko eta inguruko autobus zerbitzu publikorik osoena izango da irailetik aurrera. Batetik, maiztasunarengatik: ordu erditik behin ibiliko da autobus bat herrian gora eta behera, goizetik gauera arte.

Bestetik, Arrasateko autobus urbanoan Lurraldebus txartela erabili ahal izango delako.

**AUTOBUS BERRIAK, NEGUAN**

Autobus berriak estreinatuko dituzte, gainera, zerbitzu berria emateko. Bost guztira, Mercedes markakoak eta oraingoak baino ekologikoagoak; besteak beste, autobus horiek oraingoen erdia kontsumituko dute.

Mikrobusak izango dira 12 jarlekurekin eta beste 12 lagun zutik joateko ahalmenarekin. Zailtasunak dituztenendako lekua ere izango dute. "Aurrekoak baino edukiera txikiagoa daukate, bikoizteak sortuko duen erabilera mailaren araberakoak", azaldu dute Udaleko Zerbitzu Sailetik.

Autobusok abendu inguruan ekarriko dituzte, orain fabrikazio prozesuan daudelako.

**GELTOKI BERRIAK**

Horrekin guztiarekin batera, geltoki berriak ere ezarriko dituzte: kiroldegian, Etxaluzen eta Garaian. Kendu egingo dute, berriz, Loramendiko (Eguzki dorreko) geltokia.

Autobus urbanoaren urteotako datuak hartu dituzte kontuan geraleku berriak ezartzeko. Eta baita ere herrian urbanizazio berriak sortu eta herritar horiei zerbitzua emateko beharra dagoela ikusi.

**LURRALDEBUS TXARTELA**

Xehetasun gehiagotan sartuta, Arrasateko urbanoa izango da, herri barruko urbanoen artean eta Donostialdeko hiri batzuetako urbanoak kenduta, Lurraldebus txartela izango duen bakarra. Horrek esan gura du, besteak beste, erabileraren araberako deskontuak izango dituela bidaiariendako, Gipuzkoako herri arteko autobusetan moduan.

**PREZIOAK ETA HOBARIAK GORA**

Hori horrela, prezioei dagokienez, bidaien "prezioa handitu egingo da, baina bonifikazioak ere handitu egingo dira", jakinarazi dute Zerbitzu Sailetik.

Hain justu, billete arrunta 1,35 euro kostako da. Baina, %40ko deskontua eskuratuko dute hilero 1 eta 40 bidaia artean egiten dituztenek (modu horretan, 0,72 euro kostako zaie txartela). 41 eta 70 arteko bidaia kopurua egiten dutenek, berriz, 0,36 euro ordainduko dute billetea. Eta 71 bidaia baino gehiago eginez gero, txartela da 0,12 euro.

Lurraldebus txartela ohiko lekuetan eskuratu ahal izango da: Correos, Olarteko tabako dendan…

**TALDEEN BONIFIKAZIOAK**

Azpimarratu behar da, baita ere, bonifikazioak izango dituztela hainbat taldek: 10 urtera arteko haurrek doan bidaiatuko dute, baina txartela behar dute. 10-24 urteko gazteek, 65 urtetik gorako nagusiek eta ezintasunen bat dutenek %20ko bonifikazioa jasoko dute txartela kargatzerakoan (txartelean sartutako euro bakoitzeko 20 zentimo). Eta oinarrizko errenta jasotzen dutenek edo bestelako laguntza osagarriak jasotzen dituztenek %100eko bonifikazioa izango dute.

**DIPUTAZIOAREKIN HITZARMENA**

Moises Altunak, Zerbitzu Saileko teknikari-buruak azpimarratu duen moduan, Arrasateko Udalak "ahalegin handia" egin behar du halako urbano zerbitzua emateko; kostuarengatik batetik: 487.000 euro kostako da eta orain arte 250.000 euro kostatzen zen. Eta bestetik, Lurraldebusen txartela erabili ahal izateko behar diren makina bereziak ipini behar dituztelako. Justu hori egiteko hitzarmena sinatuko dute Diputazioak eta Udalak. Uztailean bertan dira batzarra egitekoak.

**EROSKIRI ZERBITZUA**

Hori bai, Altunak azpimarratu du, baita ere, Arrasateko urbanoak bidaiari kopuru altua duela beste herri batzuekin konparatuta. Datua ere eman du: iaz 174.000 bidaiari izan zituen. Eibarren, adibidez, Arrasatek baino 5.000 bizilagun gehiago bizi arren, Arrasateko bidaiari kopuruaren herena ibiltzen da urbanoan. "Bere garaian ahalegin handia egin zen Eroski hipermerkatuari zerbitzua emateko. Horrek eman du bidaiari kopuru handia", aditzera eman du.

AUTOBUS BERRIAK

## Datorren urtean mikrobusak ibiliko dira

Leintz Garraioak enpresako Lidia San Martin ordezkariak emandako datuen arabera, bost autobus berri ekarriko dituzte Arrasatera, abendu inguruan, orain fabrikazio prozesuan daudelako. "Autobusak garestiak dira (150.000 euro inguru bakoitza), eta zerbitzu berria gure enpresari adjudikatu diotela jakin arte ezin izan ditugu eskatu behin betiko". Mikrobusak izango direla ere kontatu dio GOIENKARIAri, 12 jarlekurekin eta beste 12 lagun zutik joateko ahalmena dutenak. Horrez gainera, orain artekoak baino ekologikoagoak izango dira, gutxiago kontsumitzen dutelako.

DATUA

**174**

**MILA BIDAIARI**

Iaz 174.000 bidaiari ibili zen Arrasateko urbanoan; egunean, 590 bidaiari. Hor sartzen dira bi lineatako bidaiariak, Atxabalpeko zerbitzu berezia, Domu Santukoa eta Mugikortasun Astekoa.

---

Gaur egun umezaintza dagoen gunearen ondoko lursail publikoak erabiltzeko aukera izango dute

**ZERBITZUAK** > HEZKUNTZA

# Umezaintzari zerbitzua handitzeko aukera eman diote

**U.M.** > ARRASATE

Arizmendi ikastolak beharra dauka umezaintza zerbitzua, San Josepen ematen duena, handitzeko. Hori egiteko, San Josepen dagoen Intxaustiren pabiloi zaharra erosi zuen.

Udalak, baina, ez zion baimenik eman pabiloian obrarik egiteko, besteak beste, errekatik gertuegi dagoelako eta legeak ez duelako lagatzen halako lekuetan ezer eraikitzen. Horrela, Arizmendi ikastolak Udalari eskatu dio umezaintzaren ondoko lursail munizipala erabili ahal izatea, handitze obrak bertan egiteko. Eta hori da Arrasateko Udalak onartu duena.

Egueneko osokoan onartu zuten hori, PSE-EEren eta PPren kontrako botoekin. Bi alderdiok ez dute argi ikusten Arizmendiren behar hori, besteak beste, uste dutelako Arrasaten nahiko lokal badituela. Era berean, bi alderdiok proiektuaren txosten ekonomikoa ikusi gurako lukete.

> KIROLDEGIA

### Obren eragozpenak konpentsatzeko aukerak kiroldegian

Musakolako kiroldegiko barruko igerilekuko obrek eraginda, irailean, kanpoko igerilekua itxitakoan, ezin izango dute barrukoa zabaldu. Hori horrela, kiroldegiko arduradunek jakinarazi dute eskaintza bereziak egingo dizkietela abonatuei. Irailean bertan jakinaraziko dituzte eskaintza horiek.

**Aitzol Osa** > Udaltzainburua

# "Normalean lapurrak atzerritarrak dira, baina ezin da orokortu; azkenak euskaldunak ziren"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Arrasaten eman diren lapurreta kasuen ugaritzearen gainean berba egiteko egon gara Aitzol Osa (Ondarroa, 1973) Udaltzainburuarekin. Besteak beste, oporretara joateko gomendioak eman dizkigu.**



Aitzol Osa Udaltzainburua udaletxeko harreran, egueneko osoko bilkuraren ostean ateratako argazkian. JOKIN BEREZIARTUA

**Azkenaldian asko ugaritu dira lapurretak Arrasaten. Ba al dakizu erantzuten zergatik?**

Arrasatek sarrera eta irteera asko ditu, are gehiago autopista zabaldu zenetik. Hala, lapurrak 15 minututan Gasteizen egon daitezke, ordu erdian Bilbon eta ordubetean Donostian. Sarrera eta irteera ugari eta onak izateak modu zuzenean eragin du lapurreten ugaritzean. Autopista zabaldu aurretik susmoa genuen gerta zitekeela, eta hala izan da.

Finean, herritarrok mugitzeko ditugun erraztasun berberak dituzte lapurrek ere.

**Denetariko lapurretak eman dira. Zeintzuk dira ohikoenak? Eta herriko zein zonaldetan ematen dira lapurreta gehien?**

Autoetako aparailu elektrikoen lapurretak izan dira esanguratsuenak. Autoetan lapurtzea erraza da, ez du azpiegitura handirik behar. Gainera, garajeetan egiten direnean ezkutuan egin daitezke; lapurrak nolabaiteko lasaitasunarekin mugi daitezke. Edozelan ere, kalean aparkatuta dauden autoetan ere sartu izan dira. Bergaran, adibidez, industrialdeetan eman dira lapurreta gehienak.

Arrasateko zonaldeei dagokienez, azkenaldion San Andres eta Santa Marina auzoetan salaketa asko jaso ditugu. Hala ere, ez dira auzo horietan bakarrik ematen, herriko edozein puntutan izaten dira lapurretak.

**Zein da lapurraren profila?**

Oso zaila da susmagarriaren profila zehaztea. Normalean, atzerritarrak eta gazteak izaten dira. Baina oso arriskutsua da lapurrak naziotasun batekin lotzea, ez da komeni orokortzea. Gainera, zenbait sorpresa izaten dira; azken bi atxilotuak, esaterako, euskaldunak izan dira.

**"Urte hasieratik 400 salaketa izan dira, baina horrek ez du esan nahi 400 delitu egon direnik "**

**Lapurreten ugaritzearen gaineko daturik ematerik?**

Salaketa guztiak informatizatuta eramaten ditugu. Urtea hasi zenetik 400 salaketa inguru jaso ditugu. Horrek ez du esan nahi 400 lapurreta edota delitu direnik. Hemen gertatzen dena zera da: bizitza judizializatzen ari gara. Hau da, edozein arazo txiki dugunean derrigorrez salaketa jarri behar dugula dirudi, eta arazoa epaiketetara eraman.

Hori ekiditeko soluzio bat izan daiteke, ahal den heinean, Udaletik figura bat sortzea halako arazotxoei irtenbidea emateko. Bitartekari figura bat, hain zuzen. Barakaldon, adibidez, epaitegi bat sortu berri dute falta arinak bideratzen dituena. Garatu bidean dabilen ekimena da, eta hemen aplikatzen hasi daitekeen proiektua interesgarria dela deritzot.

**Herritar dezente kexu dira inoiz baino udaltzain gehiago izanda inoiz baino lapurreta gehiago eman direlako.**

Udaltzaingoa prebentzio lanetan dabil. Jendeak uste du autopatruila gehiagok lapurreta gutxiago esan gura duela. Baina lapurrak ez dira inozoak eta euren teknikak erabiltzen dituzte gu ekiditeko. Zaintzak egiten ditugu, eta lapurrek ere zaintzak egiten dituzte. Gaueko txandan ari den patruilak 100 kilometro egin ditzake gau berean herri barruan; eta lan horrek eman ditu emaitzak.

OPORRETARAKO GOMENDIOAK

## Etxean izanda ere barrutik itxi, giltzaz

Udaltzainburuak zenbait gomendio eman die arrasatearrei abuztuko oporretarako. Hala ere, azpimarratu gura izan du etxean geratu arren, lotara joaterakoan atea barrutik itxi eta giltza bertan uztea: "Badira etxean jendea egonda ere, barrura sartzen diren lapurrak eta horrek errespetu handia ematen digu. Ez da ezer kostatzen, eta inongo psikosirik sortu barik egin daiteke".

Kanpora goazenerako horra Osak eman dituen aholkuak: komeni da ez zabaltzea lau haizeetara oporretan goazela, are gutxiago datak zehaztuz. Gainera, ahal den neurrian, senitarteko batek etxea aireztatzea, argiak jartzea eta postontzia hustea ondo legokeela uste du Osak.



TXATXILIPURDI

## Bizikletan izerdia bota ostean, bainua Usakon

Txatxilipurdiren Udaixe ekimena aurrera doa. Joan den eguaztenean, esaterako, bizikleta ibilaldia egin zuten gaztetxoek. Eguraldi ona aprobetxatuz, bizikletan gogoz izerditu zuten. Eta izerdiaren ostean heldu zen saria: bainua Usakon. Ekintza arrakastatsua izan zen, 24 neska mutikok hartu zuten-eta parte. Bestalde, hona aste honetarako plana: gaur, mendi ibilaldia Besaide aldera Udalako igerilekuetan amaitzeko, etzi surf ikastaroa Zarautzen eta egubakoitz gauean mendira, izarrak ikusten lo hartzera.

> GAZTE INDEPENDENTISTAK

## Azpeitia eta Zaldibia arteko martxarako izenematea, zabalik

Gazte independentistek udarako hainbat ekintza antolatu dituzte. Zapatuan, esaterako, manifestazioa egin zuten Iruñeako sanferminetan, *Hau ez da Espainia, ezta Frantzia ere. Hau Euskal Herria da* lelopean.

Bestalde, Gazte Martxa antolatu dute uztailaren 15, 16 eta 17rako. Azpeitia eta Zaldibia artean egingo dute hiru egun iraungo dituen ibilaldia eta egitarau zabala prestatu dute: ekitaldi politikoa, hitzaldiak, kontzertuak eta askotariko tailerrak egingo dituzte, besteak beste.

Hala, Arrasateko gazte independentistek ibilaldira joateko deia egin die Arrasateko gazteei: martxara joan gura duenak Irati tabernan eman behar du izena, ibilaldia hasi baino egun bat lehenago. Beraz, Arrasatetik joan gura duenak etzi izango du azken eguna, uztailak 14.

> HEZKUNTZA

## Selektibitateko bigarren deialdikoak amaitu zuten azterketa

Joan den astean Selektibitatearen ez-ohiko deialdia egin zen. Arrasateko 20 ikaslek hartu dute parte bigarren deialdi horretan, eta horietatik bakarra izan da ekaineko deialdian hautaproba gainditu ez zuena. Gainontzekoak, ikasturteko ikasgai guztiak gainditu ez zituztelako egin behar izan dute azterketa ez-ohiko deialdian.

Gipuzkoan ekainean Selektibitatea egin zuten 2.969 ikasleetatik 44k bakarrik geratu ziren unibertsitaterako azterketa gainditu barik; bakarra Arrasatekoa, Arrasate eta Aretxabaletako institutukoa, hain zuzen. Institutuko 55 ikaslek egin zuten ekaineko azterketa, eta notarik altuena 9,49koa izan zen. Pasa den eguaztenean zortzi ikasle abiatu ziren Selektibitatea egitera eta joan den egubakoitzean amaitu zuten azterketa.

**JENDARTEA** > DOHAINTZA

# 'El Borono'-ren biografia eman dio dohaintzan haren familiak Udalari

Manuel Villeras Martinez (1923-2009) bergararra Espainiako gerraren ondorioz Ingalaterrara joandako 4.000 umeetako bat izan zen

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Manuel Villeras Martinez bergararrak idatzitako *El Borono: biografia de un niño vasco evacuado en 1937* delako liburua jaso du dohaintzan Udalak. Hain justu ere, haren senitartekoek, Arrondo familiak egin du dohaintza hori, Udal Artxiboan kontsultagarri egon dadin. Eta, hain zuzen, hantxe dago dagoneko, irakurri nahi duenarendako.

**BERGARAKO SEMEA**

Manuel Villeras Martinez 1923an jaio zen, Zurraga Behekoa baserrian, eta Bergaran eman zituen lehenengo urteak, 36ko gerra hasi zen arte. Hain zuzen, 1937ko apirilean, gerraren gogortasunaren ondorioz, 4.000 ume erbestera joatera behartuta egon ziren, eta Manolo Villeras haietako bat izan zen.

Bada, bizipen hori eta gerra garaiko beste hainbat jaso ditu Villerasek liburuxka baten, eta horixe da haren familiak Udalari emandakoa.

**INGALATERRARA ERBESTERATUTA**

Espainiako gerra hasi zenean, Bergara utzi eta Bilbora joan zen ama eta arrebarekin eta handik *La Habana* ontzian Ingalaterrako Evington kolonia-ra,1937an. Hantxe urtebete eman eta gero, Baionara joan zen Foster Parents Commitee-ren bitartez eta Le Vignau kolonian laguntzen aritu zen –16 urte zituen orduan–, II. Mundu Gerra hasi zen arte. Bergarara itzuli zen orduan.

Soldadutza Iruñean egin behar izan zuen eta epaiketa baten ondorioz, Burgosera bidali zuten. II. Mundu Gerra bukatu zenean, Elizondora bidali zuten eta, han zegoela, muga zeharkatzeko aprobetxatu eta ihes egin zuen.

Baionan zegoela, Eusko Jaurlaritzak antolatutako entrenamendu-gune batera joan zen, Francoren aurka egiteko prestatzen ari ziren gudarostea osatzeko. Egitasmoa bertan behera geratu zenean Bordelera egin zuen ihes eta handik berriz Baionara joan zen.

Gaueko lanetan ibili eta gero, Tarbesera egin zuen ihes eta geroago Frantziako Tolosara. Han, zurgintza ikasketak egin zituen, lanean hasi, ezkondu eta seme-alabak izan zituen eta hainbat lanetan jardun ostean erretiratu, eta iaz hil zen, abuztuan.

Liburua Interneten ere badago: http://*membres.lycos.fr/espana36/borono/boro4.htm*.



Javier Arrondo, Udal Artxiboan, liburua eskuetan duela. M.B.

**FILMAK ERE JASO DITUZTE**

Dohaintza hori udalbatzak onartu zuen azkeneko osoko bilkuran, aho batez, eta Udalak eskertu egiten du dohaintza hori eta hala jakinaraziko dio Arrondo familiari ere.

Bestalde, osoko bilkura berean beste dohaintza bat ere onartu zen, herritar batek super-8n egindako hiru film: amnistiaren aldeko ekintzak (1977), Pazkoetako estanpak (1976) eta Pazkoetako jaiak (1976).

**Javier Arrondo** > Senitartekoa

## "Iaz hil zen eta errautsak hemen zabaldu genituen hark eskatuta"

**M.B.** > BERGARA

**Tolosan (Frantzia) bizi arren, asko maite zuen Manuel Villerasek Bergara. Arrondoren osaba zaharra zen eta horrek eman digu haren berri.**

**Haren senitartekoak zarete.**

Gure amamaren anaia zen; aitaren osaba eta Arrasaten beste iloba bat du, aitaren anaia. Harreman handia izan dugu eta data esanguratsuetan etorri izan da, Pazkoetan, esaterako. Asko maite zuen herria.

**Iaz hil zen.**

Bai, abuztuan. Esanda laga zuen hiltzean errautsak Bergaran botatzea nahi zuela. Hala, Frantziatik etorri ziren haren etxekoak eta errautsen erdiak Zurradero zubi inguruan bota genituen eta hautestontzia beste erdiarekin jaiotetxe ondoan lurperatu genuen, Zurrako gurutze ondoan.

**Noiz izan zenuten liburuaren berri?**

Duela hiru urte bidali zigun eta ezustekoa izan zen. Udalari eman diogu, haren nahia zelako kontatzen duenari zabalkundea ematea.



GOIENKARIA

## 16 gaztetxok ekin diote 'Kosta ala kosta' udaleku ibiltariari

Aurreko astelehenean, hilaren 5ean, abiatu ziren *Kosta ala kosta* udaleku ibiltariko gaztetxoak. Aretxabaleta, Bergara, Arrasate eta Leintz Gatzagako 19 gaztetxok ekin diote 12 eguneko abenturari. Ezustez beteriko bide luzea dute aurretik, kostara iritsi eta uztailaren 15ean Zarautzen udalekuetako azken jaia egin bitartean.

*Kosta ala kosta* ekimena Jardun, Txatxilipurdi eta Loramendi elkarteek antolatu dute 14-16 urte arteko gazteendako.

JENDARTEA > JAIAK

# Datozen egunotan jaiak ospatuko dituzte Bolun, Basalgon eta Goimendin

Bolun Santa Ana jaiak ospatuko dituzte hilaren 23tik 25era eta Basalgo eta Goimendi auzoetan, Santiago jaiak hilaren 24tik 26ra

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Datorren astean herriko hiru auzotan jaiak ospatuko dituzte. Bolu auzoan Santa Ana jaiak hasiko dira hilaren 23an eta Santanatxoren jaitsierak emango die hasiera. 24an, umeendako kukaina eta jokoak egongo dira 12:00etan; mus txapelketa, 16:00etan; eta 18:00etan, puzgarriak eta umeendako musika egongo dira. Baita txokolatejana ere. 21:30ean auzoko afaria egingo dute Azpeitxi jatetxean eta izena emateko epea zabalik dago uztailaren 18ra arte. Uztailaren 25ean, meza nagusia egongo da San Pedro parrokian, 11:00etan, eta ordu berean, auzoko lau bikotek pilota txapelketa jokatuko dute auzoko pilotalekuan. 12:00etan umeendako puzgarriak eta herri txikiteoa egongo dira; 16:00etan tute txapelketa; eta 20:00etan, jaiei amaiera emango diete Santanatxoren igoerarekin.

**SANTIAGO JAIAK BI AUZOTAN**
Basalgo eta Goimendi auzoetan Santiago jaiak ospatuko dituzte. Lehenengoan, hilaren 24tik 26ra ospatuko dituzte; bigarrenean, 24an eta 25ean.

Basalgo auzoari dagokionez, 24an, 18:30ean, hasiko dira jaiak eta jarraian makala jasoko dute. Hilaren 25ean, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta 12:00etan, 28. Basalgoko igoera ziklismo proba hasiko da. 12:30ean, Amuriza eta Peñagarikano bertsolariek saioa egingo dute eta 13:00etan, goi mailako afizionatuen pilota partiduak egongo dira. Partiduak bukatu eta gero, erromeria egongo da Alai taldeak eta soinu-joleek alaituta.

**BERTSO BAZKARIA BASALGON**
15:00etan bertso bazkaria egongo da Amuritza eta Peñagarikanorekin eta izenematea zabalik dago hilaren 23a baino lehen, Iraho eta Basalgokoak elkartean. Jaien azken egunean, hilaren 26an, meza egongo da 13:00etan eta 14:30ean bazkaria egingo dute auzoko jubilatuek eta jai batzordeak. Izena emateko azken eguna da uztailaren 25a.

**GOIMENDIN ERE JAIAK**
Goimendi auzoan hilaren 24ko 21:30ean emango diete jaiei hasiera berakatz zopak jaten. Afaria eta gero, Miren eta Agurtzane trikitilariek erromeria egingo dute.

Hilaren 25ean, meza nagusia egongo da 11:00etan; 12:00etan soka dantza egingo dute Kezka taldekoek eta 12:30ean JoxeAgirre eta Gorrotxategi bertsolariek saioa. 13:00etan, berriz, umeendako jolasak egongo dira.

18:00etan herri kirolen erakustaldia egongo da eta 18:30ean, bola joko txapelketa. 19:00etan berriz egingo dute saioa Joxe Agirre eta Gorrotxategi bertsolariek eta haiek emanaldia bukatu eta gero, erromeria egongo da Jon Ostolatza eta Unai Andonegi trikitilariekin.

txaloak eta txistuak

## Zubiaurreko plazatxoko zorua arriskutsu

Irakurle batek bidalitako oharrean dio Zubiaurren, erreka ondoan dagoen zuhaiztia asko erabiltzen dela udan, "leku freskoa" delako. Baina hango eserleku eta batik bat zoruaz kexu da. Zubiarrueko bizilagun horren arabera, zoruan koskak daude, eta estropezu egiteko arriskua. "Aurreko astean gizonezko bat erori zen", gehitu du. Zoruarekin batera eserlekuak konpontzeko ere eskatu du.


MONIKA BELASTEGI

KULTURA > IKASTAROA

## Txalaparta ikastaroa antolatu dute uztailerako

Uztailaren 26tik 30era izango da eta izenematea zabalik dago Jardunen

M.B. > BERGARA
Jardun euskara elkarteak txalaparta ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Pello Muxika bergararrak emango du eta eskolak euskaraz izango dira.

Uztailaren 26an hasi eta 30era arte, biak barne, izango da ikastaroa, 19:00-21:00 ordutegian; guztira, hamar ordu.

**IZENEMATEA ZABALIK DAGO**
Izenematea dagoeneko zabalik dago. Horretarako, Jardunek kultura etxean duen bulegora joan behar da edo 943 76 36 61 zenbakira deitu. Prezioari dagokionez, Jarduneko bazkideendako 18 euro da eta gainerakoendako, 20.

Izena emateko azkeneko eguna uztailaren 21a da, eguaztena.

KIROLA > IKASTAROAK

# Izenematea zabalik umeen igeriketarako

Gaur, uztailak 12, zabalduko dute epea eta uztailaren 19a izango da azkeneko eguna

M.B. > BERGARA
Gaur, astelehena, zabalduko du Udaleko Kirol Zerbitzuak 2010-2011 ikasturterako antolatu dituen umeendako igeriketa ikastaroetarako izenemate epea.

Aurretik ikastaroetan parte hartu duten umeek zehaztuta dute igeriketako maila, baina ikasle berriak ere animatu nahi dituzte Kirol Zerbitzutik. Hala, ikasle berrien maila ezagutzeko proba antolatu dute uztailaren 19rako. Parte hartzeko, ordua hartu behar da Agorrosinen.

**ZOZKETA BIDEZ**
Kirol Zerbitzuaren nahia da datorren ikasturterako zozketarik ez egotea; hau da, izena ematen duten ume guztiek parte hartu ahal izatea ikastaroetan. Igeriketa jarraipena behar duen prozesua dela ulertzen dute, baina zerbitzu publiko diren heinean eta aukera berdintasuna bermatu behar dutenez, zozketa ezinbestekotzat ere ikusten dute.

Hori horrela, inor plazarik gabe gera ez dadin, datorren urteko eskaintza handitzea erabaki dute. Hala, txikitxoenen bi taldeak (Zapaburuak eta Dortokak mailak) aste bukaeretan ematea erabaki dute.

Datorren ikasturteko talde eta ordutegiak antolatzen hastear daude eta horretarako uztailean egingo dute zozketa. Hain justu ere, 22an izango da eta behin betiko zerrendak 23an emango dituzte aditzera.


Umeak igeriketa ikastaroan. GOIENKARIA

POLITIKA

## Udalbiltzari babesa erakusteko bilkura

M.B. > BERGARA
Udalbitzaren aldeko herriko babes taldeak elkarretaratze isila deitu du uztailaren 15erako, eguena, 19:30ean, San Martin plazan.

Egun horretan hasiko da Madrilgo Auzitegi Nazionalean Udalbiltza eta bertako hautetsi eta langile ohien aurkako epaiketa. Hala, Udalbiltza legez kanporatzeaz gain, 22 pertsonari 10 eta 25 urte arteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Elkarretaratzearekin salatu egin nahi dute auzibide hori eta Estatuko Gobernuari eskatu Estatuko fiskal nagusiak akusazio publikoa erretira dezala.

**ZERBITZUAK** > DENDARIENDAKO LAGUNTZAK

# Zerbitzu arloko negozioek laguntza jasoko dute abuztuan zabaltzearren

Iazko kopuru bera –55.000 euro– banatuko du Udalak; izenemate epea zabalik dago hilaren 17ra arte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Zerbitzu arloko negozioek Udalaren dirulaguntza jasoko dute aurten ere. 2008an eta 2009an egindako moduan, abuztuan egun zehatz batzuetan zabaltzearren laguntza jasoko dute.

Udalak 55.000 euro onartu ditu –iazko kopuru bera–. Dirulaguntza jasotzeko interesa dutenek izenematea egin beharko dute hilaren 17a baino lehen, udal bulegoetan, Turismo Bulegoan edo Enplegu Departamentuan.

**HIRU DIRULAGUNTZA MOTA**
Udalak eta Txanda dendarien elkarteak adostutakoaren arabera, hiru laguntza mota emango dituzte: alde batetik, 625 euro jasoko dituzte abuztu osoan, goiz eta arratsaldez, ohiko ordutegian zabaltzen duten negozioek; bestealde batetik, 350 euroko laguntza izango dute abuztuan bi astean jarraian, goiz eta arratsaldez, ohiko ordutegian zabaltzen dutenek; azkenik, 300 euro jasoko dituzte abuztu osoan, baina goizez bakarrik, ohiko ordutegian zabaltzen dutenek.

Merkatariek zerbitzu ona ematen dutela ziurtatzeko, udal arduradunek egunen eta ordutegien kontrola egingo dute.

**2009AN, 108 NEGOZIO**
2008an hasi zen Udala abuztuan zabaltzearren dirulaguntzak ematen. Orduko hartan, likidazioa egin ondoren 49.200 euro gastatu zituzten. Iaz, 55.000 euroko aurrekontua zuen, baina 53.175 euro banatu zituen merkatarien artean.

2009an, 108 merkataritza-establezimenduk eskatu zuten abuztuko dirulaguntza. 54k abuztua osoan zabaldu zuten; 20k abuztuan, bi astez jarraian; eta gainerako 34ek abuztu osoa zabaldu zuten, baina goizez bakarrik. Hain zuzen, %60 ostalaritzako negozioak ziren eta gainerako %40ak, merkataritza eta zerbitzu negozioak.

**Aitor Biain** > Ganbara abesbatzako zuzendaria

# "Ezin nuen ezetz esan; nagusien Ganbarako zuzendari izatea erronka handia da niretzat"

**M.B.** > OÑATI
**Aitor Biain nagusien Ganbara abesbatzako zuzendari berria da. Gogo handiz hartu du Esteban Urtzelairen lekua. Maiatzean hasi zituzten entseguak. Oporretara joan aurretik egin dugu berba harekin.**

**Orain arte neska-mutikoekin ibili zara, baina orain nagusien abesbatzako zuzendari izango zara.**

Bai, hala da. Ezin nuen ezetz esan. Talde ona da, sendoa, lan asko egiten duena... Horregatik guztiagatik onartu dut. Kargu hau erronka handia da niretzat. Erronka zaila, baina, era berean, oso polita.

**Zuzendari lanean aurrerapauso garrantzitsua da?**

Bai. Lanerako aukera ezin hobea da.

**Ganbara abesbatza etapa berri baten aurrean dagoela esan dezakegu?**

Bai. Alde batetik, zuzendari aldaketa izan duelako, eta, beste alde batetik, taldean aldaketak egon direlako. Oñatiarrak ez ziren kide batzuek taldea utzi dute. Egun, 24 bat kide gara.

**Orain arte Ganbarako kide, abeslari, izan zara, eta aurrerantzean zuzendari izango zara.**

Horregatik diot erronka zaila izango dela. Aurrerantzean nik emango dizkiet aginduak orain arte nire taldekide izan direnei.


Aitor Biain. MIREIA BIKUÑA

**"Ganbara abesbatzak ondo irabazitako nortasuna dauka, eta hori ez dut aldatuko"**

Abesbatzako abeslari izan edo zuzendari izan, gauzak ez dira berdin ikusten.

Halako kasuetan errazagoa da inor ezagutzen ez duzun abesbatza bateko zuzendari izatea.

**Ganbararen bide berria hasteko zer duzue esku artean?**

Maiatzean hasi genituen entseguak berriro. Estebanek taldea utziko zuela jakin genuenetik nahiko motel ibili gara. Entseguak aldika-aldika egin ditugu. Hortaz, lehen pausoa izan da guztiok elkartu eta entseatzen hastea. Oporren ondoren indartsu hasiko gara.

**Zuzendari bakoitzak ukitu berezia ematen dio abesbatza bati. Nolakoa izango da Aitor Biainen Ganbara?**

Ganbara abesbatzak ondo irabazitako nortasuna dauka, eta hori ez dut aldatuko. Hori horrela, nire ukitua emango diot taldeari. Errepertorioa aldatuko dut, lan egiteko modua ere bai... Zuzendari bakoitzak kolore bat jartzen dio abesbatzari. Horretan egingo dut lan.

**Aspaldian isilik dago Ganbara.**

Bai. Urte batzuetan buru-belarri ibili ginen kontzertuekin eta lehiaketekin. Azkenaldian lasaiago gabiltza, besteak beste, taldean aldaketa asko egon direlako. Dena den, laster hasiko gara berriro *kaña* ematen.

**Kide gutxiago zaretela esan duzu, baina harrobian talde indartsuak dituzue.**

Egia esan, ezin gara kexatu. Ganbarako harrobiko taldeetan neska-mutiko askok dihardute: Ganbara Txikin, Txikitxon eta Ganbara Gazten. Azken horretan ahots oso onak daude, indartsuak eta asko transmititzen dutenak. Ez daukat zalantzarik etorkizunean nagusien abesbatzako kide izango direna.

**JAIAK** > SAN MIGELAK

# Dantzariendako eta danbor-joleendako izenematea zabalik hilaren 29ra arte

Interesatuek kultura etxean eta gaztelekuko informazio puntuan eman dezakete izena

**M.B.** > OÑATI
San Migeletako danborrada nagusiaren antolatzaileak hasi dira deialdiak egiten. Oporren aurretik, danbor-jole eta dantzari izan gura dutenendako deialdia egin dute: izenemate epea zabalik dago hilaren 29ra arte, kultura etxean eta gaztelekuko informazio puntuan. Parte hartu gura duten dantzariek 1993. urtean jaiotakoak izan beharko dute eta danbor-joleek, 18 urtetik gorakoak.

Izena ematen duten guztien artean zozketa egingo dute irailaren 2an, 19:00etan, Errekaldeko lokalean.

Entseguak banatuta egingo dituzte. Danbor-joleek irailaren 7an, 14an, 16an 21ean eta 23an egingo dituzte. Aldiz, dantzariak, irailaren 6an, 8an, 14an, 16an, 21ean eta 23an bilduko dira.

Elkarteetako banderadunek–15 eta 17 urteko artekoak–irailaren 21ean eta 23an egingo dituzte entseguak.


Iazko haur danborradako parte-hartzaileak plazan. GOIENKARIA

**HAURREN DANBORRADA**
Haurren danborradako neska-mutikoek entseguak egin zituzten ekainean, eta irailean berriro elkartuko dira. Irailaren 2an, 7an, 14an, 16an, 21ean eta 23an egingo dituzte entseguak 19:00etatik 20:00etara. Elkarteetako banderadunak irailaren 21ean eta 23an egingo dituzte entseguak. Haurren danborrada irailaren 25an egingo dute.

**ESKORIATZA** > LANAK

# Hainbat elizatetako bideak konpontzen dabiltza egunotan

## Zarimutz, Mazmela eta Apotzagara doazen bideak hondatuta zeuden autobideko lanen ondorioz

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Joan zen astean hasita Zarimutz, Mazmela eta Apotzaga elizateetara doazen bideak konpontzen dabiltza. Aldundiak bere gain hartu zituen elizate horietara doazen errepideetako bide zoruaren egitura birgaitzeko lanak, autobidearen lanen ondorioz oso hondatuta geratu zirelako.

**700.000 EUROKO AURREKONTUA**

Udala zain egon da azken hilabeteotan lanok noiz egingo, atzerapenarekin iritsi dira-eta, baina dagoeneko aurrera doaz Orsa enpresa egiten dabilen lanok. Joan den astean Zarimutz elizatera doan bide sarrera konpontzen ibili ziren, baita Apotzagako bidearen hondatutako zatiak jasotzen ere. Asfaltoa bota zuten gero lanok bukatzeko. Autobideko zubi azpian, ostera, bidea zabaltzeko dute oraindik eta hainbat egunetan jarraituko dute.

Ia 700.000 euro bideratu ditu Aldundiak konponketa horietara.




Apotzagara doan bidea hasten den lekuan zorua konpontzeko makinak, egubakoitzean. MIRIAN BITERII

**Jose Mari Agirre Zenitagoia** > Ibarraundiko erakusketen arduraduna

# "Gehienek kopiak egiten dituzte baina nik esaten diet sortu egin behar dela"

**M. B./M.A.** > ESKORIATZA

**Pintura ikasleen margolan erakusketa dago Ibarraundin hilaren 30a arte. 28 lan jarri dituzte ikusgai, gehienak eskoriatzarrek egindakoak. Tartean Jose Mari Agirreren lanak daude; orain dela lau hilabete museoko erakusketen ardura duen bergarararrarenak.**



Jose Mari Agirre Zenitagoia egubakoitzean museoan. M.B.

**Zeinen margolanak daude ikusgai Ibarraundin?**

Debagoiendarrenak dira; gehienak Manu Gomez arrasatearraren eskutik, zapatu arratsaldean dauden pintura eskoletan egindakoak dira; eta Eskoriatzan bizi diren beste pintore batzuenak ere badaude, tartean neureak.

**Zelako margolanak dira?**

Ikasle gehienek kopiak egiten dituzte, eta nik esaten diet sortu egin behar dela kopiatu beharrean. Baina hori gutxik egiten dugu, Patxi Maguk, Mila Madinabeitiak eta neuk. Kopia bat egiteko bi edo hiru hilabete behar dute eta guk denbora horretan 18 bat lan sortzen ditugu. Gehienak denbora pasatzera joaten dira zapatuko eskoletara.

**Goizez eta arratsaldez dago zabalik erakusketa?**

Bai, goizean museoko arduradunak dude eta arratsaldetan geu egongo gara, margolanak egindakoak.

**Inauguratze ekitaldia eta guzti egin zenuten erakusketa zabaldutako egunean, ezta?**

Bai, eta jende asko elkartu zen orduan, 70 bat lagun, gehienak senideak. Orain jendea erakusketara hurbiltzea gura dugu.

**Orain dela lau hilabete museoko erakusketen ardura hartu zenuen. Nolatan?**

Pedro Lasagabaster alkateak deitu zidan eta ideia proposatu zidan. Ez nuen larregi pentsatu. Dagoeneko bi erakusketa egin dira; Koldo Gojenolarena bat, eta orain dagoena, bestea.



Aitzorrotzeko ordezkaria saria ematen Mari Carmen Galan irabazleari. M.A.

**ARETXABALETA** > MERKATARITZA

# Mari Carmen Galanendako Aretxarteren ekaineko saria

## Arrikrutzeko kobak ikusteko sarrerak jaso ditu eta Zelai Zabal jatetxean bazkaria

**M.A.** > ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak ekainean egin duen zozketak badu irabazlea: Mari Carmen Galan aretxabaletarra. Aitzorrotz elektronika dendan banatutako 21.799 zenbakidun txartela zuen horrek, eta egubakoitzean jaso zuen saria dendako ordezkariaren eskuetatik: Oñatiko Arrikrutzeko kobak ikusteko sarrerak eta bazkaria bi lagunendako Zelai Zabal jatetxean.

Sekula ez zaiola halakorik tokatu eta pozik azaldu zen Galan saria jaso eta argazkia ateratzerakoan.

**MAIATZEKOA AGERTU BARIK**

Hilabete guztietan egiten du zozketa Aretxartek dendetan banatutako txartelekin. Eta maiatzeko sariduna oraindik ez da agertu. Gertu janari dendan banatutako 17.242 zenbakidunarendako izango da: aurkezteko epea, baina, eguenean bukatzen da. Oparia da Kantabriako natura parkerako edo upategi baterako sarrerak.

Eta orain uztaileko zozketarako txartelak banatzen dabiltza. Saria izango da Donostiako zinemaldirako bi lagunendako sarrerak eta afaria Donostiako jatetxe batean.



MIRIAN BITERI

# Armonia handiko balkoiari saria

Txaro Oion eskoriatzarrak irabazi du Leiho eta Balkoietako Loreen III. Lehiaketa. Santa Ana auzoko 11. eskapean bizi da eta armonia handiko balkoia dela jakinarazi zuten epaimahaiko kideek baloratzerakoan: "Koloretan egoki konbinatua, itxitura zaindua eta orekatua". Ondorioz aurtengo saria Oionendako izan da.

Pedro Lasagabaster alkatearen eskuetatik jaso zuen bertako produktuez osatutako saskia, San Pedro jaiak hasteko botatako txupinazoaren ondoren.



Udaletxeko leiho guztiak berriak dira, baita atzeko aldeko atea ere. L.Z.

**ELGETA** > E-PLANA

# Eskolako fatxada, leihoak eta barandak berrituta

Estatu fondoko bigarren E-planarekin egitekoak ziren lanak ia amaituta daude; gainera skate parkea eta kontsultako arrapala egingo dituzte

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Madrilek urtebeteko epea ematen zuen inbertsioak gauzatzeko eta esan daiteke, Elgetan, ia amaituta daudela. Martxoan hasi ziren Amaral de Sousa enpresako beharginak Espaloiko bidean barandak ipintzen. Gero, hezetasun arazo larriak zituen Herri eskolako fatxadan konponketa lanak egin zituzten baita teilatu-hodi egokia ipini ere. Azkenik, leiho berriak ipini dituzte udaletxean, aurrerantzean energia aurrezten lagunduko dutenak. Bitarte honetan, gainera, Artekale eta Domingo Iturbe kaleetan baranda berri gehiago ipini dituzte. Gelditzen da etxebizitza tasatuen eraikinaren parean dauden eskaileretan ere barandak ipintzea. Laster baten egingo diren lanak, Oxel Erostarbe alkatearen esanetan.

Zapateroren bigarren E-Planaren dirulaguntzek emandako diruarekin egin dira lanok. Madrildik, honakoan, 113.512 euro etortzea aurreikusten dute udal arduradunek.

**SENDAGILEAREN KONTSULTA**

Bestelako lanak ere burutuko dira laster Elgetan. Batzuekin dagoeneko hasita daude. Aurreko astean aritu ziren Amaral de Sousako beharginak San Roke kaleko galtzada-harri kaltetuak konpontzen. Sendagilearen kontsultako sarreran ere hasi dituzte lanak. Bertan zeuden harri apurtu batzuk konpondu dituzte, eta sarreraren irisgarritasuna bermatuko duen arrapala egunotan egingo dute.

**SKATE PARKEA**

Kiroldegiko kantxa alboan, berriz, skate parke bat ipintzea da asmoa. Udal arduradunek ez dute oraindik zehaztu parke hori zein elementuk osatuko duten, baina bien bitartean langileak hasiak dira lur eremu hori lanerako prestatzen. Lurra botako dute egunotan, eta skate parkeko elementuak irailean ipintzea aurreikusten dute.

**LEINTZ GATZAGA** > LANAK

## Udalak biltegi lanetarako erabiltzen duen eraikinaren teilatua dagoneko konpondu dute

E Planaren dirulaguntzarekin egin beharreko lan biak bukatu dituzte biltegiaren konponketarekin

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Madrilgo Gobernuak emandako E Planaren dirulaguntzarekin Gatzagan egin gura zituzten lanak dagoeneko bukatuta daude: batetik, San Migel plaza barrenean baranda jarri dute, arriskua murrizteko asmoarekin; eta bestetik, Udal biltegiari teilatua konpondu diote. Orain dela astebete inguru bukatu dituzte teilatuaren lanak Eskoriatzako Ramel igeltserotza enpresako langileek. Hala, gatz museoaren alboan dagoen eraikina ondo babestuta utzi dute eta orain biltegi lanak egiten baditu ere, etorkizunean beste erabileraren bat izan dezakeela uste dute udal ordezkariek, gatz museoarekin zerikusia duena, beharbada. Hain zuzen ere, horregatik erabaki zuten konpontzea.

**ITOGINAK UDAL LOKALEAN**

Bestalde, Mankomunitateko Lanbide Eskolako ikasleek otsail inguruan eraberritu zuten udal lokalak itoginak izaten jarraitzen du. Gasteizera doan errepide alboan dagoen lokalaren arazoa oraindik ez dute konpondu, eta, ondorioz, Udalak ez du erabaki zein erabilera emango dion.

**ARAMAIO** > KULTURA

## Zuiako Koadrilak VIII. argazki lehiaketa deitu du

Lanak aurkezteko epea urriaren 20ra arte dago zabalik eta sari bikainak izango dira; besteak beste, Aramaioko irudi onenarentzat

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

*Zuiako Koadrilari begirada bat* izenburupean argazki lehiaketa deitu dute Aramaioko eta Zuiako Koadrila osatzen duten gainerako udalek. Lehiaketaren zortzigarren ekitaldia da aurtengoa eta partaideek Zuiako udaletan ateratako argazkiak baino ezin izango dituzte aurkeztu. Hiru argazki onenek, hurrenez hurren, 300 euro, 200 eta 150 euro eta trofeo bana jasoko dute. Horrez gain, Aramaioko argazki onenarendako beste 75 euro izango dira. Urriaren 20an bukatuko da lanak entregatzeko epea. Argibideak, 945 43 01 67 telefonoan.

**'BASERRI BARRI'**

Bestalde, Udalak gogoratzen duenez, eguaztenean, uztailaren 14an, *Aramaixo baserri barri* egitasmoa aurkeztuko dute Sastiñan, 19:00etan.



Aramaioko irudi onenarendako ere, saria izango da. A. AJURIAGERRA

**ANTZUOLA** > OSOKO BILKURA

## Herritarren balioak adostu nahi ditu Udalak

'Kudeatuz' programan parte hartzeko hitzarmena sinatu du Diputazioarekin

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Armarriaren inguruko prozesuak aurrera jarraitzen du. Horren inguruan egin behar duten hurrengo pausoa Foru Aldundiarekin batera egingo du Udalak. Hau da, Udalak aprobetxatuko du aldundiaren *Kudeatuz* programa herritarren balioak definitu eta adosteko.

Eguazteneko osoko bilkuran onartu zuten Foru Aldundiarekin lankidetza-hitzarmena sinatzea.

**HERRITARREN BALIOAK**

Programa horrek bi atal izango ditu Antzuolan: batetik, parte-hartze prozesu baten bitartez definitu egingo dira antzuolarren balioak. Hain zuzen: *Antzuolako etorkizuneko armarria/ sinbolo/ irudiaren bidean, gaur egungo antzuolarron baloreak definitu eta adostea* da prozesuaren gaia. Behin udalbatzak onartuta, irail inguruan hasiko dute prozesua, eta bi edo hiru hilabete iraungo du.

**ZER FALTAN ETA ZER SOBRAN?**

Bestalde, Aldundiak inkestak egingo ditu herritarren artean telefono bidez. Galdera izango da: *Antzuolan zer dago faltan eta zer sobran?* Horren helburua da herritarrek asebetetze maila ebaluatzea.

Kudeatuz programaren helburua da herritarrek erakundeetan parte hartzea eta politika publikoak ebaluatzeko planak ezartzea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Antzuolako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena da, Eudelekin sinatutako lankidetza hitzarmenaren esparruan.

# Kirola



**> MENDIA**
Broad Peak-eko ipar tontorrera igo ostean, zain daude espedizioak **> 23**



**> SQUASHA**
Silveiro Alvarez arrasatearrak irabazi du ibarreko txapelketa **> 24**

**> BEÑAT BARBERENA**
Arrasateko saskibaloi jokalaria Euskal selekzioarekin izan da Galizian, Pablo Lasoren aginduetara lanean **> 27**



# La Juvek eraman du aurten Ipintzako txapelketa nagusia

**FINALA**
Egubakoitzean, La Juvek 1-0 irabazi zion Indargorriri

**EKAINAREN 1ETIK**
Maila ezberdinetan 33 talde izan dira lehian

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Joan den ekainaren 1etik –90 partidu jokatu ondoren– Ipintzako txapelketa amaierara iritsi zen egubakoitzean. Ikusle mordoa izan ziren La Juve eta Indargorri taldeen arteko finala jarraitzen. Azkenean, La Juvek eraman zuen txapeldunen trofeoa, 1-0 irabazi ondoren.Unai Aranak egin zuen partiduko gol bakarra, bigarren zatian.

Futbol 11-ko txapelketan 17 talde izan dira lehian. Kopako finalean, Badulakek 2-1 irabazi zion egubakoitzean Dream Team taldeari. Beteranoen mailan, Diego Valor izan da txapelduna eta nesken finala, berriz, Pentol´s taldeak irabazi zuen.

Mikel Gotzon Fernandez *Pope*-k antolatu du aurtengo txapelketa, Ipintzako belar artifizialean jokatzen den bigarrena hain zuzen. *Pope*-rekin batera, Jon Madariaga eta Jokin Arrillaga gazteak izan dira epaile lanetan partidu guztietan. Talde guztien kiroltasuna nabarmendu dute hirurek. Zorionak beraz txapelketan parte hartu duten guztiei.



La Juve taldeko jokalariak egubakoitzeko finalaren ostean, eskuratutako trofeoarekin. EDU MENDIBIL



Indargorri taldea, azpitxapeldunen trofeoarekin.



Nesketan, Pentol´s taldeak (beltzez) Danetik Pixkat taldeari irabazi zion finala, 2-1.



Andoni Urrutia (La Juve) eta *Pope*.



Jon Madariaga eta Markel Iltzarbe, golegile onena.



Pol Lopez de Subijana, atezain onena.



Jokin Arrillaga eta Mikel Lasa, Badulake taldekoa.

**TXIRRINDULARITZA** > ANTZUOLA SARIA, IÑAKI LETE MEMORIALA

# Omar Fraile: "Bergaratik hona sufritu egin dut"

## Seguros Bilbaoko ziklistak bakarrik egin zituen azken 15 kilometroak

## Angiozarren gora erritmo bizian igo zuen, eta abantailari eutsi zion gero



Lasterketako hasierako kilometroetan, tropela batera, Oxigenotako biribilgunean,

**XABIER URTZELAI** > ANTZUOLA

Hamabost kilometro. Berez, bizikleta gainean erraz egiten den distantzia da. Baina, hamabost kilometro horiek egiteko hamabost segundoko abantaila baino ez duenarendako lasterketa oso bat da, ibilbidea berriro hasiko balu bezala, bakarrik, gainera.

Horixe gertatu zitzaion Omar Fraileri (Seguros Bilbao) atzo goizean egindako Antzuola sarian. Angiozarreraino –107. kilometroa– ordura arteko gizonik indartsuenak batera iritsi ziren, eta handik gora erabaki zen lasterketa: "Asentziora igotzen oso indartsu ikusi dut Omar, eta erraz egin du aurrera. Ni pozik geratu naiz, hamabost segundoko tartea baino ez didalako atera, baina gero gainontzeko ziklistak ez gara hura harrapatzeko akordio batera iritsi, eta Omarren taldekideek lan ona egin dute lasterketa moteltzen", adierazi zigun iaz Antzuolan azkarrena izan zen Pello Bilbaok –zapatuan Bilbao bigarren helmugaratu zen Murgian, bere taldekide Bizkarrari eskutik helduta.

Iaz, baina, Bilbaok beste ziklista baten laguntza izan zuen Bergaratik Antzuolara arteko tartea egiteko, eta elkarri erreleboak emanaz eramangarriago egin zuten tarte hori. Atzoko irabazleak ez zuen horrelako zorterik izan: "Bergaratik Antzuolara arteko zatian sufritu egin dut, eta zelan gainera. Baina pozik nago ondo neurtu ditudalako indarrak, eta taldekideek sekulako lana egin dutelako".

### Sailkapena

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Omar Fraile (Seguros B.) | 2:55:16 |
| 2. | Ramon Domene (Seg.) | 15 seg. |
| 3. | Aritz Orbe (Bidelan) | 18ra |
| 4. | Pello Bilbao (Naturgas) | 18ra |
| 5. | Jesus Ezkerra (El Soplao) | 18ra |
| 6. | Ibai Salas (Seguros Bil.) | 18ra |
| 7. | Jordi Simon (Caja Rural) | 18ra |
| 8. | Joseba Elortza (Bidelan) | 18ra |
| 9. | Antonio Pedrero (Seguros) | 21era |
| 10. | Igor Merino (Naturgas) | 27ra |

DATUA

**15**

**SEGUNDO**

Omar Frailek 15 segundoko tartea eskuratu zuen Asentzioko gainean, eta atzetik zetozkion ziklistak ez ziren tarte horretatik segundo bakar bat ere kentzeko gauza izan Antzuolara bidean.

**HASIERATIK, AZKAR**

Lasterketa hasieratik jendea urduri ibili zen atzo. Berehala apurtu zen tropela, eta 60 lagunek aurrera egin zuten. Tartean, baina, erorikoak egon ziren. Sailkapen orokorrean aurrean dabilen jendea, baina, atzean geratu zen, oilarrak elkarri zaintzeaz arduratu zirelako gehiago, eta Deskargan gora 12 laguneko talde batek aurrera egin zuen. Naturgasekoak pozik ziren, ihesaldi horretan bi taldekide zituztelako –Larrinaga eta Grijalba– eta beste taldeei, batez ere Seguros Bilbaori, lan egitera derrigortzen zituztelako.

Benetako talde lana, baina, Caja Ruralek egin zuen, talde horrek ez zuelako eguneko ihesaldian ordezkari bakar bat ere ez, eta ihesaldia bertan behera uztea komeni zitzaielako. Lan horri, baina, Seguros Bilbaok atera zion etekina, Bergarara bidean ihesaldikoak harrapatu, eta Angiozarren gora egiteko gizonik indartsuena zutelako: Omar Fraile.

**ARANTZETAK EZ ZUEN AMAITU**

Antzuolako onenaren saria prest zuten antolatzaileek, baina ibarreko ordezkari bakarrak ezin izan zuen saria jaso, Deskargan bertan behera utzi zuelako proba: "Banekien ez nengoela lasterketa amaitzeko moduan. Orain amaitu ditut azterketak, eta astebete entrenatuta ezin dira mirariak egin. Ibili naiz bizikletan, baina ikasketak direla-eta erregulartasun barik, eta hori igarri egiten da. Baina, gazte mailatik



Angiozar atzean utzita, une horretan hasi zen Omarren erakustaldia. XABIER URTZELAI




Antzuolako udaletxean lasterketako talde onena, Seguros Bilbao. XABIER URTZELAI



Tropela zatituta, Antzuolatik jaisten.



Antzuolara bidean; lehenengo ihesaldia Deskargan gora izan zen. JULIO CALLEJA

amateur mailarako saltoa ez zait horren gogorra egin. Antzuolatik pasa behar ginen alditan ahalik eta txukunen pasatzea zen nire asmoa", adierazi zigun helmugan Xabier Arantzetak.

Lasterketako gizon azkarrena izatearekin batera, Frailerendako izan zen mendiko saria, eta taldeko saria ere Seguros Bilbaokoendako izan zen.



XABIER URTZELAI

**Omar Fraile** > Irabazlea

## "Banekien atzetik zetozenak esprintean ni baino hobeak direla"

**GOIENKARIA** > HERRIA

**Omar Fraile (Seguros Bilbao) santurtziarra izan zen Asentzion gora azkarrena, eta han lortutako hamabost segundoko abantailari esker izan zen Antzuola sarian azkarrena.**



X.U.

**Zelako lasterketa izan da?**

Hasieratik urduritasun handia izan da lasterketan, eta ez dakit zergatik. Erorikoak izan dira, eta berehala apurtu da tropela. Aurrekoei harrapatzeko atzeko taldean lan handia egin behar izan du Caja Rural taldeak, eta gu horretaz baliatu gara.

**Asentzioko igoera erabakigarria izan da aurten ere.**

Bai, Angiozarreraino taldean joan gara, baina behetik indartsu hasi naiz, nire erritmoan egin dut gora eta abantaila polita lortu dut.

**Elgetan behera abantailari eustea ez da horren zaila, baina Antzuolaraino kilometroak daude oraindik, batez ere bakarrik joateko.**

Bai, sufritu egin dut hor, topera joan nahi nuen, baina neurri berean indarrak gordetzen. Bergarako saihesbidetik Antzuolara arteko zatia gogorra egin zait. Haizeak jotzen zuen, eta asfaltoak ere heldu egiten zuen tarte horretan. Zorionez, neukan abantaila nahikoa izan da.

**Ez zenuen esprintik nahi.**

Ez, atzeko taldetxoan azken metroetan ni baino hobeto dabilen jendea zegoelako, besteak beste, nire taldekide Ramon Domene.

**MENDIA** > NATURGAS BROAD PEAK

# Iñurrategi: "Hau aperitiboa baino ez da izan"

Iparreko tontorra igo ostean, zapatuan haize zakarra zela-eta oinarrizko kanpalekura jaistea erabaki zuten

**X.U.** > ARRASATE

Egubakoitz arratsaldean Broad Peak mendiko ipar tontorrera igo ostean Naturgas Broad Peak espedizioko asteburuan igo nahi zituzten gainontzeko bi tontorrak. Baina, haize zakarra dela-eta, oinarrizko kanpalekura jaitsi behar izan ziren zapatu arratsaldean, datozen egunotan beste aukera bat izango duten itxaropenaz.

**HAIZE ZAKARRA**

Egubakoitzetik zapaturako gaua ez zen gozoa izan. 7.300 metrora, mendi-lepo batean igaro zuten gaua, eta apenas egin zuten lo, haize zakarraren ondorioz. Goizean haizeak zakar jotzen jarraitzen zuen, eta hori ikusita, Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltzak oinarrizko kanpalekurako bidea hartu zuten. Badirudi aste barruan beste aukera bat izan dezaketela.



Broad Peak-eko iparreko tontorra. BASQUE TEAM

**ARETO FUTBOLA** > 24 ORDUKO TXAPELKETA

# Eguenean argitaratuko dituzte taldeen ordutegiak

**X.U.** > ARRASATE

Zaldibarko txapelketako antolatzaileek datorren asteburuan egingo dute 24 orduko txapelketa, eta taldeak dagoeneko hasi dira izenak ematen –dagoeneko zortzi taldek eman dute izena.

Txapelketan parte hartu nahi duenak *info@zaldibarkofutbitotxapelketa.com* helbide elektronikora bidali behar du mezua, taldearen izena eta bertako jokalariak zeintzuk izango diren zehaztuz. Txapelketan esku hartzeagatik 50 euro ordaindu beharko ditu talde bakoitzak, eta lehenengo partidua jokatu aurretik batuko dute antolatzaileek dirua.

**ORDUTEGIAK, EGUENEAN**

Txapelketako ordutegiak, berriz, *www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com* helbidean zintzilikatuko dituzte.



Iazko 24 orduko txapelketako une bat. GOIENKARIA



Zapatu goizean 17 lagun izan ziren lehian Debagoieneko Squash Txapelketan, Musakolan. Goizeko 09:00etan ekin zioten txapelketari eta finala ordu biak aldera amaitu zen. JULIO CALLEJA

**SQUASH** > DEBAGOIENEKO TXAPELKETA

# Silveiro Alvarezek bost setetan irabazi zuen finala



Laura Saez izan zen parte hartu zuten lau emakumeetako bat. JULIO CALLEJA

Alvarez arrasatearra Harriet Arenazari nagusitu zitzaion finalean; AKE Squash taldekoak izan ziren nagusi txapelketan

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Beharbada atzean geratu dira squasharen sasoirik onenak (Bergarako Agorrosin kirol gunean ez da pistarik gaur, esaterako) baina Arrasateko talde batek tinko eusten dio zaletasunari. Zapatuan 17 lagun batu ziren Musakolan Debagoieneko Squash Txapelketa jokatzeko. Eta goiz osoan hainbat neurketa ikusgarri jokatu ondoren, finalean ez zen emoziorik falta izan: Silverio Alvarez arrasatearrak bost set behar izan zituen Harriet Arenaza eskoriatzarra mendean hartzeko (9-11, 11-7, 11-7, 8-11 eta 9-11). Biak ere AKE Squash taldean dihardute, gainerako lehiakide gehienak bezala. Beharbada Arenazak nekea nabaritu zuen partiduaren azken zatian (txapelketako laugarren partidua zen finalistendako) eta hortik etorri zen Alvarezen garaipena; "Egia esateko, ez nuen txapelketa irabaztea espero. Oso gogorra izan da finala eta biok dugun guztia eman dugu", esan zigun Alvarezek finala amaitu ostean.

Hirugarren eta laugarren postuak eskuratzeko partiduan, Aritz Gordok 3-1 irabazi zion Igor Ansuategiri: 7-11, 11-6, 11-5 eta 11-7. Gordo gustura zegoen lortutakoarekin; "lau onenen barruan sailkatzea zen nire helburua eta Igorri irabaztean poza hartu dut, bera ni baino zertxobait gorago baitago Euskadiko rankingean". Hain zuzen ere, 24.a da Ansuategi eta 29.a Gordo. Finalean beste horrenbeste gertatu zen, Arenazak (14.a) Alvarez txapelduna (18.a) baino postu hobea daukaeta sailkapenean.

**17 LAGUN LEHIAN BI KOADROTAN**

Esan bezala, 17 lagun izan ziren lehian, tartean lau emakume: Amaia Arroyo, Agurtzane Elkoro, Ainhoa Galfarsoro eta Laura Saez. Onenen multzora sailkatu ez zirenak kontsolazio-koadroan aritu ziren lehian eta haien finalean Ibai Gonzalez de Durana Iñaki Uriberi nagusitu zitzaion.

Bestalde, Iñaki Uribetxeberria AKE Squash taldeko arduraduna pozik azaldu zen jasotako erantzunarekin. Era berean, squashean jokatu nahi dutenei taldera hurbiltzeko gonbitea luzatu zien. Oparien zozketarekin amaitu zuten zapatuko jaia.



Silverio Alvarez irabazlea. E. MENDIBIL



Laura Saezek eman zion trofeoa Harriet Arenaza azpitxapeldunari. E.M.



Aritz Gordok (ezkerrean) 3. postua eskuratu zuen, Igor Ansuategiri irabazita. E.M.



Ibai Gonzalez de Durana. E.M.



Iñaki Uribetxeberria (ezkerrean) Iñaki Uriberi saria ematen. E.M.

**FUTBOLA** > MONDRAREN BATZARRA

# Lagunilla taberna, Mondra futbol taldearen esku

## Abuztuaren azkenetan zabalduko du Mondrak Zurgin kantoiko taberna

**E.M.** > ARRASATE

Mondra futbol taldeak 250 bazkide inguru ditu, baina hiruzpalau lagun baino ez ziren azaldu egueneko batzar orokorrera. Albistea zera izan zen: zuzendaritzako kideek jakitera eman zutenez, Mondrak Zurgin kantoiko Lagunilla tabernaren ardura izango du hurrengo denboraldian. Patxi De Andres presidenteak konfirmatu digunez, asmoa daukate abuztuaren azkenetan taberna zabaltzeko. Alokairuan hartu dute lokala eta lauzpabost lagun izango dira bertan, lanean. Kanpoko jendea kontratatuko dute. Beste edozein tabernaren antzeko ordutegia izango du eta oraindik erabakitzeke dago zer nolako zerbitzuak eskainiko dituzten. Datozen asteotan txukuntze lanak egin behar izango dituzte, azken bizpahiru urteotan itxita izan delako Lagunilla taberna.

**FITXAKETA BAT ORAINGOZ**

Kirol kontuei dagokienez, Iban Rodriguez arrasatearra izango da ohorezko erregional mailako entrenatzailea. Dagoeneko lehen fitxaketa egin du Mondrak: Lander Andres aurrelari aretxabaletarra. Gazte mailan Realean ibilitakoa da eta esperientzia handiko jokalaria da Andres. Beste hainbat fitxaketa lortzeko ahaleginetan ari dira kirol zuzendariak.

Amaitu berri den denboraldian 6.000 euroko irabaziak izan ditu Mondrak. Horretan zerikusia izan du jokalariek kobratu ez izanak. Patxi De Andresen arabera, dirulaguntzarik ez dute jaso, "publizitatean eskuratutako 18.000 euro izan ezik".

Bazkide kuotak honakoak izango dira hurrengo denboraldian: 70 euro normala eta 35 euro erretiratuendako. 30 urtetik beherakoendako bonoa, 20 eurotan.



ALOÑA MENDI

## Aloña Mendiko eta Bergara Igeri Elkarteko igerilari gaztetxoak Tuteran

Aloña Mendi KEko igeriketa saileko gaztetxoek parte hartu zuten Euskal Herriko infantil mailako txapelketan, Tuteran. Oñatiarrak pozik itzuli ziren. Argazkian, goian, Mireia Aranburu, Nerea Elorza, Maria Abeijon eta Ikerne Garcia (ezkerretik eskumara); eta makurtuta Nerea Uriarte eta Miren Tatiegi. Jon Ander Kortabarria falta da argazkian. Bergararrei dagokienez, Jon Mujikak bigarren postua lortu zuen 100 metro estilotan eta Xabier Labaka bular igeriketan lehiatu zen, 100 eta 200 metrotan.

> BERGARA

### Bazkide kuotetan igoerarik ez da izango Bergara KE-n

Bergara KEko batzarrean adostutakoaren arabera, hurrengo denboraldirako ez da kuota igoerarik izango. 2008tik mantentzen dituzten prezioei eutsiko diete: 60 euro nagusien kuota, 30 gazte eta erretiratuendako eta 90 euro bazkide babesleen kasuan.

Bestalde, igoera izango da gurasoek ordaintzen duten prezioei dagokienean: 165 euro ordaindu beharko dira jokalari bakoitzeko. Amaitu berri den denboraldian 150 euro zen prezioa.

> ESKORIATZA

### Babesle berria eta kamiseta berriak Eskoriatza KE-n

Saskibaloi saileko babesle nagusia Contrucciones Sukia izaten jarraituko du; eta Daunert-ek ere babesle lanak beteko ditu saskibaloia zein areto futboleko taldeetan. Nicasio Galan izango da areto futboleko taldeko entrenatzaile berria eta gazte mailakoa Josu Sanzek eta Iker Molinak zuzendu-ko dute. Kamiseta berriak izango dituzte taldeek, zuriak eta berdeak, garai bateko koloreak berreskuratuz.

Deskontu-eskaintza baliagarria auto honen salneurriaren gainean: Ford Focus Sound Trend 1.6. TDCi 90 ZP, 3 ate, Trend eta Pack Sony MP + bluetootha V2Crekin + USB packa, PFFren %18ri dagokiona eta autoa entregatuko duen bezero partikularrari, betiere, auto berria erosi bitartean gutxienez 6 hilabetez bere izenean izan badu auto zaharra. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren eta fabrikatzailearen P2000Eri ekarpena barne. Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan 2010eko uztailaren 31ra arte. Ikusten den modeloa ez dator eskaintzen den modeloarekin bat.



Abantailaz
betetako kluba!

Goiena kluba

## APIRILA-EKAINEKO SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA

# Juan Jose Madinabeitia
# Zorionak!

**Zuk ere hurrengo sari nagusia irabazi nahi?**

**Parte hartu zozketan**




Juan Jose Madinabeitia Txopebenta landetxeko bonoa eskuan duela.

## Uztaileko sariak



**ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA**

Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

ARRIKRUTZ oñatiko obak



**ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA**

Bidali KLUBA PANPINA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

ELHUYAR fundazioa
elhuyar.org/zoozoroa



**ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA**

Bidali KLUBA KAMISETA [bazkide zenbakia] 5195 zkra

esait



**UMEENTZAKO LIBURUAK**

Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

Ikastolen Elkartea

## SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA

**WII SPORTS RESORT PACK TXURIA**

**PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA**

Ukabi informatika

Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com***

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

**Beñat Barberena** > Saskibaloi jokalaria

# "Pablo Laso entrenatzaile oso ona da, asko ikasi dut haren ondoan"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Beñat Barberena arrasatearra Galizian izan da Euskadiko selekzioarekin. Nazioen III. txapelketa jokatu dute eta Euskadi hirugarrena izan da. Barberenak lehen aldiz jokatu du Euskadiko talde nagusiarekin. Harekin izan gara txapelketaz eta etorkizunaz berba egiten.**

**Hirugarren geratu zarete Nazioen III. torneoan. Zer moduzko esperientzia izan da?**
Gure helburua irabaztea zen, baina aurten hainbat jokalari min hartuta izan ditugu; adibidez, Javi Salgado eta Urtasun anaiak ezin izan dira etorri. Horregatik, uste dut lan polita egin dugula eta hirugarren postua ona izan dela. Beste urte batzuetan baino talde gazteagoa izan dugu.

**Hortaz, pena izan da aurretik lortutako lehenengo postua ezin defendatu izana.**
Bai, hala da. Aurreko txapelketetan nik ez dut parte hartu, baina pena izan da ezin irabazi izana.

**Zer moduzko mailako txapelketa izan da?**
Maila oso handiko txapelketa izan da. Nabaritzen zen denboraldia amaituta zegoela; hala ere, jokalariok genuen guztia eman dugu. Gainera, esan behar da ACB mailako jokalariak zeudela txapelketan, eta baita LEB mailakoak ere.
LEB maila EBA baino maila bat goragokoa da.

**Euskadiko maila txikienetan ibili ondoren maila gorenera jauzia egin duzu. Zer moduz moldatu zara?**
Orain arte kadete mailan, gazte mailan eta 20 urtez azpikoen mailan ibili naiz. Aurten jokatu dut lehenengoz talde nagusiarekin, eta gustura ibili naiz.

**Pablo Laso izan da entrenatzailea. Zer moduzko entrenatzailea iruditu zaizu?**
Oso-oso ona. Lau entrenamendu besterik ez dugu egin, baina oso pozik nago. Lau entrenamenduetan asko ikasi dut. Motibatzeko balio duen entrenatzailea da. Kontuan hartu behar da jokalaria izan dela Laso, eta hori nabaritu egiten da entrenatzeko orduan.

**Galizian jokatutako txapelketarekin dagoeneko hartu dituzu oporrak?**
Bai, dagoeneko bukatu dut denboraldia. Orain oporretan nago denboraldi-aurrea hasi arte.

**Datorren urtean Onda Urbana taldean jokatzeko asmoa duzu ala taldez aldatuko duzu?**
Aldatu egingo dut. Oraindik ez dut erabaki nora, uztailaren 20ra arte ez dut jakingo. Nire asmoa izango litzateke Gasteizera joatea; baina, agian, mailaz aldatuko dut.

**Arrasatetik Zaragozara joan zinen, eta gero Castellora.**
Bai, Arrasatetik Zaragozako Utebo taldera joan nintzen. Han urtebete egin nuen eta gero Castelloko Onda Urbanara joan nintzen. Azken bi urteak egin ditut Castellon.

**EBA ligan egin dituzu azken hiru urteak. Alde handia nabaritu duzu Utebo eta Onda Urbana taldeen artean?**
Zaragozako taldean, Utebon, jokalari gazteagoak ginen; eta Castellon, ostera, jokalari profesionalagoak dira. Baina jokoari dagokionez, antzerako maila duten taldeak dira biak.

**Zer-nolako maila da EBA?**
Denetarik aurki dezakezu. Badaude etorkizun oparoa duten jokalari gazteak; eta beste batzuk, ostera, ABC mailan ibilitakoak eta saskibaloia utzi gura ez dutenak dira.
Diruaren arabera osatzen dute taldea.

**Saskibaloian jokatzeaz gainera, ikasi ere egiten duzu?**
Bai, goizetan eskolara joaten naiz eta arratsaldeetan entrenamenduak izaten ditut.



Beñat Barberena, Onda Urbana taldeko kamisetarekin. BEÑAT BARBERENA

**"Aurreko urteetan lortutako lehenengo postua ezin izan dugu defendatu"**

**"Aurten jokatu dut lehenengo aldiz talde nagusiarekin eta gustura ibili naiz"**

**Egin dituzun ikasketak kirolarekin zerikusia dutenak dira. Horretan jarraitzea da asmoa?**
Bai, kirol modulua egin dut orain; eta datorren urtean SHEE (IVEF) karrera ikasten hasiko naiz. Nire ustez, EBA mailan ikasketak ondo atera daitezke.
Partiduak izaten dira inguruan; hau da, Espainia bost zatitan banatzen dute eta talde bakoitzak bere komunitate inguruan jokatzen du.

**"EBAn etorkizun oparoa duten jokalariak eta ACBn ibilitakoak dabiltza"**

**"Jarraitzen dut etxeko taldea; mailari eutsiz gero, datorren urtean derbiak izango ditugu"**

**Jarraitzen duzu etxeko taldea?**
Bai, jarraitzen dut. Lehenengo mailari eutsiz gero, datorren urtean Aloñaren aurkako derbia egongo da. Nik uste dut Aloña Mendiko zutabea dela orain urte batzuk Ointxeko jokalariak zirenak: Gamarra eta Mallabi. Nik uste dut Arrasateko taldea gazteagoa denez gehiago hobe dezaketela, baina esperientzia ere kontuan izan behar da.

**HEZIKETA** > PSIKOLOGIA

# Estimuluen kalitatea eta kantitatea zaintzea gomendatzen dute

Estimuluak ezinbestekoak dira, baina gehiegi jasotzen ditugunean garapen harmonikoa oztopa dezakete; gehienbat umeengan

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Egungo umeek estimulu gehiegi jasotzen dituzte. Augusto Cury psikiatra eta pedagogo brasildarrak *pentsamendu azeleratuaren sindromea* (PAS) deritzon gaitza definitu du. Estimulu berriekiko dependentzia sortzen du. "Estimulu berriak bilatuko dira etengabe eta aurkitu ezean, antsietatea sentituko du pertsona horrek. Txarto egingo du lo, kontzentrazio falta izango du eta buruko zein giharreko minak sortu ahal zaizkio". Gaitz horren argazkia izan daiteke jostailuz inguratuta egon arren asperdura ekiditeko jostailu berri gehiago eskatzen dituen umearena.



Umea ahateekin jolasean. L.Z.

**ESTIMULUEN KALITATEA ZAINDU**

Itziar Bartolome psikologoak seme-alabak hezteko orduan kontuan hartu beharreko aholkuak ematen dizkigu. "Lehenengo urratsa inguratzen gaituzten estimuluen kalitatea zaintzea eta kantitatea gutxitzea da. Isiltasun momentuak baloratzen erakutsi behar diegu eta naturako doinu eta estimuluetara hurbiltzeko saiakerak egin. Zoriontasuna gauza txikietan bilatu behar da; besarkada bat, lainoen mugimendua, janaria, lagunak...Azkenik, amets egiteko ohitura berreskuratu behar dugu, ametsak diraeta gure motibazio pertsonala elikatu eta zoriontasunaren bidean jartzen gaituztenak".

**AISIALDIA** > OPORRAK

## Oporretan ere seme-alaben interesak kontuan hartu

**L.Z.** > ARRASATE

Eskolako oporrak iristen direnean dilema sortzen da hainbat gurasorengan. Lanean ari badira umeen denbora librea bete egin behar da, eta aktibitate egokia aurkitu behar dute. Aholkua da, ahal den neurrian, umeen lehentasunak eta gaitasunak kontuan hartzea.



Umeak, hondartzan, jolasean. MARISALI

**JARRERA EZKORREN AURREAN**

Oporrak gurasoengandik banandura igarotzea arazo izaten da ume batzuentzako. Lotsatia izateagatik edo lagunak egiteko zailtasunagatik jarrera ezkorra erakuts dezakete seme-alabek. Horrelakoetan, seme-alaben aukera errespetatzeko gomendatzen dute adituek eta denbora libre hori umearen inguru gertukoenean edo ezagunenean aurkitzen diren beste neska-mutikoekin harremanak bultzatzeko erabiltzea. Esaterako, haiekin igerilekura/hondartzara joatea, haien adineko neska-mutikoak egongo diren lekuetara joatea... "Horrek segurtasuna emango die eta erraztu egingo die gizartean bizi izaten ikastea".

**FAMILIA LOTURAK SENDOTU**

Gurasoen eta seme-alaben oporraldiak bat etortzen direnean, momentua baliatu behar da familia loturak sendotzeko. "Garrantzitsua da familiako kide guztiek elkarrekin gozatzea. Horretarako, beharrezkoa da kide guztien garapen mailara egokitutako interes komunak bilatzea".

**HEZKUNTZA** > INTERNET

## Hezkuntza digitala bai, baina helduen kontrolpean

**L.Z.** > ARRASATE

Oporretan seme-alabek denbora luzeagoa dute ordenagailu aurrean egoteko. Gurasoek jakin behar dute badituztela erremintak erabilera hori kontrolatzeko. Adin txikikoen oreka emozionala egon daiteke arriskuan.

**ERREMINTA BALIAGARRIAK**

Adin txikikoak ez dira helduak eta, kalean bezala, arriskuak topa ditzakete Interneten ere. Adituek diote txarra dela sarearen erabilera debekatzea. PEGI Online izeneko arautegiak adinaren arabera egokiak diren bideojokoak proposatzen ditu. Gainera, hainbat programa daude adin txikikoen nabigazio saioak kontrolatzeko lagungarri direnak: Windows Live familia segurtasuna, Net-Nany, Messenger Blocker, eta Family Shield, esaterako. Apple ordenagailuek, gainera, aplikazio berezia dakarte.

**AISIALDIA** > NERABEZAROA

## Seme-alaben lehenengo irteerak gurasorik gabe

**L.Z.** > ARRASATE

Seme-alabak nerabezarora iristen direnean lagunekin irteteko baimena eskatzen hasten dira. Guraso batzuek kontzientzia lasai mantentzeko edo hazten ari direla onartu nahi ez dutelako debekatu egiten dituzte irteera horiek. Etxadi elkarteko adituek ez dute jokaera hori gomendatzen. Egingo dutenaren inguruko informazioa eskatzeko aholkatzen dute.

**INTERESA ETA ERRESPETUA**

Nora eta norekin doan, gauean zer egingo duen, noiz amaituko duen eta nola itzuliko den etxera. Gurasoek informatuta egon behar dute, batez ere nerabe gazteak badira. Garrantzitsua da nerabeen irteerekiko interesa adieraztea, baina kontuz, errespetatu ere egin behar baita nerabeak bizitzako une jakin batzuk berarentzat gorde nahi baditu.



Nerabe taldea festa baten. DEMASIADO LUNES

> HEZKUNTZA

### Aittamak 12 ikastunitateko materiala prestatu du seme-alaben eskolako ariketetan lagungarri izateko

Guraso euskaldunek, batez ere alfabetatze bidean dabiltzanek eta seme-alabei eskolako lanekin laguntzerakoan sarri erantzun barik geratzen direnek hemendik aurrera material lagungarria izango dute; Gernika-Lumoko udal euskaltegiak prestatu duen *Aittamak* izeneko 12 ikastunitateko materiala. Besteak beste, seme-alabek etxera eramaten dituzten eskolako ariketetan lagungarri izateko oinarriak jartzea du helburu ekimenak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com




**> FOLK GAUA**
Bizardunak, Levellers eta Cool circusen kontzertua; berandu baina bikain > 30



**> OSTIRAL MUSIKALAK**
Jose Agustin Gereñu 'Gere' baxu jotzailea Espoloian aritu zen > 30



**> AITZIBER GARMENDIA**
Telebistan eta antzerkian ezagun egin den aktoreari elkarrizketa > 40

# Felix Likinianoren ekintza eta ideiak, marrazkitan

**AURKEZPENA** Komikiaren bultzatzaileez gain, Likinianoren senideak ere egon ziren

**HIRUGARRENA** 1979an eta 1994an beste bi edizio argitaratu ziren; azken hau da osatuena

**JUSTIZIA HISTORIKOA** 1936ko gertakarietan anarkistek izandako papera azaltzen da komikian

**TXOMIN MADINA** > ESKORIATZA

1936ko uztailaren 17 eta 18an Espainiako armadaren zati handi batek Errepublikaren kontrako estatu kolpea eman zuenean, asko eta asko izan ziren altxamendu horren kontra egindako borroka herrikoiak, tartean Donostian, Urbieta kalean bizitakoa.

Borroka hartan parte hartutakoen artean Felix Likiniano eskoriatzarra, bere bikote Casilda Mendez eta Manuel Chiapuso anarkistak egon ziren eta hauek dira, hain zuzen ere, argitaratu berri duten *Urbieta kaleko borroka* izeneko komikiko protagonistak.

Zapatuan egin zuten komikiaren aurkezpena Eskoriatzako udaletxean eta bertan egon ziren Udaleko ordezkariak, Potxo Argitalzuloa argitaletxeko kideak eta baita Likiniano eta Mendezen senideak ere. Udaletxea bera ere ekitaldirako egoki apaindu zuten: bandera anarkista jarri zuten-eta balkoian.

**HIRUGARREN EDIZIOA**

Argitaratu duten komiki honen edizio hau baina, ez da berria, hirugarrena baizik. 1979an kaleratu zuten lehenengo aldiz Donostian eta 15 urte beranduago Bilbon, Felix Likiniano Fundazioaren eskutik. Hirugarren edizio honek baina, badu berrikuntzarik. "Errotulazioa aldatu dugu, eta euskarari ere trataera berezia eman diogu: edizio honetan, Felix Likinianok berba egiten duenean, eskoriatzarrez berba egiten du. Honetaz gainera, eta komikian jasotzen diren gertakariak hobeto ulertzeko, Luis Maria Jimenez de Aberasturi historialariaren hitzaurrea ere gehitu diogu" kontatu digu Potxo Argitalzuloa argitaletxeko Imanol Biainek. Likiniano eta Mendezen etxean abesten zuten kantu anarkista bat ere sartu dute edizio honetan.

Deigarria da era berean, komikiaren egilearen inguruan dagoen misterioa. J.J. Pi da egilearen izena, baina berau bilatzen saiatu arren, argitaletxekoek ez dute lortu berau nor den jakiterik.

**JUSTIZIA HISTORIKOA**

Iaz bete ziren 100 urte Likiniano jaio zela, eta argitaletxeak Eskoriatzako Udalarekin jardun du elkarlanean komikia ateratzeko orduan. Iñigo Biainen esanetan gainera, argitalpen honekin lortu gura izan duten gauzetako bat justizia egitea izan da. "Urte askotan zehar anarkistak ahaztuak izan dira, historia liburuetatik ia guztiz desagertu egin dira, eta hala izan ez denean, karikatura moduan agertu dira. Erakutsi gura izan dugu Francoren tropen kontra zuten guztia emanaz borrokatu zutela eta euskal anarkismoaren barruan sinbolo bihurtu zirela Likiniano, Mendez eta Chiapuso. Justizia historikoa egin gura izan dugu, behingoz dagokien lekuan jarri" azaldu digu Biainek.

**LIKINIANOREN HAZIA, KOMIKIAN**

Likiniano eta Mendezen senideek pozez hartu dute komikia. Aurreko edizioa ere bazuten, baina galduta. Iloba Martin Sansinenearen hitzetan, komikiak bere osabak ereindako hazia jasotzen du. "Nire osabak zioen gizona libre izango bada, horretarako gizontasuna eman behar zaiola, eta uste dut hori islatuta geratzen dela komikian" esan zuen Sansineneak aurkezpenean.

Edizio berri hau zenbakitutako 666 alek osatzen dute, eta Oñati Eskoriatza eta Donostiko ohiko puntuetan egongo da eskuragarri hiru euroren truke.




Zapatuan aurkeztu zuten komikia eskoriatzako udaletxean. JULIO CALLEJA

ARGITARATZAILEA

## Potxo Argitalzuloak, 14 urte alternatibo

1996an hasi zuen bere ibilbidea Oñatin Potxo Argitalzuloak argitaletxeak. Patxi Hipolito izan zen ekimenaren bultzatzailea eta bi edo hiru lagunekin batera abiarazi zuen proiektu berezi hau.

"Produkzio kulturalaren esparruan gauza bereziak egitea interesatzen zitzaigun, argitalpenak gehienbat" azaldu digu Hipolitok berak eta, gaineratu, denbora librean garatzen duten egitasmoa dela. Urte hauetan guztietan hamar lan atera dituzte, azkena zapatuan Eskoriatzan aurkeztutakoa. Momentu honetan bertan ez dute eskuartean beste proiekturik, baina abisatu dute era berean, lanean jarraitzeko asmotan segitzen dutela.









**NON:** Arrasateko Hiru aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza, uztailak 9.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Lau ordu.




Zale ugari erakarri zituen Levellers taldeak. Argazkian, kideetako bi Kataluniatik etorritako zaleekin. JULIO CALLEJA

**KONTZERTUA** > BIZARDUNAK, LEVELLERS ETA COOL CIRCUS

# Festa bikaina folk doinuekin

**I. SORIANO / T. MADINA** > ARRASATE
Esamolde baten arabera, gaizki hasten dena gaizki amaitzen da. Egubakoitzean arrisku hori egon zen Hiru arteoan; azkenean baina, Bizardunak, Levellers eta Cool Circus taldeek gaua salbatzea lortu zuten.

**ATZERAPENAREKIN, BAINA FESTA**
Hamar t'erdiak eta aretoko atea itxita. Kanpoan jendea, ulertzekoa den moduan, kexati eta haserre. Ohikoa da kontzertuak atzeratzea, baina egubakoitzekoa gehiegi izan zen. Soinu probak asko luzatu zirela-eta, gauerdian ireki zituzten ateak.

Bizardunak taldeak hasi zuen kontzertua, eta entzuleen aldartea onena izan ez arren, nafarrek giroari buelta ematea lortu zuten alkoholez bustitako folk doinuekin. *Euskalherriko oreoak*, *McGowan's basque paddys*, *Nazi de fresa* eta ezin falta *Nafarroa gure aberria*, besteak beste, jo zuten zaleen gozamenerako. Emanaldi bizia eta azkarra izan zen, Abadiñon jo behar zuten-eta gau berean.

**ROCKA, PUNKA ETA FOLKA**
Hurrengoak Cool Circus arrasatearrak izango zirela iragarrita bazegoen ere, azkenean Brightonetik etorritako Levellers taldeak hartu zion lekua. Hogei urteko ibilbidean zehar, ingelesek hainbat disko euren herrialdeko salduenen artean kokatu dituzte, eta Euskal Herriko kontzertu bakarra izanik zale ugari erakarri zituzten. Festa giroa izan zen emanaldi guztian zehar. Punka eta Ingalaterrako folka ezin hobeto nahastu eta jendea dantzan jarri zuten. Didjeridoo eta biolinaren doinuek bestelako ukitua, taldea berezi egiten duena eman zioten hainbat kanturi.

Bukatzeko herriko taldeak hartu zuen lekukoa. Folk gaua izanda, ez zen kontzertu erraza baina gogor ekin zioten eta emanaldi indartsua eskaini zuten.



JULIO CALLEJA

## Fraide bereziak Arrasateko kaleetan

Egubakoitz arratsaldean Arrasateko Seber Altube plaza inguruan ibili zen bat baino gehiago zur eta lur geratuko zen serio-serio eta sotanaz jantzitako fraide koadrila bat dantzaka eta kantuka zebilela ikustean.

Dena baina, Euskadiko Kale-Ikuskizun Onenaren saria irabazi zuen *Habitus mundi* lanaren parte. Antzezlanak adin guztietako ikusleak erakarri zituen, eta barre algara ugari eragin ere bai.

**OSTIRAL MUSIKALAK** > JOSE AGUSTIN GEREÑUREN KONTZERTUA

# Jazz azkarra gau epelerako

**NON:** Bergarako Espoloia.
**EGUNA:** Egubakoitza, uztailak 9
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**TXOMIN MADINA** > BERGARA
Jose Agustin Gereñu, *Gere*, euskal baxu-jotzaile ezagunenetako eta estimatuenetakoa da. Hori baieztatzeko, ikusi besterik ez dago bere ibilbidean zehar zeinentzat jo izan duen. Ruper Ordorikaren Mugalarietako kidea izandakoa, besteak beste Luz Casal, Joan Baez, Kepa Junkera, David Bustamante, Mikel Erentxun eta Alejandro Sanzen biretan entzun ahal izan da bere baxua.

Azken urteotan baina, *La gran casa*, bere bakarkako lehen diskoan ibili da lanean eta disko horixe aurkeztu zuen, hain zuzen ere, egubakoitzean Espoloian emandako kontzertuan.



Baxuarekin duen maixutasuna erakutsi zuen *Gere*-k. JULIO CALLEJA

**JAZZ AZKARRA**
Besteak beste tronpeta, bateria zein teklatua jotzen zuten hiru taldekidez lagunduta, jazz doinuak izan ziren jaun eta jabe kontzertu guztian zehar. Doinu paregabeak udako gau epel baten lasai lasai entzun eta gozatzeko.

Jazz azkarra izan zen baina, gorputza geldi mantentzea zail egiten duena, eta halaxe egon ziren emanaldiak iraun bitartean Espoloian bertan eta inguruko tabernetako terrazetan bildu ziren entzuleak.

**MUSIKA** > DISKO AURKEZPENA

# Eguenean 'Azkaiter Pelox & The Road Band zuzenean' lana aurkeztu zuten, Bergaran

Azkaiter Peloxek kontzertua eskaini zuen Agorrosingo tabernako terrazan

Bergaran eta Orion eskainitako zuzeneko bi kontzertutan grabatu egin dute diskoa


Azkaiter Peloxen aurkezpen kontzertua, eguenean. ANDER MONEDERO

**A. MONEDERO/M. BITERI** > BERGARA

*Azkaiter Pelox & The Road Band' zuzenean!* izenburupean, disko berria kaleratu du Bergarako Azkaiter Peloxek. Unai Azkarate musika bergarararrak idatzitako zortzi kantu eta Vince Taylor musikari eta Crimen taldeko bertsio bana jasotzen du. Lana aurkezteko kontzertua eskaini zuen eguenean, Bergaran.

**BERGARAKO SKATE PARKEAN**

2008an aro berria hasi zuen Azkaiter Peloxek; bakarlari moduan ibiltzeaz gain, tarteka taldeka aritzeari ere ekin zion-eta. Horren emaitza da joan den astean aurkeztu zuen lana. Azkarateren esanetan, "diskoa zuzeneko bi kontzertutan grabatu genuen; bat Bergarako Laino skate parkean egindakoa eta bestea Orioko Kalakarin. 20 abesti gertatu genituen eta horietatik, 10 aukeratu ditugu, originalak eta guk idatzitakoak dira". Gaineratu du "lagunen artean" egindako diskoa dela. Bergarako, Oñatiko eta Orioko musikariek osatzen dute taldea eta disko berrian, besteak beste, bateria, armonika, perkusio, teklatua, baxua, gitarra eta koroak entzun daitezke. Uztailean bost kontzertu eskainiko ditu Azkaiter Peloxek.

> UDAZABAL

## Shake That egongo da egubakoitzean Arrasateko plazan

Kale zirkoa izango da egubakoitzean, hilak 16, Arrasateko Udazabal udako kultura egitarauaren harira. Shake That taldeak emanaldia eskainiko du, 20:00etan, Herriko plazan.

Eskarmentu handiko kaleko zirkuko bost artistek harrituta utziko dituzte arrasatearrak antzerki ikuskizun batekin. Malabarismoa, umorea eta magia nahastuko dituzte horretan, ikus-entzuleekin elkar eraginez.

> IKUS-ENTZUNEZKOA

## Gazte sortzaileendako 'Benito Ansola bekak' deitu dituzte

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak, euskara kultura zabaldu eta ikus-entzunezkoen ekoizle gazteei laguntza emateko, *Benito Ansola bekak* sortu ditu. Antolatzaileen artean, Asier Altuna *Kixi* bergararra dago.

Proiektuak irailaren 27ra arte aurkez daitezke, eta irabazleek, gehienez, 4.000 euroko laguntza jasoko dute. Sarituak Euskal Zinea eta Bideo bileran estreinatuko dira.


ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**
RENOVE PLANA


2 URTE BERME
1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF 1106
aspes
280
-105
175 €


2 URTE BERME
1200 b/min
7 Kg
A Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF 1127
aspes
350
- 105
245 €


2 URTE BERME
1200 b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F 2812
FAGOR
455
-105
350 €


2 URTE BERME
171 x 60 x 60
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AFD-1700
aspes
385
-105
280 €


2 URTE BERME
185 x 60 x 60
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FFJ-6725 NF
FAGOR
615
-105
510 €


2 URTE BERME
200 x 60 x 60
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KGM-39A77 NF
BOSCH
715
-105
610 €


2 URTE BERME
INDUKZIOA SPRING I-3LB
edesa
370
-105
265 €


2 URTE BERME
A+ Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA 6H-760 AX
FAGOR
475
-85
390 €


2 URTE BERME
A Sailkapen energetikoa
LABE ETA BITROZERAMIKA STA-1410 B/N
aspes
325
-85
240 €


110 X 70
EVA MAHAI ZABALGARRIA + 4 AULKI VENECIA
599 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

ASTE BUKAERA...

## Lander Belokirekin



Lander Beloki, Siziliara egindako bidaian. LANDER BELOKI

# "Itsasoa atsegin dut aisialdirako, bidaiak egiteko edo paseatzeko"

Lander Beloki Enpresagintzako Oñatiko Fakultateko dekanoa da 1999ko apirila ezkero

Sukaldean oso trebea dela esan digu, eta plater goxoak egiten dituela barazkiekin eta arrainarekin

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Lander Beloki (Zaldibia, 1971) Enpresagintzako Oñatiko Fakultateko dekanoa da. Hilaren 30ean hartuko ditu oporrak. "Irakasleok opor luzeak ditugula diotenei esango nieke ez dela horrela. Ikasleek oporrak hartu ondoren, lan gehiago izaten dugu", dio.

1999ko apirilean heldu zen Oñatira, Euskal Herriko Unibertsitatean doktorego tesia egin eta eskolak eman ondoren.

Fakultate bateko dekanoak ze lan egiten duen azaldu digu: "Bi lan mota egiten ditut: alde batetik, Oñatiko Fakultateko arduradun nagusia eta proiektuaren gestioaren arduraduna naiz. Kolaboratzaile talde bat daukat, eta guztion artean enpresagintzaren erronkak betetzen ahalegintzen gara; beste alde batetik, Mondragon Unibertsitateko zuzendaritza batzordeko kide naiz". Horrek guztiorrek ordu asko kentzen dizkio aisialdirako, familiarekin egoteko eta eskolak emateko. "Dekano naizenetik ez naiz irakasle moduan ibili, eta hutsunea igartzen dut; bai eskolak emateko eta baita ikerketa lanak egiteko", esan digu.

**KIROLA ETA SUKALDARITZA**

Egunero egiten du joan-etorria Donostiatik. Denbora luzea ematen du A-8 eta AP-1 autobideetan. "Autoan erlaxatu egiten naiz. Musika entzuten edo irratia entzuten egiten dut joan-etorria. Bluetootharekin deiak egiteko une aproposa ere bada", azaldu digu Lander Belokik.

Astelehenetik egubakoitzera oso berandu heltzen da etxera. Hala, astegunetan oso denbora laburra dauka seme-alabekin egoteko. Eurendako denbora aste bukaeretan topatzen du. "10 eta 8 urteko seme-alabak ditut, eta aste bukaeretan haiek dira inportanteenak", dio.

Dena den, kirolarendako eta sukaldaritzarendako denbora izaten du. "Zapatilak jantzi eta korrika egiten dut aste bukaeretan", esan digu.

Urtean zehar bizpahiru lasterketa egiten dituela esan digu: "Behin izena emanda, ze erremedio! Behobia-Donostia eta Donostiako maratoi erdia egin izan ditut". Itsasoa atsegin du: "Aisialdian aukera asko ematen ditu: paseatzeko, bidaiatzeko... Itsasoa dagoen herrialdeetara oporretan joaten gara etxeko guztiak".

**FRANTZIAKO TOURRA**

Sukaldean trebea dela esan digu. Astegunetan afaria egiten du, eta aste bukaeretan lasaiago ibiltzen da sukaldean. "Oso gustuko ditut barazkiak eta arraina, eta plater goxoak egiten ditut. Etxekoak ez dira kexatzen!", esan digu.

Kirola egitea ez ezik, ikustea ere atsegin du Enpresagintzako dekanoak. Batez ere, futbola eta txirrindularitza ditu gustuko. "Hegoafrikako munduko txapelketa ikusi dut. Aurrerantzean, baina, bizikletari egingo diot lekua. Frantziko Tourrarekin adi-adi egongo naiz. Ea, bada, Contadorrek eta Armstrongek zer-nolako ikuskizuna eskaintzen diguten elastiko horia janzteko. Pirinioetako etapak oso gogorrak izango dira", dio Belokik.

### "Haruki Murakami idazlea atsegin dut, eta orain 'Kafka en la orilla' irakurtzen nabil"

Enpresagintza Fakultatera liburu, aldizkari eta bestelako publikazio asko heltzen dira. Horietako batzuk irakurtzen ditu Belokik, baina ohe ondoko gau-mahaian Haruki Murakami idazle japoniarraren azken liburua du: *Kafka en la orilla*. "Gustuko dut Murakami. Hark idatzitako hainbat liburu irakurri ditut dagoeneko", dio. Aldi berean liburu bakarra irakurtzen du.

Musikari ere lekua egiten dio Belokik. "Autoan musika entzuten dut. Dena den, zuzeneko emanaldietara ere joaten gara. Urtero, Donostiako Jazzaldiko kontzerturen batera joaten gara. Aurten ere joateko asmoa daukagu", azaldu digu.

Enpresagintza Fakultateak eraikin berria inauguratuko du irailean. Orain lan itzela dute leku aldaketarekin. "Buru-belarri gabiltza. Irailaren 1ean eraikin berrian hasi gura dugu lanean. Dena den, lan guztia oporren aurretik egin beharko dugu. Abuztuan familiarekin noa oporretara", dio.


www.danbaka.com
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
PARTE HARTU NAHI?
Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, Danbaka Musika Lehiaketa zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.
Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com
irailak 17 izena emateko azken eguna

# iragarkilaburrak.com

## 943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
## http://www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Muntsaratzen etxebizitza salgai. 85 m2, 3 logela, harrera, sukaldea-egongela, bainugela bat eta beste komun bat, balkoi handia, garajea eta trasteroa. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 94-681 68 91.

**Altsasu.** Hiru logela, egongela bat, sukalde handia, trastelekua, balkoi bat aurrealdera eta bestea atzealdera, bajera eta kamarotea edo ganbara. Hornituta. Ekonomikoa. 948-46 09 08.

**Aramaio.** 92 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. 30 metro koadroko ganbararekin. Berritu beharra du. 99.000 euro. Jaione. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 615-73 85 77

**Aretxabaleta.** Apartamentua salgai, garajearekin. Bi logela, komuna, sukalde-egongela eta bi balkoi. Etxeak 55 metro koadro dauzka eta garajeak 25. 646 06 86 29

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659-64 67 38

**Bergaran** 70 metro koadroko etxea salgai Artekalen. Ganbara eta guzti. Eguzkitsua. Prezio oso interesgarria. 675 70 79 54 edo 943 76 14 01

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (Elondo), sukaldea (Fagor elektratresnak eta Junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. 607-71 53 53

**Durango.** Etxebizitza salgai Durangon. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita) trastelekuagaz eta balkoiagaz, eta komuna. Oso eguzkitsua da eta etxe osoak kanpora ematen du. Bi kotxerentzako garajea aukeran. Prezio onean. Telefonoa: 656-76 46 73

**Durango.** Durangon etxebizitza salgai. Andra Mari kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua 30m2ko terrazarekin. 220.000 euro. Telefonoa: 696-25 50 83

**Elorrio.** Elorrion pisu eguzkitsua, garaje eta trastelekuagaz salgai. Guztiz berriztua. Bi logela, sukalde-jangela, egongela, eta komuna. Prezio oso interesgarria. Telefonoa: 664-47 58 58 edo 615 73 27 27

**Etxarri-Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminioko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza eletrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636-15 85 35 (Bitori)

**Laruns.** Oubisque inguruan, Laruns herrian. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 5 pertsonendako egokia. Deitu 637-41 97 14 telefonora.

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19

**Tolosa.** Lau logela, bainugela, sukaldea, sala, eta terraza konpartitua. Gela guztiak, bainugela barne leihodunak dira. Etxearen aurrealdean jardina du eta atzealdean nahi denerako erabilgarri den terrenoa, guztira 500m. Oso eguzkitsua. Tolosan bertan kokatua (Espunien ondoan). Harremanetarako telefonoa: 606-96 64 32.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi) eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua.2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazko salmenta. 658-72 92 88

**Zestoa.** Etxebizitza salgai Zestoan. 85m2, 3 logela, 2 komun, sala handia, sukaldea, trasteroa (13m2) eta garaje itxia (18m2). Eguzkitsua eta oso egoera onean. Mugikorra: 679-80 91 90 edo628-06 94 12.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. 649 55 48 10

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Malvinetan, unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Ikasleak nahiago. 943 79 70 07 edo 687 60 51 24

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Biteri plazan. Sukaldea, egongela, komuna, hiru logela eta ganbara. 605-43 29 31

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Udala plazan. Hiru plaza, egongela eta bainugela bi. 619-42 14 85

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribarri etorbidean. Eskolatik bi minutura. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. 635-72 27 81

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. 676 74 99 57

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean ikasleentzat. Hiru logela dauzka. 628 09 64 44

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukalde-jangela, egongela eta bainugela. Trastelekuarekin. Harremanetan jartzeko deitu mesedez telefono zenbaki hauetara: 699-15 24 00 edo 615-73 87 01

**Bilbo.** Etxebizitza ematen da errentan Begoña auzoan, ikasleentzako. Metroko sarreratik 200 metrora. Hiru logela, egongela eta jangela. Bi komun. 605-77 55 56

**Iruñea.** Hurrengo ikasturterako pisu bat alokatzen da Iruñean,ikasleendako. Telefonoa: 948-46 08 02.

**Irurtzun.** 3 logela, bista ederrak eta herri erdian. Interesatuek 600-38 74 00 telefonora deitu.

**Loredo (Kantabria).** Etxebizitza adosatua ematen da errentan abuztuko bigarren hamabostaldirako. 649 07 97 90

**Ordizia.** Etxebizitza alokatzen da ordizian. Erdialdean, altzariekin eta igogailuarekin. Deitu 943-88 95 80 telefono zenbakira

**Osintxu.** Etxebizitza ematen da errentan. Etxe berria. Eguzkitsua eta terrazarekin. Irune. 670 02 31 90

**Peñiscola (Valentzia).** Apartamendua alokatzen da uztailean, abuztuan eta iralean. Telefonoa: 686-56 20 18

**Salou (Tarragona).** Apartamentua alokairuan Salou herrian. Igerilekuarekin eta aparkalekuarekin. Ondo hornitua. Telefonoa: 600-38 74 00

**Torrevieja (Alacant).** Torreviejan bungalowa alokagai. Hiru logela, sukalde-jangela eta solariuma dauka. Urbanizazio pribatua, berde gune eta igerilekuagaz. Telefonoa: 615-77 96 22.

**Laruns.** Mobil homea uztailean eta abuztuan errentan emateko. Etxe mugikorra Frantzian dago, Laruns herrian. Aubisqueren magalean. Bost pertsonarentzako etxea, bi logela; bat hiru umeentzat eta bestea bi pertsonentzat egokia. Bi komun, batean dutxa eta bestean komuna. Sukaldea, egongela eta terraza dauka. Interesatuak deitu telefono honetara: 637-41 97 14

### 104. ERRENTAN HARTU

**Altsasu.** Sakanako herri tiki batean etxe bat hartuko genuke alokairuan. 615-07 20 25 (Raul) edo *eneritz_arriaran @hotmail.com*

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500 euro ordain ditzaket hilean. Interesatuak deitu telefono honetara: 699 66 33 63

**Donostia.** Donostian alokatzeko pisu bila gabiltzan bikotea gara. Ahal izanez gero Antigua inguruan. Interesatuak deitu telefono honetara: 628-04 15 26

**Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dugun 3 neska gara eta hurrengo ikasturterako (2010 iraila - 2011 ekaina) pisu bat alokatu nahiko genuke. Pisuak 3 logela izan beharko lituzke eta ez litzaiguke inportako etxeak 4 logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. Harremanetarako deitu: 635-75 97 10

**Hernani.** Logela bakarreko pisua edo estudioa errentan hartuko nuke Hernanin, ni bakarrik bizitzeko. 27 urteko neska arduratsua naiz. Harremanetarako: *irati19@hotmail.com* edo deitu telefono zenbaki honetara: 628-33 31 56. Eskerrik asko

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko logela daukat. Arrasatearra naiz. Deitu 688 60 86 33 telefonora.

**Arrasate.** Arrasatearra pisukide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro gastuak barne. 606-74 42 37

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko, Udalpe kalean, unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin eta oso eguzkitsua. 646 01 36 27

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztail erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653-71 44 57

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Udalpe kalean, unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin. Oso eguzkitsua. 200 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 646-01 36 27

**Arrasate.** Uribe auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxebizitza handia, kalefakzioa eta elektrotresna guztiekin. Langileak nahiago dira. 657-72 51 65

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko logela daukat. Arrasatearra naiz. Interesatuak deitu telefono honetara: 688-60 86 33

**Arrasate.** Pertsona bat behar da pisua osatzeko, Udalpe kalean, unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin eta oso eguzkitsua. 646-01 36 27

**Bilbo.** Debagoieneko 2 neska pisukide baten bila gabiltza. Pisua Deustu auzoan dago, Blas de Otero kalean. 325 euro hilean, berogailu zentralarekin. 685-76 70 82 edo 680-79 48 85

**Bilbo.** Bilbo-Abando. Gela bat alokairuan ematen dut. Armairu enpotratua, internet eta kable bidezko telebistarako konexioak dauzka. Gran Viatik 50 metrora. Oso ondo komunikatuta. Oso zona lasaia da. Parkina ondoan. Sukaldea, guztiz hornituta eta jangela izateko prestatuta, erabiltzeko eskubidearekin. Igogailua. Berogailu zentrala. 380 euro hileko gastuak barne. Telefonoa: 606-25 05 84

**Donostia.** Donostian, Amaran irailetik aurrera gela bat alokatzen da urte osorako edo ikasurterako, neska batentzat, bi lagunentzako piso konpartitu batean.Gela argia da eta ondo hornituta. Telefonoa: 943-65 16 92. Hartu ezean mezua utzi.

**Donostia.** Antiguan (Lorea) alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia eskaintzen da hilean 375 eurogatik (errenta aitorpena eginez 280 euro!) uztailaren 1etik aurrera epe luzerako (urtebete gutxienez). 2 mutil langilerekin (27 eta 29 urte) partekatuko litzateke pisua. 2 bainu, egongela handia eta sukalde berri-berria. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Hots egiguzu arren lehenbailehen 626-229 258 zenbakira.

**Durango.** Pisua konpartitzen dut. Logela bat ematen dut errentan. 661-84 79 37

**Eskoriatza.** Bi logela dauzkat etxebizitza berria osatzeko. Unibertsitatetik gertu. Erdigunean. 650 82 83 48

**Eskoriatza.** Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650-82 83 48

**Gasteiz.** Gasteizen pisua osatzeko bi lagunen bila nabil. Aldabe inguruan, alde zaharretik bi minutura. Bi gela daude libre. Jende irekia eta arduratsua bilatzen dut. Ez erretzaileak. 200 euro + gastuak. Telefonoa; 609-59 46 37

**Oñati.** Logela bat alokatu edo beste norbaitekin etxebizitza osatuko nuke. Interesatuak deitu telefono honetara: 606 15 11 47

**Tolosa.** Logela alokatzen da pisua konpartitzeko. Pisuak, 4 logela, egongela, sukalde, bainugela bat, eta terraza ditu. 606-96 64 32

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi auto sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Anagatik galdetu. 662 34 77 77

**Durango.** Aukera handia. Txibitenan (Jesuitak ikastetxearen ondoan) garaje bat saltzen dugu. Plaza irekia eta oso ona. 660 38 59 95 edo 660-38 60 43.

### 202. EROSI

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. 647-24 40 54

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 103 metro koadroko lokala salgai Burdiñaten. Bulegorako edo eskolak emateko prestatua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 80 57 71.

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. 657-77 97 52

### 303. ERRENTAN EMAN

**Etxarri-Aranatz.** Etxarri Aranazko lokal bat alokatu, lekualdatu edo saldu egiten da. Prezioa adosteko. Deitu 628-56 47 35 telefonora.

**Arbizu.** Sakanako autobidearen ondoan roullotak, autokarabanak gordetzen ditugu eraikin batean. 680-54 67 77

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Mañaria.** Etxeko lanak eta umeak zaintzeko pertsona behar dugu lan egun osorako. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:658-73 21 90

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat.618-00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699-54 17 27

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. 697-54 28 76

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askoan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke Debagoienan. Edorta. *edortamendi@yahoo.es* 617-89 41 03

**Arrasate.** Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695-75 42 45

**Arrasate.** Neska ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko gertu. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618-00 08 28 edo 943-79 82 43

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaindu edo etxekolan eta garbiketak egiteko debagoienan. 678-80 11 54

**Arrasate.** Neska gertu elkarte, atari edota tabernak garbitzeko. 699-60 91 90

**Arrasate.** Neska lanerako gertu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edota taberna zein jatetxeak garbitzeko. 610-12 06 73

**Arrasate.** Sukalde laguntzaile, garbiketa eta abarretan jarduteko gertu. Bi urteko esperientzia sukaldean. Autoa daukat. 666-21 88 95

**Arrasate.** Igeltsari ofizial, leunketa eta bestelako lanetan jardungo nuke. Rolando. 639-41 68 38

**Arrasate.** Arrasate edo Bergara. Ekainean eta uztailean umeak zaintzeko edo ume txikiei eskola partikularrak emateko prest dagoen neska euskalduna naiz. 618-43 60 35 edo 943-76 32 27

**Arrasate.** Debagoiena 32 urteko mutil euskalduna gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanak egiteko gertu, etxean edo baserrian. Erizaintzako modulua egiten ari naiz. Abuztuan ere bai. 619-08 40 08

**Arrasate.** Umeak zaintzeko edo ume txikiei klase partikularrak emateko prest nago ekaina eta uztailean. 618-43 60 35 edo 943-76 32 27

**Arrasate.** Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Esperientzia handia. 680-49 11 45

**Arrasate.** Arrasate edo Bergara. Emakumezko batek etxeko lanak egingo lituzke. Interesatuak deitu telefono honetara: 615-72 15 17

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943-53 33 92

**Ataun.** Ataungo emakume euskalduna eskaintzen da sukalde laguntzaile, ume zain edo adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 943-18 02 53 edo 663- 88 85 44

**Alegia.** Neska euskalduna udan umeak zaintzeko eskaintzen da, Tolosaldean edo Goierrialdean. Esperientziaduna. 618-17 46 36

**Azpeitia.** 18 urteko neska euskaldun bat, haurrak zaintzen espezializatua dagoena, udan goizez haurrak zaintzeko prest dago. Interesatuak deitu: 665-71 08 96.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606426414

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637-18 07 23

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuak deitu telefono honetara: 637-18 07 23

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650-23 34 98

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. Interesa baduzue deitu zenbaki hauetara: 618-09 47 87 edo 943-78 15 10

**Debagoiena .** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666-08 58 49

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696-48 42 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukaeretan lan egiteko gertu. 699-60 91 90


KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko 85 $m^2$. Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta. 85 $m^2$. Berritua.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.



DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

**Beasain.** Adinekoak edo haurrak zaindu nahiz garbiketa lanak egiteko esperientzidun neska lan bila dabil. Erreferentzi onak ditu. 649-07 31 33

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 677-73 79 59

**Bergara.** Ekainean eta uztailean eskolak partikularrak emango nituzke, lehen hezkuntzatik batxilergora arte. 671-41 22 17

**Bergara.** Neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest Interesatuak deitu telefono honetara: 615-76 29 25

**Bergara.** Neska bergarar euskalduna (magisteritza haur hezkuntzan diplomatua eta esperientziarekin) uztaileko arratsaldetan haurrak zaintzeko gertu. 636-27 43 88

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943-76 28 12 edo 943-76 29 52

**Bergara.** Neska hainbat lan egiteko egiteko gertu: nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanak egin. Esperientzia dut eta erreferentzia onak ditut. Deitu 677-73 79 59 telefonora.

**Berriz.** Andre euskalduna hiru edo lau orduan umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko prest. Telefonoa: 94-622 57 24 edo 680-50 95 32 (Izaskun)

**Durango.** 51 urteko emakume euskalduna ospitalean dauden gaixoak zaintzeko prest. Telefonoa: 661-17 21 05

**Durango.** Arratsaldez etxeko lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko prest nago. Abuztuan goiz eta arratsaldez. Telefonoa: 673 689 769

**Durango.** Abuztutik aurrera marinero moduan lan egiteko prest. Ikasketak ditut, esperientziaduna. 637-02 93 73

**Durango.** Garbiketa lanak egiteko prest tailer edo tabernetan. Telefonoa: 647-24 23 01

**Durango.** Pertsona edadetua bazara, bakarrik sentitzen bazara eta ez baduzu inor zaindu zaitzan, deitu iezaidazu. Telefonoa: 649-13 53 81

**Durango.** Gizon heldu bat adineko pertsonak zaintzeko prest dago, asteburuetan, jaiegunetan eta abuztuan hilabete osoan. Telefonoa: 690- 28 60 71

**Durango.** Andre euskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduak... Zaintzeko prest nago. Urte askoko esperientzia daukat eta lehenbailehen hasteko prest nago. Interesatuak deitu 699-74 57 23 telefono zenbakira.

**Elorrio.** Neska esukalduna abuztuan haurrak zaintzeko eta partikularrak emateko prest dago. Nirekin kontaktuan jartzeko, 600-36 13 81 telefonora deitu.

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Orain hasteko edo irailetik aurrera. Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda daukat, eta gaur egun Hezkuntza Bereziko ikasketak egiten ari naiz. Interesa baldin baduzu, jarri zaitez nirekin kontaktuan. Honako hau da nire telefono zenbakia: 688-64 06 04 (arratsaldetan deitu).

**Gasteiz.** Tabernako barran esperientzia duen gazte bat naiz,gazteizeko festetan kamarero bezala lan egingo nuke, interesatuak deitu zenbaki honetara: 688-63 84 18

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 635-70 07 92

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut uztailean; esperientzia handia. Neska euskalduna naiz, ikaslea. 651-70 85 13

**Tolosa.** 29 urteko neska lan bila dabil, ume zaintzen, etxeak garbitzen, tabernan... Denetan experientzia daukat. Interesatuak deitu 635-70 22 50 telefono zenbakira.

**Zaldibar.** Neska euskaldunak uztailean, eta iraileanjarraitzeko aukerarekin, umeak zaintzeko edota partikularrak emateko eskaintzen du bere burua, Lehen Hezkuntzatik DBHra arte; 3 urteko esperientzia daukat. Harremanetan jartzeko: 610-00 44 43.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:658-73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**DBHko eskolak** jasoko nituzke. 18:00etatik aurrera deitu. 605 26 24 62.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergorainoko eskolak ematen dira, udan eta ikasturtean zehar. 653-01 76 67

**Arrasate.** Neska euskaldun esperientziaduna prest ekainaren 3tik uztailaren 31ra arte 2. batxilergora arteko eskola partikularrak emateko. Joana. 669-20 63 21

**Arrasate.** Debagoienan 21 urteko neska euskalduna eta ingeniaritzako ikaslea uztailean klase partikularrak emateko prest. Deitu: 686-28 76 80

**Arrasate.** Arrasateko eskolatan esperientzia duen irakaslea udan eskola partikularrak emateko prest. Edozein ikasgai. 635-75 05 26

**Arrasate.** Esperientzia handia duen irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, urte osoan eta udan. LH eta DBH. 943-78 28 43

**Arrasate.** Baxu elektronikoaren teknika, eskalak eta doinuak nahi badituzu ikasi, deitu. Aitor. 617-81 38 02

**Azpeitia.** Euskarako klase partikularrak ematen ditut, besteak beste, behar hauek dituztenentzat: EGA edo hizkuntza-eskakizun bat atera nahi duenari, bere euskara maila idatzia edo ahozkoa hobetu nahi duenari, eskolan euskara ikasgaia gainditzeko arazoak dituenari, eta abar. Magisteritza daukat eta euskaltegiko irakaslea naiz. Gipuzkoa osoan mugitzeko prest. Kontaktua: Mikel.645-71 85 78

**Azpeitia.** Gizartea, natur zientziak, gaztelera, euskara, ingelesa, frantsesa, filosofia, geografia, edo historiako klase partikularrak ematen ditut. Esperientziaduna eta letretan lizentziatua. 652-76 88 98

**Bergara.** Bergaran Ingeleseko Elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. Telefonoa: 654-94 87 26

**Bergara.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak ematen ditut. 666-21 73 48

**Bergara.** Marrazketa eta pintura eskolak ematen dira uztaileko 1. hamabostaldian, 10:00-12:00. Arrizuri 5, 1. A c. 651-74 21 54

**Bilbo.** Euskara klaseak ematen ditut errefuertzo eta gaia errekuperatzeko. Lehen hezkuntzan DBHn eta batxilergoan baita EGArako prestakuntza ere, eta mintzapraktika. Telefonoa 606-25 05 84. Bilbon uda osoan goizez zein arratsaldez.

**Debagoiena.** Ingeniari teknikoa udan klase partikularrak emateko prest. DBH eta batxilergoan esperientzia. 685-70 17 09

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. 635-74 61 76

**Durango.** Udan errefortzu klaseak emateko prest nago. 3 urteko esperientzia daukat, 22 urte ditut eta magisteritza amaituta daukat. Klaseak euskaraz edo gazteleraz ematen ditut, eta ikasgai guztietakoak. Interesa baduzu deitu 615-73 53 85 telefonora.

**Durango.** Ingeniaritza ikasten ari den neska euskalduna udan klase partikularrak emateko prest durangon. LH, DBH eta batxilergoko ikasleei zuzenduta, ondorengo gaien inguruan: matematikak, fisika-kimika, euskara, gaztelera, ingelesa etab. Telefonoa: 635 20 50 12.

**Durango.** Magisteritza ikasten dabilen neska gaztea, abuztuko lehen hamabostaldian umeak zaindu edota klase partikularrak emateko prest. 686-74 16 76 Amaia

**Gernika-Lumo.** Lehen Hezkuntzan eta musika hezkuntzan diplomatua eta esperientziaduna klase partikularrak emateko, umeak zaintzeko edo euskal herriko edozein gunetan irakasle bezala lan egiteko prest. Interesatuak deitu 687-95 06 05 telefono zenbakira.

**Oñati.** Ingeniaritzako titulua eta irakaskuntzan esperientzia handia duen neska udan dbh eta batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Matematika, fisika, marrazketa eta abar. 678-27 27 57

**Ormaiztegi.** Lehen eta bigarren hezkuntzarako errefortzu klaseak ematen dira ormaiztegin ekainean eta uztailean. Deitu: 696-59 78 78

**Usurbil.** Euskal Filologian lizentziatua naiz eta irakaslea. Klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. 635-75 25 67

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna.Telefonoa: 664-16 02 68,eta posta elektronikoa: *continental56@hotmail.com*

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autoa salgai.** Salgai Seat ibiza. Diesela. 5 ate. Aire egokitua, 2000.koa, 270.000 km. Distribuzio korrea aldatua. 90cc, egoera oso onean. Deitu: 650-40 28 57

**Autoa salgai.** Astra txuria, gsi 2.0, 16 balbulakoa salgai. Deitu 652-97 45 24 telefonora.

**Elbarrituentzat egokitutako** Fiat Ulysse furgoneta saltzen dut. Atzeko kajoia, ispilu elektrikoak, ABS, kristal elektrikoak, lainoaren aurkako argiak, IAT eguneratuta 2012ra arte, GPSa, mp3, irratia, DCa, klimatizagailua. Egoera onean. Preziointeresgarria. 657-79 80 38.

**Peugeot 406** salgai. Turbo Diesel 2,1. Aleaziozko llantak. Aire girotua. Ekipamendu osoa. 1998koa. 193.000 km. Egoera onean. 2.000 €. Interesatuak deitu 619 59 16 88 zenbakira.

**Peugeot Boxer 2.5 TDfurgoneta salgai.** Sukaldea, hozkailua, komuna eta 4 pertsonarendako ohea. 6 bidaiarirendako homologatua. Bizikletak eta eskiak eramatekoa, atzeko bola, goiko parrilla eta alarma. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 653-73 08 04

**Peugeot Eliseo Maxi Scooterra salgai.** 50 cc. 2000 urtekoa, 3.000 kilometro ditu, berri-berria dago. Motor handiagoa erostearren saltzen dut. Prezioa: 1.000 euro (negoziagarri). Harremanetarako telefonoa: 675-00 88 04

**Honda Rincon ATV quad-a salgai.** Honda Rincon ATV quad-a salgai. Bost urte ditu eta berri-berria dago. Prezioa: 4.600 euro. Telefonoa: 675-00 88 04

**Land Rover Defender luzea salgai.** Land Rover Defender TD-5 luzea salgai; 9 plaza; 2002 urtea; 145.000 km; 110 zaldi ; egoera ezin hobea; hobeto ikusi; 11.000 euro. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 652-73 82 74 (Iker)

**Renault Master autokarabana salgai.** Renault master autokarabana salgai. Oso egoera onean. Informazio gehiago: *arrieta@euskalnet.net* edo 655-72 52 52 telefonoan (Edurne).

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Artzain-txakur alemaniarrak.** Alemaniar artzain txakurkumeak salgai, pedigridunak. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 695-78 63 72

**Bulldog frantsesak salgai.** Bulldog frantsesak saltzen ditut prezio onean. Interesa badaukazu deitu 639 75 73 35 telefonora.

**Kanarioak saltzen dira.** Kanarioak saltzen dira prezio onean, interesatuak deitu telefono honetara: 689-58 60 54

**Pit-bulla salgai.** Atigratua. Bi hilabete ditu. Enrique. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 685-79 74 63

**Spaniel** txakurkume arrak salgai. 2010eko maiatzaren 15ean jaioak. Zuri-beltzak. Arkaitz. 610 36 39 94

### 703. EMAN

**Artzain txakurkumea oparitzen da.** Artzain txakurkumea oparitzen da. Hilabete pasatxo dauka. Oso polita. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 626-11 38 69

**Bi katakume oparitzeko.** Katakume bi oparitzen ditut. Oso sozializatuta daude. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 94-622 51 88

**Etxeko katuak ematen dira.** Interesatuak deitu 94-682 79 66 telefono zenbakira.

**Katakumeak oparitzen dira.** Lau katakume oparitzen ditugu. Interesatuek 948-46 04 70 telefonora deitu.

**Labrador arrazako zakurra oparitzen da.** Labrador arrazako zakurra oparitzen da, pertsona arduradunari. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 689-89 24 34.

**Txakurkumeak opari.** Txakurkumeak opari, 3 eme eta 2 ar. 2010-05-14an jaioak. Harremanetarako deitu 678-63 69 65 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoia salgai.** 120 baxu, B-14C. Murriztua. Interesatuok deitu zenbaki honetara 647 51 52 80.

**BMX** bizikleta salgai, ez delako erabiltzen. Oso egoera onean dago eta ez du erabilpen handirik izan. Manillar, kubierta eta freno berriekin 130 eurotan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 71 81 15.

**BMW 4 llantak (17 pulgada) salgai.** BMW 4 llantak (17 pulgada) salgai. Berriak daude. Prezio negoziagarria. Telefonoa: 619-18 77 99

**Bizikletan ibiltzeko arropa salgai.** Bizikletan ibiltzeko arropa salgai (kamisetak, kuloteak, txaketak,...), Euskaltel markakoak. Oso berriak eta XXL neurrikoak. Interesatuek, deitu 637-94 80 12 telefono zenbakira.

**Baby-cook berdea.** Umeen janaria gertatzeko irakingailu eta irabiagailua. Egoera oso onean. 80 euro. Arratsaldez deitu, mesedez. 607 06 22 20.

**Bateria salgai.** Oso egoera onean dago eta ia ez du erabilpenik izan, pare bat hilabete gutxi gorabehera; eta prezio ezin hobea, merke-merke. Stagg markakoa da eta prezioa negoziagarria da. 600 71 81 15.

**Bulegoko altzariak.** Bulegoko mahai eta altzariak saltzen dira. Ezkina egiten duten bi mahai eta zortzi aulki. Guztia 400 euro. Harremanetarako deitu telefono honetara: 607 61 56 37

**Egongelako altzariak.** Izkina egiten duen bost plazako sofa, mahaia, apalak eta bitrina saltzen ditut, guztia 300 €. Oso egoera onean. 656 78 55 85.

**Gurpildun aulki elektrikoa** salgai. 2009ko azaroan erositakoa; berria, inoiz erabili gabekoa. Prezio onean. Galdetu Asierrengatik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 76 00 16 edo 943 25 23 64.

**Hozkailua eta garbigailua salgai.** Etxe aldaketa dela eta hozkailu eta garbigailu ia berriak saltzen ditut. Informazio gehiagorako deitu 699-32 88 90 telefono zenbakira.

**Haurra eramateko mendiko motxila salgai.** Haurra eramateko motxila saltzen da, egoera onean. Deuter kid confort ii plus markakoa. 90 €. 696-63 98 94

**Ile-apaindegiko aulkiak** salgai Debagoienean. Egoera onean daude. Marian. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 76 11 56.

**Korrika egiteko zinta.** Domydos etxekoa. Oso gutxi erabilia. Berria. 400 euro. 659 79 48 75.

**Lurrean lo egiteko bakarrik puzten diren 2 aislante salgai.** Helduentzako lurrean lo egiteko bakarrik puzten diren 2 aislante salgai. Neurriak: 196 zm luzeran, 58 zm zabaleran, 4,5 zm lodiera. Behin bakarrik erabiliak. Decathlon etxekoak, berriak 35 euro balio ditu. Guk bi ditugu eta bakoitza 25 eurotan saltzen dugu. 686-89 77 32.

**Mahaia salgai.** Gerezi kolorekoa. 1,36x90 cm gehi luzagarria. Asier. Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 17 15 88.

**Maxi-cosia.** Jane etxekoa. Gorria. Kotxerako aulki bezala erabilgarria. 0+ taldekoa. Euritarako plastiko eta polar zakuarekin. Ia berria. Dena 100 euroan. Arratsaldez deitu, mesedez. 607 06 22 20.

**Mendiko motxila** salgai. Haurra eramatekoa. Ondo dago. Deuter Kid Comfort II Plus markakoa. 90 €. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 63 98 94.

**Monty.** Monty aluminiozko 219 alp bizikleta salgai. Prezioa: 325 euro. 606-30 74 39

**Motokultorea.** Motokultore agria 2700 Diesel eta Motoaitzur agria 3000 prezio honean saltzen dira. 94-682 45 90 (Luis)

**Mikrouhin-labea** salgai. Berria dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658 74 26 44.

**Sofa.** Bi jarlekuko sofa beltza salgai. Berri-berria eta garantiarekin. 85x165 cm. 653 74 35 80.

**Sofa salgai.** Hiru eserlekuko sofa salgai. Chaisselonge-arekin. 272 zentimetroko luzera. 350 euro. Arrasaten. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara:626-71 98 17

**Telebista eta minikatea.** 25 hazbetekoa. LTDa. Egoera onean. 90 euro. Minikatea, CD eta MP3arekin. Erabili gabea. 45 euro. 648 13 11 51

**Umeen aulkirako patina.** Beltza. L-Rossi etxekoa. Ia aulki guztiekin bateragarria. 25 euro. Arratsaldez deitu, mesedez. 607 06 22 20.

**Zinta elektrikoa.** Korrika egiteko zinta elektrikoa salgai. Segurtasun gelditzea dauka. Tolesgarria. Erroberak eta pantailadun konputagailua. 400 euro. 619-52 98 04

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa** erosi edo errentan hartuko nuke. Amaia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 32 75 56.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

**Lursaila** erosiko nuke Bergaran, Arrasaten edo Elgeta inguruan. 618 05 65 17.

**Hozkailu merkea.** 2 ateko hozkailu merkea erosiko nuke, gehienez 100 euro. *donostikojon@gmail.com.* Jon

### 804. HARTU

**Baratzeko tresnak behar ditut trukean.** Zuk erabiltzen ez dituzun baratzeko tresnak behar ditut: atxurrak, eskuarea, sardea... trukean nire herriko gazta eta txorizoa eta Errioxako ardo kutxa bat emango dizkizut. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:616-05 98 11

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Eskumuturrekoa (pultsera) galdu nuen ekainaren 18an Pausoka eta Basabeazpi ikastetxeen artean. Aurkitu duenak udaletxera eroan dezala, mesedez.

**Argazki kamera.** Ekainaren 26an Urbiara bidean argazki kamera digitala galdu genuen. Lumix etxekoa da. Baten batek topatu badu, deitu, mesedez, telefono zenbaki honetara. Eskertuko da. 636 43 85 40.

**Betaurrekoak.** Aiba mendi martxan, graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen, zorroan sartuta. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala. Mila esker. 943 53 42 55 edo 636 38 20 23.

**Betaurrekoak** galdu ditut, eguzkitakoak eta graduatuak. Mundumirako aste bukaeran galdu nituen, Bergaran edo Antzuolan. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala. Mila esker. 943 76 17 77.

**Txamarra Aretxabaletan.** Ekainaren 18an, eguena, arratsaldean, Aretxabaletako Iturrigorri frontoi inguruan 12-14 urteko Ternua markako txanodun txamarra gorri berria ahaztu nuen. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala. Mila esker. 697 83 36 66.

**Zapata gorria** galdu nuen Aretxabaletan. 19 zenbakia, Chupetin markakoa. Mesedez, norbaitek aurkitu baldin badu, deitu. 649 96 07 57.

**Mugikorra Arbizun.** Arbizuko san joanetan mobil bat galdu zen, funda gorri bat zuela, karrika tabernan. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala. Mila esker. 948-56 70 99.

### 807. AURKITU

**Ondarreko jaietan** umeen plastikozko motor bat agertu zen auzoan. Galdu duenak (gurasoetako batek, jakina) dei diezadala. 650 31 03 43.

### 808. BESTELAKOAK

**'Mobil homea'** ematen da errentan uztail eta abuzturako. Aubisque inguruan, Laruns herrian. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. Bost pertsonarendako egokia. Interesatuok deitu 637 41 97 14 telefono zenbakira.

**Lursaila.** Ortua egiteko lursaila eskaintzen da Arrasate erdigunean. 647 57 84 81.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Neska bila.** Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako, interesatuak idatzi mezu bat *mgpelmaz@gmail.com* helbide honetara.

### 903. DEIAK

**Futbitorako neska bila.** 2010-2011 denboraldirako, nesken futbito talde federatua mantentzeko neska bila gabiltz. Momentuz lau gara. Animatu zaitezte. Informazio gehiagorako jo *www.kuru.es* webgkunere.

**Bilbo-Donosti lanegunetan.** Egunero Bilbotik Donostira, antiguo-unibertsitate ingurura joateko jende bila: irten 7ak aldera; bueltan 15:00-15:30 aldera. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 658-73 67 99

**Zarautzera lanegunetan.** Tolosaldetik edota Goierritik Zarautzera autoz joateko jende bila. Irten, 07:00etatik 08:00etarako tartean; handik, bueltan, 15:00etatik 16:00etara. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 688-60 67 15.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edoikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

LAZKAO
INMOBILIARIA
365 API

IDIAZABAL
bifamiliarra
ondo kokatua
4 logela
garaje eta txokoa
ATAUN
4 solairu
garaje eta txokoa
298.000 €
Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao • 943-88 37 39
www.lamylazkao.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96
www.inmosalbide.com
**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.
**Aizarnazabal.** AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Azken Portu. Logela bateko etxe handia. Altua eta bista ederrak. Trastelekua eta igogailua. 47.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.
**Zarautz.** Kasino kalea. 3 logelako etxebizitza ikusgarria, azkeneko solairuan. Terraza eta garajearekin. Egutera.
**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.
**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.
**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
**PORTUAN** Kontxara. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000 pta
**AMARA** Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 37.050.000 pta
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora. 39.990.000 pta
**AMARA** Altua. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 46.500.000 pta
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 51.800.000 pta
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berogailua. 49.500.000 pta
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, 2bainugela. Terraza. 53.600.000 pta
**ANTIGUO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 59.800.000 pta
**ERDIALDEA** Hondarribia k/. 3 logela, sukaldea, bainugela. 12m2tako terraza Buen Pastorrera 72.000.000 pta
**EGIA** Virgen Carmen. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 45.000.000 pta
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Sartzeko. 41.600.000 pta
**GROS** Hondartzatik hurbil. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. 39.500.000 pta
**INTXAURRONDO**. 2 logela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 41.500.000 pta
**BIDEBIETA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. Berritua. 33.400.000 pta
**ALTZA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 25.500.000 pta
**PASAI DONIBANE** Bistak itsasora. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 30.990.000 pta
**LEZO** Baserri etxea. 4 logela. 200m2 lursaila. Bistak. Eguzkitsua. 42.500.000 pta
**ALOKAIRUAN**
**AMARA** Ikasleak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 750€.
**ALDE ZAHARRA** Ikasleak. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 800€
**AMARA** 3 logela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 850€
**LEZO** Logela, sukaldea, bainugela, igogailua. 550€
**TRINTXERPE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 575€
**GROS** Ramon Mª Lili. 2 logela, sukaldea, 2bainugela. 1.000€
**PASAI ANTXO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 790€
**ERRENTERIA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 700 €
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | 1 | | | | 4 | | 8 |
| | | | | 4 | 9 | | | |
| 7 | | | 1 | | | | | 2 |
| | 2 | | 9 | | 5 | 3 | 8 | |
| | 5 | | | | | | 4 | |
| | | 6 | 4 | | 2 | | 7 | |
| 3 | | | | | 7 | | | 4 |
| | | | 2 | 8 | | | | |
| 8 | | 5 | | | | 7 | | 1 |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



* UDAN
Ez militarra
Sitsak
Bakioko
Iratzea
Aske utzia, askatua
Intsektu mota
Faltsuak
Fijiako
Berako auzoa
Ahari zikiratu
Puska
Jariatzen
Toka, ditut
Jardun
Tantaloa
Errep., kontsonantea
Gipuzkoako herria
Irakurtzeko zernahi
Diosal hitza
Uranioa

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Musean



## hizki salda

Ortuan erabiltzen diren bost tresna.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | A | U | A | X | T | U | Z | K |
| S | I | P | I | K | O | T | X | A |
| K | A | I | T | T | P | X | K | K |
| U | R | E | Z | T | A | I | L | U |
| A | U | S | U | U | L | U | A | E |
| R | A | U | R | E | A | X | R | R |
| E | Z | X | T | L | U | R | I | P |
| A | I | E | Z | P | K | A | T | A |
| U | A | O | T | T | I | P | T | L |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | A | U | A | X | T | U | Z | K |
| S | I | P | I | K | O | T | X | A |
| K | A | I | T | T | P | X | K | K |
| U | R | E | Z | T | A | I | L | U |
| A | U | S | U | U | L | U | A | E |
| R | A | U | R | E | A | X | R | R |
| E | Z | X | T | L | U | R | I | P |
| A | I | E | Z | P | K | A | T | A |
| U | A | O | T | T | I | P | T | L |

**Hieroglifoa:** EnbidoHotz ez

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 6 | 1 | 7 | 2 | 3 | 4 | 9 | 8 |
| 2 | 3 | 8 | 6 | 4 | 9 | 5 | 1 | 7 |
| 7 | 4 | 9 | 1 | 5 | 8 | 6 | 3 | 2 |
| 4 | 2 | 7 | 9 | 1 | 5 | 3 | 8 | 6 |
| 1 | 5 | 3 | 8 | 7 | 6 | 2 | 4 | 9 |
| 9 | 8 | 6 | 4 | 3 | 2 | 1 | 7 | 5 |
| 3 | 1 | 2 | 5 | 9 | 7 | 8 | 6 | 4 |
| 6 | 7 | 4 | 2 | 8 | 1 | 9 | 5 | 3 |
| 8 | 9 | 5 | 3 | 6 | 4 | 7 | 2 | 1 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | B | ■ | P | ■ | G |
| | | | Z | I | B | I | L | A |
| | | | ■ | K | A | P | A | R |
| ■ | F | ■ | Z | I | K | I | R | O |
| L | I | Z | U | N | I | A | G | A |
| ■ | J | A | R | I | O | K | A | ■ |
| D | I | T | I | A | T | ■ | T | A |
| ■ | A | I | A | ■ | A | G | U | R |
| I | R | A | K | U | R | G | A | I |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Hausnartzeko eta etorkizunerako erabakiak hartzeko bakarrik egon nahi duzula? Ondo dago, baina hori ez da inorekin haserretzeko arrazoia.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Une egokia da aurretik egindakoaren emaitzak biltzeko. Klasean, beti begira izaten duzun hori. Zergatik ez zara harengana joaten jolas-orduan? Bera desiratzen dago.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Birmoldatu itzazu zure asmoak behar beste, arrakastatsuak izan daitezen. Ez da denbora galtzea izango, zure helburuak lortzen lagunduko dizu horrek.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Esku artean duzuen horretan zuk egindakoak ez zaitu asetzen. Zure ustez, ez zaituzte kontuan hartu merezi zenuen beste. Ondo pentsatu guztia utzi aurretik.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Segi gogor lanean zure helburuak lortzeko, gutxien espero duzunean saria eskuratuko baituzu. Ez laga oporren prestaketa azkenengo momenturako.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Ez ibili bueltaka gauzekin eta gozatu orain arte lortutakoarekin. Estimatu daukazuna. Maiteminduta zaude, eta onartu egin behar duzu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Ondo dago jendearekin lan egitea gustuko izatea, eta traturako daukazun gaitasuna lantzea, baina ikas ezazu erabakiak zuk zeuk hartzen eta ondorioei aurre egiten.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Oso pozik zaude zeure buruarekin eta zeuk lortutakoarekin. Erabili atsedenaldia egunerokotasunetik aldentzeko eta indarberritzeko.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Ez etsi gauzak ez direlako izan zuk uste bezala, eta erabili atzerapen hori hausnartarako. Ikasi zure akatsetatik asmoak hobetzeko.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Zure arazoen errua ez da besteena. Pentsatu zer egin dezakezun horiek konpontzeko. Utzi gauzak erosteari eta gorde ezazu dirua beste gauza garrantzitsuagoetarako.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Zalantza asko daukazu nahi duzunaren inguruan. Ez ezazu erabikirik hartu guztia erabat argi eduki arte. Hartu denbaroa lasai hausnartzeko.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Orain artekoa ona den arren, ez lasaitu gehiegi. Gozatu baina egin beharrekoa utzi gabe. Inbertitzea pentsatu duzu? zer egingo duzu hainbeste dirurekin!

## gazte zerbitzua

**AISIALDIA**

**> Txartelak.** Udarako oso erabilgarri izango dituzun aterpetxe txartelak eta ikasle txartelak egiteko aukera duzu Gazte Bulegoetan. Momentuan egiten dira, baina garaiz ibiltzea komeni da, arazorik ez izateko!

**LANA**

**> Gazteria teknikaria.** Oñatiko Udala. Gaztelekuko ardura eramango duen pertsona aldi baterako kontratatzeko deialdi irekia. Epea: uztailaren 21a.

**> Formakuntza arduraduna.** Hezkide Eskola. Denbora libreko bolondresen formazioaren arduradun postua betetzeko deialdia. Epea: uztailaren 17a.

**> Hizkuntza kargudunak.** Euskararen Erakunde Publikoa. Euskararen Erakunde Publikoak bi hizkuntza kargudun behar ditu. Epea: uztailaren 13a.

**BEKAK**

**> Ikerketa.** Elhuyar Fundazioa. I+G unitatean etorkizuneko webari buruzko ikerketa-lanak egiteko bi beka. Informatika eta telekomunikazio ingeniariei zuzenduta, bai karrera amaitu berri dutenei, baita karrera-amaierako proiektua garatzen ari direnei ere. Epea: uztailaren 15a.

**> Itzulpengintza.** Europar Komisioa. Baldintzak: unibertsitate ikasketak burutuak edo azken urtean egonda, bi hizkuntza menperatzea. Epea: uztailaren 16a.

**LEHIAKETA**

**> Kartelak.** Hondarribiko Udala. 2010eko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Epea: uztailaren 22a.

**> Bideoklip maratoia.** KREA Expresión Contemporánea. 2010 edizioaren barruan kokatuko den gaueko maratoian emango diren bideoklipak hautatzeko deialdia. Epea: Uztailaren 31a

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 12



**> Alvaro Arrizabalagari elkarrizketa**
**19:45, 21:30**

Oxfordeko Unibertsitateak adierazi du Arrasateko Labeko koban aurkitutako tresnak duela 45.000 urtekoak direla.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Zartzuela
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** San Pelaio jaiak.
**18:15** Erreportajea: Coupage.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Harmailatik
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 13



**> Miren Amuriza bertsolaria 'Ilunpean' saioan**
**22:30**

*Ilunpean* saioan Jon Berezibar kazetariak elkarrizketa egingo dio Miren Amuriza aktore eta bertsolariari.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta Lur
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Eskuokin
**17:55** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 14



**> Iñurritzako bertso jaialdiaren gaineko saioa**
**23:15**

Goierri telebistak ekoiztutako saioan, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia eta Hodei Iruretagoiena.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean
**15:50** Onein.
**16:20** 28 klip
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Kanaldude: leihotik
**22:45** Kanaldude.
**23:15** Bertso saioa
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 15



**> Hiru erreportaje 'Gipuzkoakultura' saioan**
**13:15, 22:15**

*Gipuzkoakultura* saioak San Adrianen egin duten ikerketa historiko-arkeologikoa landuko du, hiru erreportajeetako batean.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Mendialdean bizi.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Kanaldude.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Eskuokin.
**18:00** Onein.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Animalia.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:00** Erloklip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 16



**> Ehun milak probaren gaineko elkarrizketa**
**22:45**

Mikel Valdivieso da uztailaren 16an Beasainen hasiko duten Ehun Milak probaren antolatzailea; Goierri telebistak elkarrizketa egin dio.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Animalia.
**14:15** Onein
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Jazz jaialdia.
**16:15** Mendialdean bizi: Lesaka.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Zartzuela
**22:45** Kiroleroak.
**23:45** .Goiena Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Aquariumerako eta igerilekurako sarrerak, musika, eta Tourreko Euskaltelen elastikoak opari**

Eskaintza freskagarria egingo die oraingo astean irratiak entzuleei: Donostiako Aquariumerako sarrerak, eta igerilekurako sarrerak zozketatuko dituzte. Horrekin batera, Jimmy Bidaurretaren *Hotsak* Dantzan disko berria eta Euskaltelen kamisetak zozketatuko dituzte irratian.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**GOITB** > KIROLAK

# Antzuolako sariko irudiak, eta datorren astean egingo dute Ehun Milak berbagai

Uztailean ere badira kontutan hartzeko moduko kirol hitzorduak; esaterako, datorren asteko Ehun milak

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Asteleheneko Harmailatik kirol saioan asteburuan egin duten txirrindularitzako Antzuola sariko irudiak egongo dira ikusgai, eta horrekin batera, Naturgas Broad Peak espediziko azken berriak, eta Debagoieneko squash txapelketako irudiak ere eskainiko dituzte. Hala, nahiz eta uztailean egon kirol hitzorduek ez dute behera egin, eta datorren asteburuan izango da adibide garbia.

**EHUN MILAK BERBAGAI**

Izan ere, Beasainen hasita Ehun milak iraupen luzeko mendiko lasterketa egingo dute (167km), ultratrail moduan ezaguna, eta bertan izango dira ibarreko hainbat atleta. Aste barruan Mikel Valdivieso antolatzaileari egindako elkarrizketa eskainiko dugu, eta proba Debagoieneko lurretatik pasatzen denez, datorren astelehenean GOITBn izango duzue lasterketaren berri.

Egubakoitzean, 18:00etan hasiko dute Beasainen proba, eta korrikalariak Gorlatik pasako dira gaueko lehenengo orduan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

LITO METEORITOAREN ABENTURAK

Planetarium Txikian saio berria estrenatzen dugu.
4-8 urte bitartekoentzat.

LITO meteorito berezi honen abenturek, izarren adina, sateliteak eta zeruko beste objektu batzuei buruz zertxobait ikasten lagunduko dizute.



Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*
**Udako ordutegia**
Astelehenetik ostiralera 10:00-20:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-20:00.

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak


ARETXABALETA
**Maren Negro Gomez**
Uztailaren 3an, 3 urte. Muxutxo handia aita, ama eta Erlantzen partetik, printzexa!


ARRASATE
**Leire Lara**
Uztailaren 3an, 8 urte. Mila-mila zorion, larroxa! Egun on-ona pasatu eta jarraitu horrelakoa izaten. Muxu handi-handi bat aitatxo, amatxo eta Naiararen partetik.


OÑATI
**Mireia Bikuña**
Uztailaren 5ean, urtebetetzea. Gerra pinturak atera ditugu. Gora indioak! Zorionak lankideen eta gainontzeko indioen partetik.


ARETXABALETA
**Oihane Agirre**
Uztailaren 6an, urtebetetzea. Kendu zapi gorrixa eta jantzi amantala, beriro be halako bizkotxuak eitteko! Zorionak lankideen partetik.


ARETXABALETA
**Inna Naroa Rodriguez**
Uztailaren 8an, 6 urte. Zorionak. Jada 6 urtetxo bete dituzu, zelako handia! Patxo handi bat etxeko guztien partetik.


ANTZUOLA
**Usoa Agirre**
Uztailaren 8an, 29 urte. Urte askotarako, prexioxa! Antzuolako jaixetan trago bat zure kontu e! Muxu handi bat Goienako lankidien partetik.


ARRASATE
**Jone Aranburuzabala Loiti**
Uztailaren 8an, 3 urte. Zorionak, Jone bihurri! Etxekuen partetik ondo-ondo pasatu eguna, eta Garagartzan txokolatadia eingou!


ESKORIATZA
**Maddi Mondragón**
Uztailaren 8an, 8 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunien. Hamaika mila irrifarre eta patxo potolo-potoluak. Aitatxo eta amatxo.


ARETXABALETA
**Lander Cebrino**
Zorionak, bikote! Landerrek uztailaren 9an, 3 urte eta aitatxok uztailaren 26an, urtebetetzea. Muxu handi bat amatxoren partetik. Muak!


OÑATI
**Jon Ander Aramendi**
Uztailaren 9an, 30 urte. Zorionak, aittatxo! Ondo-ondo pasatu eta ia noiz ospaketan dogun bazkari bereziren batekin edo? Patxo handi bat etxekuen eta, batez be, Lideren partetik.


ARETXABALETA
**Oinatz Zabala Frutos**
Uztailaren 9an, 3 urte. Zorionak, potolontzio! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat Iraide, amatxo eta aitatxoren partetik.


OÑATI
**Ane Sagastume**
Uztailaren 10ean, urtebete. Zorionak, potxola, familiakoen partetik.


BERGARA
**Irati Eguren Guereñu**
Uztailaren 11n, 6 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo handi bat etxekoen partetik.


LEGUTIO
**Mirian Biteri**
Uztailaren 11n, urtebetetzea. Gertatu zapairik gabeko todoterreneoa asteburukoko. Zorionak lankideen partetik.


LEGUTIO
**Kepa Martelo**
Uztailaren 12an, urtebetetzea. Parranda ederra bota eta lanparretatik urrun ibili behingoz! Zorionak lankideen partetik.


ARRASATE
**Iraia Loiti**
Uztailaren 12an, 4 urte. Zorionak, marisorgin! Tori 4 kilo patxo potolo zure familia eta lagun guztien partetik.


ARETXABALETA
**Haize Garcia**
Uztailaren 12an, 2 urte. Zorionak zuri, zorionak beti… Ondo pasatu zure eguna, printzesa! Muxu bat Iagoren partetik!


ANTZUOLA
**Xabier Alonso Berezibar**
Uztailaren 12an, 4 urte. Zorionak, Xabi! Zure urtebetetza danok batera ospatuko dugu. Beraz, prestatu pastel goxua. Patxo handi-handi bat danon partetik, baina bereziki Maddi eta Oinatzen partetik.


ARETXABALETA
**Eider eta Urko Arias Axpe eta Perez Arias**
Eiderrek 3 urte eta Urkok 9. Zorionak lehengusu bikote honi! Patxo pila etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu zuen eguna. Preparatu merixendia danondako.


ARRASATE
**Iradi Unamuno Barona**
Uztailaren 13an, 4 urte. Zorionak, bihotza! Ondo pasatu eta muxutxu handi bat danon partetik.


OÑATI
**Unax Zelaia Lazkano**
Uztailaren 13an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bana amama, aitita, tio eta tiaren partetik.


BERGARA
**Lorea Arenaza**
Uztailaren 14an, 5 urte. Zorionak, politoi. Patxo handi bat etxekoen partetik.


OÑATI
**Jon Bartolome**
Uztailaren 14an, 10 urte. Zorionak Joni! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.


OÑATI
**Lorea Lazkanoiturburu Palacios**
Uztailaren 14an, 5 urte. Gure etxeko printzesatxoari, zorionak eta bost muxu goxo-goxuak familia guztiaren partetik.


BERGARA
**Diego Perez Martin**
Uztailaren 14an, 40 urte. Zorionak zure urtebetetzean eta muxu handi-handi bat. Asko maite zaitugulako. Nahia, Iker eta Crisen partetik, segi horrela, txapeldun!


OÑATI
**Oier Sancho**
Uztailaren 16an, 9 urte. Zorionak! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat maite zaitugun guztion partetik, asko gara-eta!


ESKORIATZA
**Oskar Andetxaga**
Uztailaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Ondo pasatu zure egunian Gentzane, Oinatz eta amatxoren partetik.


ARETXABALETA
**June Algaba**
Uztailaren 17an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat Iagoren partetik.


BERGARA
**Iñaki Iturbe**
Uztailaren 18an, urtebetetzea. Etxeko obrak ahaztu eta *tiburoia*-n buelta bat eman. Zorionak lankideen partetik.

## kuxkuxeroa


Mirian Biteri

# Espainiakoa, La Caixako etxeetan

Futbola gora eta futbola behera. Hori izan da azken egunotako gaia, kalean, tabernetan eta etxeetan ere. Arrasatearrak, gainera, kuxkuxeatzen ere ibili dira, egubakoitzean La Caixako etxebizitzen balkoi batean **Espainiako ikurra** jarri zutelako. Pentsa esamesa nolakoa izan den Bergarara ere iritsi egin dela kontua.

Kirola utzi barik, txirrindularitza eta zehazki Tourrean parte hartzen ari den debagoiendar bat ere albiste izan da egunotan; **Iban Velasco,** hain justu ere. Zorionekoa arrasatearra, txirrindularitza lasterketa garrantzitsuenean parte hartzeaz gain, aita izan delako. **Nora alaba** jaio da, hilabeteko aurrerapenarekin. Jaiotzan egoterik ez badu izan ere, Velascok pozik egoteko arrazoia du, umea ondo dagoelako.

> **"Jaiotzan egoterik izan ez badu ere, Velascok pozik egoteko arrazoia du; ondo jaio da Nora"**

Bestalde, jai giroan ederto ibili den talde baten berri izan dut. Suitzatik bueltan, **Oñatiko Oiñatz dantza taldekoek** afaria egin zuten zapatu gauean, eta horren ostean, dantza egitera ere animatu ziren, kalean zeudenei bat-bateko emanaldia eskainiz. Amaitzeko, Antzuolan bazkaria izan zuten atzo erretiratuek. Beno, erretiratuek bakarrik ez, **Pedro Iturbe** alkatea ere han izan zen, eta baita **hainbat zinegotzi** ere; horiek, dena dela, mahaiak zerbitzatzen.

## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak…

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## asteburuko albuma





JOXE MARI AZPITARTE

**Paperezko hegazkinen II. txapelketa.** Aireportu berezi bihurtu zen egubakoitz arratsaldean Oñatiko gaztelekua, bertan egin zuten-eta paperezko hegazkinen txapelketa. Antolatzaileen esanean, txapelketa honekin papiroflexia landu gura izan dute, eta uztailean egiteak gainera, badu bere arrazoia: "Ikasturtean zehar eginez gero, gero astelehenean denak eskolan hegazkinak ibiliko lirateke" azaldu digu gaztelekuko Joxe Mari Azpitartek. Hamalau izan ziren parte-hartzaileak, eta egin beharreko lehenengo lana, paperezko hegazkina bera diseinatu eta eraikitzea izan zen. Denetarik ikusi zen: bai hegazkin sinpleak eta baita landuagoak ere. Txapelketa bera baina, gero etorri zen, hegazkinen hegaldiak baloratzeko orduan. Lehiakide bakoitzak bere hegazkina bota zuen, eta gainerako parte-hartzaileek hegazkinaren hegaldia puntuatu zuten. Azkenean Unai Beitiaren hegazkina ibili zen denetan dotoreen, eta berarentzat izan zen garaipena.







JULIO CALLEJA

**Kontzertu instrumental lirikoa.** Eskoriatzako Errekan Gora jaialdiak asteburu honetan izandako bi hitzorduen artean, zapatuan Gasteiztik etorritako abeslari liriko taldea izan zen protagonista. Emanaldia hiru zatitan banatu zuten, eta denera 21 pieza abestu zituzten. Lehenengo zatian, *Xalbadorren heriotzean* edo *Nere herriko neskatxa maite* bezalako kantu euskaldunak abestu zituzten, kasu honetan txalapartaren laguntzarekin. Bigarren eta hirugarren zatia klasikoagoak izan ziren eta pianoaren laguntzarekin abestu zuten, baita Benedetti bezalako poeten lanak errezitatu ere. Chopinen pieza klasiko batzuekin amaitu zuten ordu eta erdi inguru iraun zuen kontzertua, baina honen ostean musika ez zen geratu, eta *Txoriak txori* bezalako kantuak inprobisatu zituzten. Jende asko egon zen kontzertua ikusten, eta gaubeila atsegina igaro zuten.

## jaiotakoak



**Edith Heis Cenzual**
Bergara > 3,900 kilo. Uztailaren 4an. Gurasoak: Raquel (Soraluze) eta Agus (Bergara). Argazkian, Edith jaioberria, lo.



**Enara Zubia Vicente**
Eskoriatza > 3,830 kilo. Uztailaren 8an. Gurasoak: Susana (Aretxabaleta) eta Joseba (Eskoriatza). Argazkian, Enara jaioberria, lo.



**Alain Garai Carmona**
Arrasate > 4,220 kilo. Uztailaren 7an. Gurasoak: Ana Jesus (Arrasate) eta Joseba (Arrasate). Argazkian, Alain jaioberria, aitarekin.



EGOITZA NAGUSIA
Ibarra kalea 6, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com


**Aitziber Garmendia** > Antzezlea

# "Txiki-txikitatik bizi izan ditut istorioak"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Telebistaren aurrean antzokietako oholtzak erreibindikatzeaz ez da nekatzen. Berak ere telebistakoak baino gurago ditu eszenategi gaineko fokoak. Antzerkiaren hartxo hori umeei sartzen dihardu asteotan, hain zuzen, Aitziber Garmendiak bergarako beska-mutikoekin.**

**Etorkizuneko izarrik atzeman duzu?**

Batzuei nabarmen ikusten zaie badutela zera berezi hori, foko bat ikusi edo oholtzara igo eta zirrara hori sentitzen dutela ikusten zaie. Telebistan imitazioz ikasitakotik asko jakinda etortzen dira klaseetara.

**Antzerkia da zuretzat pasioa. Zinemako pantailan zure burua ikusi zenuenean ez zitzaizun gustatu ala?**

(Barre) Ematen zuen nire aurpegi borobil borobilak pantaila osoa bete betean hartzen zuela. Inpresio handia hartu nuen oso pertxenta naiz-eta; hori ezin ukatu!

**Herri txiki batetik datorren neska alaiaren papera jokatu zenuen, hau da, zu zeu, ez?**

Gidoia irakurri nuenean horixe pentsatu nuen! Imajinatu: Zaldibitik atera nintzen eta Donostian oihanean bezala sentitzen nintzen. Herri txikian moduan, kaleko jende guztiari agur eta gutxi esaten nion! Sekulako abentura izan zen hori niretzat neurri baten.

**Donostian aurkitu zenuen zeuk ere antzerkiarekiko pasioa, ez?**

Gogoan dut nola gazteagotan niretzat oso berezia izaten zela Zaldibitik Donostiara joatea antzezlan bat ikusteko. Orduan hasi nintzen neu ere ametsetan.

**Ipupomamua saioan haurrei ipuinak kontatzen ibiltzen zara. Zer irakurtzen zenuen zuk txikitan?**

Gogoan dut Izpitxo, intxaur azal baten lo egiten zuen neskatxoa. Zapo gaizto batek jan nahi izaten zuen eta ni beti negarrez hasten nintzen. Gogoan dut zelan boligrafoa hartu eta liburua zultzen nuela, kolpeka, zapoa agertzen zuen orrietan. Istorioa bizi egiten nuen, txiki-txikitatik oso barnera heltzen zaizkit istorioak.

**Eta nagusiagotan, zein ipuin duzu gustuko?**

Nabukoven *Lolita*. Harrapatu egin ninduen Lolitaren moral bikoitz horrek. Nahiz eta orain nagusitxoegia naizen adinez, asko gustatuko litzaidake pertsonai hori egitea.

SOSLAIA

## Istorioak

*Martin* telesailean "guraso" Elena Irureta eta Jose Ramon Soroiz izango zituela esan ziotenean loa joan zitzaion. Miretsitakoekin lan egitea ametsa zen Garmendiarentzat.
Hala ere, antzerkiak erotzen du benetan, oholtza gainean bizi izan ditu momenturik gozoenak. Azkenaldian, baina, pantaila txikian haurren lagun bilakatuta dabil Ipupomamua haur literatura saioan. Leku ezin hobea edozein istorio "irensteko" gai dela onartzen duen batentzat.


Aitziber Garmendia. JONE INUNTZIAGA

## ai, ene!



### Hau bai sofa-ohea!

Zertarako egongelatik logelara joan, gustura lo egin nahi izanez gero? Argazkiko sofa-ohearekin, lasai eserita egon eta lo, dena bertan. Eta, gainera, ohiko sofa-oheek eskatzen duten prestaketa lanik hartu beharrik ez!

http://www.sarda.es

## biharamuna

Oier Bolibar

### Ezta tutik

Omnium Cultural-ek egindako spot-a ikusteko aukera izan nuen joan den astean. Catalunya-ko hainbat pertsonaia ezagunez osatua eta Catalunya-ko biztanleria sentsibilizatzeko egina. Larunbaterako Bartzelonan deiturik zegoen manifestaldia antolatu zuen elkarte kulturala da Òmnium, hizkuntza, kultura zein identitate katalanaren alde 1961. urtetik lanean dabilen elkartea. Larunbatean, "Som una Nació, Nosaltres decidim" lelopean milaka kataluniar atera ziren Bartzelonako kaleetara.

Herriak erabaki zuena gutxi batzuek Madrilen isildu baitute beste behin ere, 2004. urteko Abenduan Eusko Legebiltzarrak erabakitakoa Madrilgo diputatuen kongresuan isildu zuten moduan, bata botere legegileaz baliatuz eta oraingo honetan botere judizialaz. Hiru zutabe nagusi zituzten proposamen biek: identitate propioa duten herriak direla onartzea, erabakitzeko eskubidea, eta herriak harturiko erabakiak errespetatzea.

Edozein herrialde demokratikok onartuko lituzkeen oinarrizko printzipioak diren arren, gauden honetan bideak kale itsu batera garamatza behin eta berriz, emaitzak agerian direlako, ezta-tutik.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +23 | +17 |

Eguna goibel hasi arren, ateri eutsiko dio eta arratsalderako jasoko du. Ipar-mendebaldeko haizea giroa freskatzen.

www.euskalmet.net

